



Lanbide aldatetegi buruzko erreportajea

Elkarrizketa adimen artifizialean aditu Leire Legarretari



ILUNTASUNEN GIZAKIEN ORDUA

Eske-errondak, ikaratzeko kondairak eta arimen biltzarrak izango dira gaur bailarako herri gehienetan / 2

Gazte talde bat, Gaba Baltza girotzeko Aretxabaletako udaletxe zaharrean antolatutako ihes-gelan. XABIER URTZELAI ATXA

Gaizka Morales elgetarra Dantza Konpainia Nazionalen arituko da

Bakarlari mailako bost urteko lan-kontratua sinatu du eta Muriel Romeroren agindupean dantzatuko du / 39



Gaizka Morales dantzan. G.M.

Zazpi urtean alokairuak %30 igo dira bailaran; Arrasate da herri garestiena / 5

Jaiegunotan turismo eskaintza berezia izango da Debagoieneko herrietan / 3



Antxintxika krosetan antolatzaileek 400dik gora parte-hartzaile espero dituzte zapatarako / 48

Arrasate Zientzia Elkarteak lau hitzaldi iragarri ditu XII. Iragana Astintzen zikloaren baitan / 9



'KOOPERATIBAK' GEHIGARRIA / 19

SINADURAK

 URTZI AMIANO SALTERAIN / 6	 KARMELE URIBESALGO / 41
 JOHANNA SANCHEZ / 10	 AMAIA EROSTARBE LETAMENDI / 45
 ION LIZARAZU / 18	 IZAR ODRIOZOLA / 56



Oñatin joan den urtean egin zuten beldurrezko zirkuituaren argazki bat. BERNAT ALBERDI

Debagoiena, beldurgarri gaur

Duela urte batzuetatik hona, arrakasta izaten ari da Euskal Herrian Gaba Baltzaren berpizkundea. Urriaren 31n ospatzen da, eta Debagoiengan ere hainbat ekintza antolatu dituzte euskal tradizio horrekin lotuta

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA
Halloween ospatzen dute AEBetan, baina Euskal Herrian ere bada Arimen Gauaren inguruko ospakizunik; aspalditik, gainera. Gaba Baltza dauka izena, eta Euskal Herri osoan egin da ospakizuna berpizteko lana; Debagoiengan ere erritu zaharrak berreskuratu, eta herri batzuetan beste berri batzuk ere sortu dituzte egun horretarako.

Antzuolan, lehen aldiz
Antzuolan, berriz, 18:00etan hasiko dira haurrentzako ekintzak, eta ekitaldia egingo dute 19:10 aldera, Herriko Plazan. Halloween jaiaren izaera anglo-saxoia, hein batean, albo batera utzi eta Euskal Herriko ohiturei bide emateko asmoz, antzuolarrek Gaba Beltza ospatuko dute lehen aldiz. "Sormen batzordean ateraz iaz ideia, baina ez genuen

aurrera egin; aurten, ordea, bai: Gaba Beltza ospatuko dugu", adierazi du Jone Larrañagak, Antzuolako Udaleko Kultura teknikariak. Herriko beste eragile batzuek ere bazeukaten ideia buruan, eta, azkenean, Udalak, Idolaz Aisialdi Taldeak, Helburu Akademiak eta Bergarako Musika Eskolak antolatu dute elkarlanean jaia.

Lanketa berezia Elgetan
Elgetan ere lanketa interesgarria egin dute. "2021ean lanketa bat egiten hasi ginen. Argi geneukan jai herrikoi bat izan behar zue-

BERGARAN AURTEN ERE BAUTISTA LEGENDUNAREN ANTZEZTUTAKO BISITA IZANGO DA

la, eta eragileekin prozesu bat hasi genuen: ludoteka, Udala, eskola, guraso elkarteak...", azaldu du Geaxi Ezpeletak, liburutegiko arduradunak. "Indibidualismoaren aurka egin nahi izan genuen; hau da, mozorroak urtero eroste horri aurre egin, eta lortutakoa guztien artean banatu zezaten", esan du Ezpeletak.

Gaur, esaterako, 18:00etan elkartuko dira umeak, eta taldeei erronka bat proposatuko diete: koreografia bat egitea, kantu bat ikastea edo bertso bat botatzea, esaterako.

Aurtengo beste berritasun bat ere nabarmendu du Ezpeletak: Josu Ozaitaren *Gau Beltza* liburua irakurri dute LH-4, LH-5 eta LH-6 mailetak haurrek, eta Ozaitarekin lanketa bat egin dute aste honetan Gaba Baltzari buruz liburutegian.

Aretxabaletan, ihes-gela

Aretxabaletan eskea eta Arimen Gaua girotzeko ekitaldia antolatu dute gaurko, baina, horrez gain, urtero arrakasta berezia izaten duen ekintza ihes-gela izaten da. Loramendi elkarteko Loratu aisialdi taldeak sortu zuen, 2020an. Ordutik, urtero istorio bat asmatzen dute ihes-gelarako, eta parte hartzaileek istorio horri konponbide bat eman beharko diote eremutik irteteko. Aurtengo ekimenaren kasuan, *arimak* izango dira protagonista. Zehazki, bi andrazkoren arimak. "Horietako bati lagundu beharko diote parte hartzaileek", esan du Sanchezek.

Aretxabaletako hainbat lekutan egin izan dute ekimena azken urteetan, baina azken hiru urteetan udaletxe zaharrera aldatu dute ekintza, Sanchezek azaldu duenez. "45 minutu izango dituzte konponbidea aurkitu eta gelatik irteteko". Jadanik "tradizio" bihurtu da ihes-gela Aretxabaletako Gaba Baltzean.

Kukumarroak ere pertsonaia esanguratsuk dira Debagoiengoko hainbat herritan. Aretxabaletan gaueko protagonistetako bat bihurtu da azken urteetan. Kukumarroek Arimen Gaua irudikatzen dute, eta aurpegi zuria, begi beltzak eta lastozko kapela eta alkandora koadroduna eraman ohi dituzte. Kalean eskean ibiltzen dira.

Eskoriatzan, beldurak sutara

Eskoriatzan, behin Gaba Baltzaren tradizioa berpiztuta, beste helburu bat jarri dute aurten: haurren jai izateari utzi eta herritarren jai bihurtu nahi dute. Iaz sortu zuten beldur-harrapakarien figura indartu nahi dute horretarako. Pertsonaia ilunak dira, guztien beldurak batu eta sutan erretzeko ardura dutenak.

Haurrentzako ginkana-eskea izango da gaur, 17:30ean. 8 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute, eta herrian zehar egindako ibilbide bat izango da, istorio bati jarraiki eta hainbat proba gaindituta bete beharko dutena. Gaintitzen den proba bakoitze gozokiak eskuratuko dituzte. Aldi berean, gaztaina erre eta makillaje



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hori poltsikoko telefonoarekin.

txokoa ere egongo dira Fernando Eskoriatza plazan. 18:00etan, berriz, 3 eta 7 urte bitarteko haurren familiei zuzendutako eskea izango da.

Horren ondoren egingo dute beldur-harrapakarien ekitaldia, arratsaldeko zazpitan. Haurrek nahiz helduek paperean idatzi edo margotuko dituzten beldurak batu eta sutan erreko dituzte. Dantza taldeko kideek eta bertso eskolakoek girotuko dute ekitaldia. Bukatzeko, zezensuzkoa ibiliko da plaza inguruan eta Jose Arana kalean.

Oñatin, beldurrezko zirkuitua

Oñatin, gaztelekuak antolatu du *Felixa etorri dela eta...* saio berezia. Hamabost laguneko taldeetan sartzeko aukera egongo da beldurrezko zirkuituan. Horrez gain, bada Oñatiko Gaba Baltzean beste zirkuitu berezi bat: 2019an sortu zitzaion ideia Oñatiko aita-ama kuadrilla bati; haien umeentzako beldurrezko ibilbide bat antolatzen hasi ziren etxean, ume asko gozokiak eskatzen ibiltzen zirela ikusita. Urtez urte geroz eta ume gehiago hurreratzen joan ziren. Iaz, haien etxeetatik atera eta beldurrezko zirkuitua Oñatiko kantoï batean egiten hasi ziren ibilbidearen sortzaileak, eta aurten, azkenean, Santana antzokian egingo dute beldurrezko zirkuitua, komentuan bizi ziren mojen inguruko istorio bat oinarri hartuta.

Aramaion, kanposantura

Aramaion gaurko egitaraua antolatu dute Txirritola euskara elkarteak, guraso elkarteak, Aramaixo Herri Eskolak eta Udalak: 16:30ean, aurpegi margotzea eta eskulan tailerra egingo da kultura etxean; 18:30ean beldurrezko ipuin kontaketa izango da, HHko umeentzat liburutegian eta LHN daudenentzat kanposantu zaharrean; 19:30ean, kalejira beldurgarria; eta 20:15ean, edabe magikoa eta musika herriko plazan.

Arrasaten, Arimen Biltzarra

Arrasaten ere kukumarroekin eta Ilargitxorekin batera egingo dute Arimen Biltzarra ibilbidea, 18:00etan hasita. Udalak herritarrek animatu ditu baserritar edo kukumarro janztera. Horren ondoren, DJ Putzu eta DJ Galzagorri egongo dira gaztetxean, 00:00etan hasita.

SARETZEN: ETXEBIZITZA

Etxebizitza alokatzea: zaila eta garestia


Etxebizitza eskuratzeko zailtasuna geroz eta handiagoa da Debagoiengan ere. Herritarrek alokairura jotzen dute, baina dagoen eskaintza txikia da, eta, hortaz, prezioak altuak. Etxea erostea ere ez da erraza gaur egun

Jone Arruabarrena - Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria DEBAGOIENA

Herritarrek gero eta joera handiagoa dute alokairuetara jotzeko; hala ere, prezioak ez dira eskuragarriak sarritan, eta, sektoreko adituek diotenez, ez dago eskariari erantzuteko behar besteko eskaintzarik. Hala ere, gaur-gaurkoz, herritar gehiago bizi dira jabetzako etxeetan alokairuan baino.

Egun, lan nekeza izan ohi da herritar zenbaitentzat etxebizitza bat alokatzea, eta ez da soilik uste bat, baizik eta errealtate bat; bai, behintzat, Iruñe Elexpuren, Arrasateko Sampru etxe-agentziako kidearen, esanetan: "Gustatuko litzaidake esatea bi aldeetatik dugula eskaintza: hau da, eskaintza bera dugula etxe bat alokatzeko edo erosteko garaian. Baina ez da horrela. Errealitatea da salmentarako asko ditugula, baina alokairurako etxe oso gutxi gelditzen zaizkigula eta, gainera, garestiak. Ikusten dugu behar oso handia dagoela".

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 2016tik 2023ra bitartean, etxebizitzaren batez besteko alokairuaren prezioak %30,18ko igoera izan du Deba-



goiengan: 142,9 eurokoa, hain zuzen ere. Izan ere, 2016an 473,5 euroko prezioa zuen batez beste etxebizitza batek, eta, hurrenez hurren: 2019an, 538,6 eurokoa; 2022an, 577,4koa; eta 2023an, azkenik, 616,4koa. "Datu horiek badute antza guk eskaini izan ditugu alokairuetako prezioekin, baina badaude askoz ere garestiagoak. Adibidez, nik aurten alokairu bakarra zehaztu dut, ez dagoelako gehiago, eta 650 eurokoa izan da".

Herriz herriko egoerari erreparatuz gero, historikoki, Arrasaten egon dira alokairurik

garestienak, eta hala da gaur egun ere: 646,1 eurokoa da batez bestekoa, eta alboz albo ditu Bergara (600,8 euro), Aretxabaleta (586,1 euro) eta Oñati (582,8 euro). Lau herri horietan urtez urte egin du gora alokairuaren prezioak; gainontzekoetan, aldiz, 5.000 biztanletik beherakoak direnez, ez da jakinekua, Jaurlaritzak ez baitu eremu horietako datu zehatzik ematen.

Etxe gehiago jabetzan

Herritarrek bizi diren moduari erreparatuz gero, 2013ko eta 2023ko datuei tiraka, batik bat,

jabetzako etxeetan bizi ziren duela hamar urte: herritarren %86,6 bizi ziren era horretan eta %9,1, berriz, alokairuan; gainerakoak -%4,1, zehazki-, aldiz, bestelako moduetan -utzitako etxeetan, alegia-. Hala ere, aldatuz doa egoera, gero eta ohikoagoa baita herritarrek alokairura jotzea.

Jaurlaritzak emandako datuen arabera, iazko datuei erreparatuz gero, hamar biztanletik zortzi baino gehiago -%84, zehazki- bizi da jabetzako etxeetan, eta bat baino gehiago -%11,1- alokairuan. Bestelako modu batean bizi da, beraz, %5.

Salerosketak, gutxiagorantz

Etxebizitzaren salerosketen kopuruari dagokionez, 2007, 2013, 2022 eta 2023. urteak konparatuz gero, 2007an saldu ziren etxebizitza gehienak Debagoiengan: guztira, 728 saldu ziren. Hala ere, beherakada nabarmena izan zen 2013an -zehazki, 328 etxebizitza saldu-, hor eragina izan baitzezakeen, besteak beste, Atzeraldi Handiak -2008tik mundu osoko ekonomiarik, baina, bereziki, herrialde garatutakoentzako eragin zion krisialdi ekonomikoa-, higiezinaren burbuilaren leherketa eragin baitzuen Espainian, eta Hego Euskal Herrian, ondorioz. "Ni neu ez ninduen harrapatu krisialdi hark jardun honetan, baina, bertan diharduten profesionalek diotenez, garai zailak izan ziren", azaldu du Elexpuren. 2022ari eta 2023ari dagokionez, hurrenez hurren, 702 eta 642 etxebizitza saldu zituzten Debagoiengan.

Saldutako etxebizitzaren nolatasunari dagokionez, berriak

baino gehiago, gaur egun gehiago dira bigarren eskukoak: hamarretik ia zazpi -%69,7-, hain zuzen ere. Eta ez soilik Debagoiengan, baita barne dituen herri guztietan ere: 2007an eta 2013an baino bigarren eskuko etxebizitza gehiago saldu ziren 2023an. Horrez gainera, 2007an eta 2023an saldutako etxebizitza gehienak -%92,1 eta %98,6, ondoz ondo- merkatu librekoak ziren; ez, ordea, 2013an. Orduko hartan, saldutako etxebizitzaren %42,4 ziren merkatu librekoak; eta, horrenbestez, gainontzeko guztiak -%57,6, zehazki- babes ofizialekoak.

Egun, 2013an baino etxebizitza-parke gehiago dago eskualdean: 30.119 ziren orduko hartan, eta hamar urtera, 2023an, 31.375. Horiek guztiak, ordea, ez dira herritarren etxebizitza nagusiak: 2013an etxebizitza parke guztiaren %84,14 ziren izaera horretakoak eta %85,77 2023an; gainontzeko guztiak, horrenbestez, bigarren etxebizitzak edo hutsak izan daitezke.

Izaera horietako bat izan dezaketen etxebizitzetako dagokionez, Leintz Gatzagan daude gehienak: hamarretik ia lau (%37,96) daude horrela, eta hurrenez hurren ditu: Aramaio (%26,47), Elgeta (%23,56), Eskoriatza (%16,94), Antzuola (%16,67), Bergara (%16,56), Oñati (%14,41), Arrasate (%11,71) eta Aretxabaleta (%8,89).

2016TIK 2023RA BITARTEAN, ALOKAIUAREN PREZIOAK %30,18KO IGOERA IZAN DU

Sektoreko zerbitzu integral osoena jartzen dugu zure eskura

Ab

ARRASATE BERRIA
HILETA ZERBITZUAK

San Andres auzoa.
Tel.: 943 79 22 19

AOT

ARETXABALETAKO
TANATORIOA

Basabe 6, behea.
Tel.: 943 79 22 19



Bergaran egindako elkarretaratzea. TXOMIN MADINA

Elkarretaratzea Kabiaren inguruko epaia salatzen

Donostiako Administrazio Auzitegiak bertan behera utzi du Kabiaren zenbait adineko egoitzatan egin zen lan-eskaintza, tartean Oñatikoa eta Bergarakoa, hizkuntza-eskakizunak "neurritz kanpokoak" direla iritzita. Foru Aldundiak helegitea aurkeztu du

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

2022an onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpe dagoen eta lurraldeko hainbat adineko egoitza barnebiltzen dituen Kabia erakundeak 54 lanpostu egonkortzeko lan-eskaintza egitea. Urte hartan, lan-eskaintzaren aurkako salaketa jarri zuten bi langilek, eta orain, Donostiako Administrazio Auzitegiak arrazoia eman die. Gonzalo Perez Sanz epaileak "neurritz kanpokoak" jo ditu lan-deialdi hartan euskararekin lotuta egiten ziren hizkuntza-eskakizunak, eta oinarritzko eskubideen urraketa gertatu zela ebatzi du.

Hizkuntza-eskakizunak euskararen ezagutzarekiko proportzionala izan behar duela eta kasu horretan proportzionaltasun hori ez dela bete argudiatu du epaileak, eta 49 lanpostutan euskarazko B1 eta B2 maila eskatzea gehiegizkoa eta baztertzaila dela azaldu. Horrenbestez, auzitegiak bertan behera utzi du 2022ko lan-eskaintza hura. Epaia Debagoieneko bi egoitzatan izango du eragina: Oñatiko San Martinen eta Bergarako Mizpirualden. Horrez gain, Eibarko, Tolosako eta Irungo egoitza banatan ere eragingo du. Arrasateko Iturbide egoitzari, Kabiaren parte izan arren, epaia ez dio zuzenean eragiten.

Elkarretaratzea Bergaran

Gertatutakoa salatzen eta epaia-erikiko desadostasuna erakusteko, Jardun euskara elkarteak eta Udalak deituta elkarretaratzea egin zuten astelehen iluntzean Bergaran, udaletxe aurrean. *Eraso eta sententzia euskarafoborik ez zioen elkarretaratzean erabili zuten pankartak, eta deialdiarekin bat egin zuten EH Bilduren Udal Gobernuako kideek, baita EAJren Udal Taldeko ordezkariak ere. Elkarretaratzea amaitzeko, Jardun euskara elkarteak gainontzeko herrietako euskara elkarteekin adostutako testua irakurri zuen.*

"Kasu honetan, Kabiaren kontrako epaia da irten dena, baina euskara elkarteetatik ikusten dugu behin eta berriz ari direla auzitegiatar eramatzen euskara irizpideen kontua eta epaitegien erantzunak euskararen kontrakoak direla. Ez dira kasu konkretuak, dinamika bat baizik, behin eta berriz gertatzen dena, eta ikusten dugu honek ezin duela horrela jarraitu", adierazi zuen Jarduneko kide Nerea Mendizabalek. "Mizpirualde bezalako egoitzetan dauden pertsonak zaurgarriak dira, eta,

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EPAIAREN AURKAKO HELEGITEA JARRIKO DUELA IRAGARRI DU

are gehiago, merezi dute haien hizkuntzan eta ondo artatuak izatea", gaineratu zuen.

Ainhua Lete alkateordeak epaia "larritasunez eta kezka" hartu duela adierazi zuen, eta azkenaldian auzitegiek euskararen inguruan hartzen dituzten erabakiak "norabide garbi" baten doazela salatu: "Oinarritzko eskubide baten kontra doaz, ez dira doako sententziak". Mikel Letek, EAJren Udal Taldeko bozeramaileak, jasotako epaien artean "bat gehiago" dela esan zuen: "Gure balorazioa ez da batere positiboa, lan-eskaintza publikoak bertan behera geratzen ari direlako. Herritarrek eskubidea dute zerbitzuak kalitatezkoak izan daitezen, eta horiek bakoitzak aukeratzeko duen hizkuntzan jasotzekoa ere bai".

Helegitea jarriko dute

Lehen momentutik asmoa erakutsi arren, martitzenean baieztatu zuen Irune Berasaluze Gobernantza diputatuak Foru Aldundiak helegitea jarriko duela Kabiarako jarri ziren hizkuntza-eskakizunen defentsan. Herritarrek zerbitzua nahi duten hizkuntzan jasotzeko eskubidea dutela azaldu zuen Berasaluzek, gobernu kontseiluaren osteko agerraldian. "Gure eguneroko lana euskaraz egiten dugu, eta ez dugu atzera urratsik egingo euskararen normalizazioaren bidean", adierazi zuen.

Avanza Gipuzkoako langileek greban jarraitzen dute

Espainian UGTk eta CCOOk egindako deialdiaren gain, Avanzako langile komiteak deialdi propioa egin du

G.B.Z. DEBAGOIENA

Atzo hasi zuten greba Avanza Gipuzkoako langileek, eta bihar-ko 02:00ak arte iraungo du. Aste honetan, osotara, lau greba egun izan dituzte, baina bi deialdi ezberdinen baitan. Astelehenerako deitu zen lehen greba eguna, UGT eta CCOO sindikatuek Espainian egindako deialdiaren baitan. Bigarren deialdia, berriz, atzotik bihar arte iraungo duena, Langile Batzordeak eskatutakoa da.

Bi greben arrazoiak

Gaurko greba, Langile Batzordeak -6 ELA, 6 UGT, 1 LAB eta 1 Aurrera- bultzatutakoa, bi arrazoi nagusiren bueltan egin dute: alde batetik, autobusen mantentze-lan kaxkarra dago. "Ez dute mantentze-lanen jarraitpenik egiten. Mekanikariari ez diote denborarik ematen bere lana ondo egiteko, autobusen beharra dugulako. Enpresak dio Diputazioak ez diola uzten autobus gehiago izaten. Guk uste dugu gauza gehiago daudela atzetik", dio Fermin Iregik, batzordeko eta LAB sindikatuko kideak. Bestalde, hitzarmenaren puntua dago. "Hitzarmeneko 35

puntu inguru aldatzeko eskatu genuen. Askok zirela esan ziguten, zehazteko eta gutxiago izateko. Komiteko sindikatu guztiak bildu eta zazpi puntu adostu genituen. Zazpi puntuetatik seiri ezetz esan zioten", gaineratu du.

UGT eta CCOO sindikatuek astelehenerako deitutako grebaren helburua erretiroa 60 urtera aurreratu ahal izatea da. Arriskutsutzat jotzen dute adin horrekin gidari lanak egitea.

Data gehiago

UGTk eta CCOOk azaroaren 11rako, 28rako eta 29rako eta abenduaren 5erako eta 9rako iragarri dituzte greba egun berriak. Langile Batzordeak, berriz, azaroaren 2ko 22:00etatik azaroaren 5eko 02:00etara deitu du.

Eraginak Debagoiengan

Astelehenerako grebak %25eko parte-hartzea izan zuen ibarrean, gutxi gorabehera. Oraindik ez dago bigarren grebaren daturik, baina komitearen %90 baino gehiago agertu zen alde, eta parte-hartze handia espero zen. Debagoienetik igarotzen diren autobus linea gehienentzat zerbitzu minimoak ezarri dituzte.

Bertsolaritza, adineko egoitzen erabiltzaileen poztasunerako

Foru Aldundiak, Lankuk eta adinekoen egoitzek 'Bertso bira' antolatu dute; hiru saio izango dira Debagoiengan

G.B.Z. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk, lurraldeko adinekoen egoitzekin lankidetzan, *Bertso bira* ekimenaren bederatzigarren edizioa antolatu dute. Aurrez *Adin-adin* izenez ezagutzen zen proiektuari esker, udazkenean zehar 30 bertso saio egingo dituzte adineko egoitzetan, egoiliarrei bat-bateko bertsoei esker gozatzeko aukera emateko. Helburua da bertsolaritzari esker erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea, haien gaitasun kognitiboak sustatzearekin batera.

Hiru saio Debagoiengan

Debagoiengan hiru saio egongo dira. Lehena Bergaran izango da, azaroaren 5ean, 17:30ean. Andoni Egañak eta Ainhua Agirreazaldegia elgetarrak Mizpirualde egoitzan kantatuko dute. Bigarren saioa Arrasaten izango da, azaroaren 7an, 11:00etan. Anjel Mari Peñagarikano eta Maider Arregi oñatiarra Iturbide egoitzan izango dira. Azkenik, azaroaren 8an, Peñagarikano eta Ane Zuazubiskar arrasatearra Aretxabaletako GSR Debagoiengan izango dira, 11:00etan.

Debagoiensean zubirako turismo eskaintza berezia

Azaroko zubian ibarreko hainbat txoko hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango dute debagoiendarrek. Hainbat herritan turismo bulegoa egunero egongo da zabalik, eta mota askotako bisita gidatuak ere antolatu dituzte egun hauetarako

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Azaroko zubia probestuko dute askok oporrak hartu eta kanpora joateko. Era berean, beste asko etorriko dira Debagoienera, eta izango da bertakoa izanik ere inguruko ondarea hobeto ezagutzeko hautua egingo duenik. Guztien jakin-mina asetzeko eskaintza izango da asteburu honetan; izan ere, udal askok turismoari zuzendutako eskaintza berezia kaleratu dute.

Leintz Gatzagan, Gatz Museoa

Leintz Gatzagan, esaterako, Turismo Bulegoa eta Gatz Museoa zabalik egongo dira barikutik domekara, 10:00etatik 14:30era. Gainera, egun horietan bisita gidatuak ere egongo dira museoan: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz.

Bergarako Laboratorium

Bergaran, berriz, Laboratorium Bergara Zientzia Museoa zabalik egongo da goizean ostiralean eta igandean 10:00etatik 13:00etara, eta zapatuan egun osoko ordutegia izango du: 10:00etatik 14:00etara goizean eta 16:00etatik 19:00etara arratsaldean. Bergarako monumentuak eta lorategiak ikusteko bisita gidatuak ere antolatu dituzte; egunero izango dira, 11:00etan eta 12:30ean.



Leintz Gatzagako Gatz Museoa. GOIENA

Oñati monumental

Oñatiren kasuan, *Oñati Gipuzkoako herri monumental*a bisita gidatua egongo da egunero 13:00etan: Euskal Herriko lehenengo unibertsitatea bisitatuko da eta San Migel parrokiako historia ezagutu, besteak beste. Hirigune historikoa ere zeharkatzen du bisitak. Turismo Bulegoa zabalik egongo da egunero goiz eta arratsalde: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Arantzazuko Santutegia ikusteko bisita gidatuak ere antolatu dituzte; euskaraz

egingo dituzte egunero, 10:30ean, eta gazteleraz 12:30ean. Bertako Turismo Bulegoa ere zabalik egongo da, 10:00etatik 14:00etara.

Frontearen historia Elgetan

Elgetan, ostera, Intxortako ibilbide gidatua antolatu dute azaroaren 3rako. Bertan, 36ko gerran Intxortaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. 10:00etan irtengo da bisita, Elgetako Interpretazio Zentrotik, eta izena aurrez eman beharko da, 943 79 64 63 zenbakian.

Azaroaren 6an izango da 2024ko artile bilketa, Oñatin

Urrutxuko ekarpen-gunean izango da aurtengo bilketa, eta aurrez abisatu eta ordaindu beharko da

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

Landaolak, Lurgintzak eta Abellurrek 2024ko artile bilketa egingo dute. Debagoiensean azaroaren 6an izango da, Urrutxuko ekarpen-gunean, Oñatin. Zati bat Foru Aldundiak ordainduko du eta gainontzekoa, berriz, artzainek. Orainketa ardi kopuruaren arabera izango da, ondoko taulan ikusten den moduan.

Jarraibideak

Interesdunek 696 43 36 02ra deitu behar dute, eta informazioa hau eman: entregaren eguna, ordua eta tokia; artzainaren izena, abizenak, helbidea eta nortasun agiri zenbakia, artaldea Aldundiaren kanpainako datuetan erregistratutako izenarekin bat datorrela bermatzeko, eta azken erroldako ardi kopurua. Eguna heldzean, artilea entrega-lekura esandako orduan eramango da;

zakuak norberak hustu beharko ditu. Ordainketaren egiaztagiria erakutsiko zaio arduradunari. Ordainketa ES50 3008 0152 6549 2039 5821 kontuan egin behar da, kontzeptuan izen-abizenak eta baserria jarrita.

Prezioak

Artaldea	Kostua (BEZa barne)
1-50	39,44 €
51-100	65,78 €
101-150	92,07 €
151-200	118,36 €
201-250	144,65 €
251-300	170,94 €
301-350	197,23 €
351-400	223,52 €
401-500	276,10 €
501-600	328,73 €
601-700	381,32 €
701<	434,67 €

Menopausia tailerrak 40 eta 65 urte arteko emakumeendako

Debagoieneko ESik antolatuta, lau saioko menopausia tailerrak emango dituzte Bergaran, Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin. Menopausiari buruzko informazioa eta laguntza nahi duten 40 urtetik 65 urte bitarteko emakumei bideratuta egongo dira tailerrak. Tailerretara norbere emagina ere joango da, eta helburuak izango dira, besteak

beste, menopausia garaia taldean igarotzea, informazioa jasotzea, esperientziak partekatzea eta baliabideak eskuratzea.

Arrasatekoak ostiraletan izango dira, azaroaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, 13:00etatik 15:00etara; Aretxabaletan ere ostiraletan egingo dituzte, 12:30etik 14:30era; Oñatikoak astelehenetan izango dira, azaroaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 13:00etatik 15:00etara; azkenik, Bergaran ostegunetan egingo dira, azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 08:30etik 10:30era.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ZELAKO
ETXEETAN BIZI
GARA?

'DATUETATIK TIRAKA' SAIOAN
URRIAREN 31N, EGUENA,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
SARETZEN: TOKIKOM-EK ETA EITB-EK
ELKARLANEAN EXOIZTUTAKO SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

Itsuen

Hausnarketa txiki bat: zenbat bider parez pare hitz egiten ari denari aditzen egon beharrean buruan daukazuna eta esan nahi duzuna bakarrik darabilzu buruan? Askotan, hizlaria eten eta zeurea esan arte edo, agian, esaldi bakoitzean "ajam, ajam" batekin aditzen zabiltzala esan nahian. Azken batean, esateari garrantzia eman eta entzuteari balioa kentzen dion arrapaladan bizi garen gizartearen errua izango da. Beti da gizartea, beti dira besteak.

Zer erakutsiko dit niri zahar honek, bada? Edo zer erakutsiko ote dit niri ume moko honek, bada? Bada momentu bat pertsonengan dena dakiela edo ezer gutxi erakutsi diezaioketela uste duen unea. Batzuek 16 urterekin, beste batzuek 24rekin eta beste batzuek bizitza osoan dute une motz edo luze hori.

Gazteak zaharrari mundu aldakor honen berri eta zaharrak gazteari mundu zahar honen berri emango dio. Baita zaharrak zaharrari eta gazteak gazteari ere. Zinez diot.

BETI IKASIKO DUZU ZERBAIT, HARTU ETA ZEURE EGIN, ZURE PERTSONALITATEA ERAIKI POLIKI-POLIKI

Zerbaitekin, hartu eta zeure egin, zure pertsonalitatea eraiki poliki-poliki, zure benetako izaera eta funtsa inoiz ahaztu gabe, noski.

Honekin esan nahi dudana da aditzeko modu asko daudela: begiekin, belarriekin, eskuekin, denekin.

Adinez aurrera zihoan batek –aretxabaleterra hura– beti zeukan zer kontu, gehienetan berria, irribarrea erraz ateratzen zizuna, urrun egon arren harengana erraz hurbiltzen zizuna. Joandakoan, beti "itsuen" esanez agurtzen zen. Denbora batez egon nintzen zer esan nahi zuen jakin gabe; ez nekien zergatik zioen. Behinola galdetu nion arte.

Pertsonak entzutera erakutsi didan horietariko bat joan da; ondo erakutsita, gainera.

Itsuen, Bittor, Itsuen.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Alkondarie

GARAZI KAMIO ANDUAGA

'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/VBUBH](https://labur.eus/vbubh)

Barre egin zuten kateatutako aulkietan bizilagun genituenek. Kritika negatiboaren arrazoia alkandora zuri bat izan zen, xingola handi bat zintzilik zuen atorra. Soinean zeramana Tom Lizarazu zen, Bulego taldearen abeslaria. Antza denez, ondoan suertatu zitzaizkigunek, modaren munduaren gailurrean egongo diren horiek, ez zuten azkoitiarrak soinean zeramana atsegin eta piura horiekin eszenatokira igotzeko ganora ere izan zuela

azpimarratu zuten. Eurek esan zuten, ez nik. Hara zer den kritikariaren bizitza: musika entzutera joan eta lanean egon behar izatea. Bost axola Lizarazuk kasu honetan nola kantatzen duen edo sortzen dituen emozioak zeintzuk diren, alkandora da garrantzitsua. Eszenatoki erraldoi haren azpian paratu zituzten aulkiek elkarri lotuta egotearen arrazoia alkandora hark sortu ahal izango zuen zalaparta izan zitekeela ere pentsatu nuen, halako krimenaren aurrean ustez modan aditu diren horiek edozer gauza egiteko gai direlako.

Jarraitu zuten aulkiek kateatuta eta emozioek

etengabeko gorabehera eta halako batean iritsi zen kontzertuaren programan zetorren azken kanta. Letra multzo honi izenburua ematen dion izen bera zuen abestiak, eta, noski, fama eman zion abeslaria eszenatokira igo zen. Dena izan zuen alde: parean zituen hamar mila lagunaren emozioek olatua sortu zuten, olatua marea bilakatu zen eta ondoren tsunami erraldoi bat. Espainiako estatuko errege emerituak bere garaian elefanteak ehizatzeagatik esan zituen barkamen hitz haien antza hartu zuen berrogeita hamar segundo eskaseko bideo hura tsunamiak erabat irentsi zuen. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketaziora
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitate
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administratzailea
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Bertsolaritzak behar ditu ikusgarritasuna eta lekua"

ANE ZUAZUBISKAR BERTSOLARIA ETA KAZETARIA

SARA LANZ AZPIAZU ARRASATE

Euskal Herriko Unibertsitateko NOR ikerketa taldeak euskarazko kulturgintzak hedabideetan duen presentzia aztertzeke ikerketa bat aurkeztu zuen urriaren 26an Azpeitian egin zen *Euskarazko kulturgintzaren transmisioa eta hedabideak* jardunaldian.

Bertan, Ane Zuazubiskar (1997, Arrasate) bertsolari eta kazetaria izan zen, eta hedabideek eta sormen munduak elkarren artean duten harremana aztertu zuen. Bere esperientzian oinarrituta, bertsolaritza eta kazetaritza alorretan dinamika eta desoreka ugari identifikatu ditu, eta garrantzitsua iruditzen zaio bertsolaritza arte diziplina gisa hedabideetan nola agertzen den eta komunikabideetan espazioa izateko beharra azpimarratzea.

Kazetari eta bertsolari gisa, baduzu bi arlo horiek sakon ezagutzeko aukera; nolakoak dira, zure ustez, kulturgintzak eta hedabideek elkarren artean dituzten dinamikak?

Bertsolaritzaren kasuan, oso nabarmena da batez ere txapelketetan soilik agertzen dela komunikabideetan. Bertsolaritzari eskainitako saio espezializatuak oso gutxi



Ane Zuazubiskar, bertsolaria eta kazetaria. SARA LANZ AZPIAZU

dira, eta, askotan, txapelketa bat gertatzen denean kronika huts gisa tratatzen gaituzte, kirol kronikak balira bezala. Gainera, gehienbat, euskarazko hedabideetan dugu presentzia; erdarazkoetan ia ez gara existitzen.

Diziplinen artean ere alde nabarmentzen da, ezta? Musikagileek, adibidez, presentzia handiagoa dute; zer egoera bizi du bertsolaritzak?

Bai; bertsolaritza kulturgintzaren espazio

murritu hori erakusteko adibide gisa erabil daiteke. Diziplina batzuen presentzia askoz handiagoa da; beste muturrean, dantza bezalako diziplinak ia guztiz ezezagunak dira. Bertsolaritzaren kasuan, espazioa mugatua da, eta txapelketetatik kanpo gutxitan dugu agertzeke aukera; gainera, bertsolaritza ia ez da arte diziplina moduan tratatzen, eta kronikara mugatzen da askotan.

Kultur adierazpide bakoitzaren presentzia handiagoa edo txikiagoa izatea esanguratsua da; nolako aldaketak gustatuko litzaizkizuke?

Orokorrean, bertsolaritzaren ikuspegia zabaldu beharra dagoela uste dut, txapelketetatik harago joanda. Bertsolariek ere badugu gure garapen artistikoa, diziplina bakoitzean bezala, eta ikuspuntu horretatik ere sakontzea beharrezkoa da, hausnarketa pertsonalak, errimen lanketa eta jorratzen ditugun gaiak ikusgarri egiteko. Iruditzen zait kazetaritza orokorrek bertsolaritzan oraindik ere esploratzeko bide asko duela.

Eta bertsolari moduan, zer gustatuko litzaizkizuke?

Txapelketetatik kanpo, oso gutxitan jasotzen ditugu elkarrizketa eskaerak, eta horrek bertsolaritza arte diziplina gisa ulertzea oztokatzen du. Bertsolari moduan, interesgarria irudituko litzaidake kazetariak gure diskurtso eta sormen prozesuak ere jorratzea: zein gai landu nahi ditugun, zer errima edo doinu motatan sakondu nahi dugun... Izan ere, bertsolarion artean lanketa artistiko bat dago, eta uste dut horrek ere merezi duela hedabideetan leku bat.

Kazetari gisa, nola ikusten duzu Goienak kulturaren esparruan egiten duen lana?

Tokiko komunikabideek, niretzat gertukoena Goienak delarik, erreferentzialtasun handia dute bertako kulturgintzan. Gazteen artean

eta euskara ardatz duten eragileentzat hor dago Goiena. Zorionez, bailarako bertsolariek ikusgarritasun hori sumatzen dugu. Beste adibide batzuetan baino errazago dugu txapelketetan zein auzoetako jaietan toki bat izatea, eta horri esker gure kultur adierazpideak bizirik dirau. Beti dago zer hobetu, baina uste dut zentzu horretan badaukagula zortea. **Azkenik, elkarlanari dagokionez, zenbateraino da garrantzitsua kultur eragileen arteko elkarlana?**

Elkarlana ezinbestekoa da, bai euskararen etorkizunerako, bai kulturaren zabalkunderako. Gazte jendea gero eta sormen handiagoz ari da lanean eta kultura adierazpide anitz garatzen, baina hori ondo ikusaraztea beharrezkoa da euskararen eta euskal kulturaren aniztasuna sustatzeko. Badugu zer egina hedabideetan oraindik, etxekolanak daude egiteko.

"TXAPELKETATIK KANPO GUTXITAN ELKARRIZKETATZEN DIRA HEDABIDEETAN BERTSOLARIAK"

"INDARRAK JARRI BEHAR DITUGU EUSKARAZKO KULTURAREN ZABALKUNDEAN"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI





Mondravemberreko kideek iaz Herriko Plazan ateratako argazkia. IIMANOL SORIANO

Goi mailako artistak, Mondravemberrekin bat

Hamargarren urteurrena baliatuta, emanaldi berezia prestatu du Mondravemberrek azaroaren 16rako; Amaia antzokian egingo dute, 19:00etan hasita, eta han izango dira, besteak beste, Neomak, Etxepe, Sertx, Mikel Urdangarin eta Txorbela Otxotea

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Prostatoko minbiziaren aurka Arrasateko mugimendua, gerora Mondravember izena hartu zuenak, hamargarren urteurrena du aurten. "Argi geratu dadila Mondravember gure zigilua dela, baina mugimendua beti izango da Mover", azpimarratu du taldeko kide Iban Arroiabek. "Gainera, irabazi asmorik gabeko elkarte gisa erregistratu gara aurten, eta horrek asko laguntzen digu eskaerak eta tramiteak egitera koan", gaineratu du.

Ohi moduan, azaroa baliatuko dute haien aldarrikapenak eta ekintzak egiteko. Hala, asteburu honetan, Mondrarekin elkarlanean, otarre bat zozketatuko dute eta talde-argazkia aterako dute arrasatearrek Añorgaren aurka jokatu duten partiduan, Mojategin. Horrez gain, azken urteetan egin izan duten mus txapelketa ez dute egingo aurten, "ez zuelako arrakasta handirik", baina herriko establezimenduek horretarako eman dizkieten sariak aprobetxatu egingo dituzte Mojategiko zozketan saritzeko.

Azaroaren 9an, Debagoieneko Mover bat taldeen topaketa egingo dute Elorregin, Mondravemberrek antolatuta. Oinez edota bizikletaz joateko deialdia egin dute, eta, ondoren, parrilla piztuko dute, askotariko jakiak prestatu eta elkarrekin dastatzeko. "Horrekin batera, beste-

lako minbiziak ikertzeko lanean diharduten hainbat talderi ere zabaldu diegu deialdia. Gauza polita irtengo dela uste dugu".

Etzeko zein kanpoko artistak

Azaroaren 16an egingo dute emanaldi nagusia, Amaia antzokian, 19:00etan hasita, eta sarrerak 15 euro balio du. "Ordu eta erdiko emanaldia egitea da asmoa; asko jota, bi ordukoa. Hasieratik helburua izan da musikari ezagunak ekartzea, baina baita herriko eragileak ere, eta lortu dugula esango nuke". Hala, Gorka Etxabek aurkeztuko du eta honako hauek izango dira parte hartuko dutenak: Ttakun Txalaparta Elkarteak, herriko dantzariak eta txistulariak; bertsolariak -Zigor Enbeita, Asier Iriondo, Manex Agirre eta Xabi Igoa-; Txorbela Otxotea, Sertx musikaria, Garaguneko kideak, Neomak, Etxepe, Arkaitz Carracedo eta Amaia Zabala ikerlariak eta Mikel Urdangarin. Goiena Komunikazio Taldeak osorik grabatuko du emanaldia.

Talde bakoitzak hamar bat minutuko saiotoxa egingo du eta, tartean, zozketa ere egingo

EKITALDI BEREZIRAKO SARRERAK SALGAI DAUDE DAGOENEO, HAMABOST EUROTAN, 'ARRASATE.EUS'-EN

dute. Horretarako, sarreran eskuratutako tiketa erabiliko dute.

Azaroaren 23an, urtero moduan, talde-argazkia eta bazkaria egingo dute Mondravemberreko kideek. Aurten, gainera, berrikuntza bat izango dute egun horretarako; izan ere, bibote txapelketa egingo dute talde-argazkia atera aurretik, 12:30ean, Herriko Plazan. Hala, epaimahai bat egongo da eta herritarrek biboteak erakutsiko dizkiete epaimahaikideei, eta hainbat sari banatuko dituzte.

Materiala salgai egubakoitzetan

Aurten, Aretxabaleko Lanbide Eskolak ordaindu du Garaguneko eskulanak egiteko materiala. Izan ere, 50 koaderno egin dituzte, eta horiek ere salgai jarriko dituzte, ikerretarako dirua batzeko asmoz. Horrekin batera, Mondravemberreko kamisetak, bisera eta lepokoak ere salduko dituzte, azaroko egubakoitz guztietan, 19:00etan, Seber Altube plazan.

Halaber, SUDC elkarteko kide diren elkarte guztietan bibotearen irudia jarriko dute, mugimenduari atxikimendua adierazteko, eta Ibai-arteko establezimenduek ere jarriko dituzte.

Azkenik, babesleei "eskerrik beroenak" eman dizkiete Mondravemberreko kideek: "Laboral Kutxak, esaterako, 4.000 euro eman dizkigu aurten".

Arrasate gune tentsionatu izendatzeko lanean ari da Udala

Horretarako baldintzak betetzen dituela uste du Udala Gobernuak, eta txosten teknikoak idazten hasi da jada

E.A.B. ARRASATE

Arrasate bizitegi-merkatuko Tentsio Handiko Ereku bezala izendatze lanak abiarazi ditu Udalak. Horretarako, "ezinbestekoa" da hiru dokumentu nagusi landu eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztea, Udala Gobernuaren esanetan, eta dagoeneko dokumentazio hori osatzeko lanetan hasi da. "Etxebizitzaren prezioa etengabe igo da azken urteetan. Gaur-gaurkoz, Arrasaten etxe bat alokatu edo erostea ez dago edonoren esku. Etxebizitza eskubide bat da, eta gaur egungo espekulazioari muga jarri beharra diogu gizarte bezala. Uste dugu Arrasate gune tentsionatua izendatzeko baldintzak betetzen dituela, eta lan horretan hasiak gara dagoeneko", adierazi du Maider Morras alkateak.

Hiru dokumentazio Jaurlaritzari

Hiru dokumentu nagusi sortuko ditu Udalak: etxebizitzari buruzko diagnosi bat, tentsio-eremu gisa izendatutako eremuan hautemandako desorekak zuzentzeko inplementatuko diren neurri zehatzen ekintza plan bat eta memoria bat, non arrazoituko den ez

dagoela biztanleen beharrak asetzeko adina etxebizitza.

Lehenak herriko etxebizitzaren errealitate sozioekonomikoa aztertuko du: "Besteak beste, joera demografikoak eta emantzipazio mailak aztertuko ditu, analisi sozioekonomikoa, etxebizitza beharrak eta eskariak, etxebizitza parkearen bilakaera, etxebizitzaren erosketak eta alokairu merkatua eta etxebizitza politiken intzidentzia".

Memorian, berriz, "tentsio-eremu izendatzeko irizpideen estimazioa" egingo duela dio Udala Gobernuak, "jakiteko legeak exijitzen dituen baldintzak betetzen dituen". Azkenik, Arrasateko bizitegi-merkatuan eragiteko hiru urterako ekintza-plana egingo du.

Etxebizitza hutsen analisia

Era berean, herriko etxebizitza hutsen analisia egiten ari direla dio alkateak: "Azken analisia 2012koa da, eta, orduetik, egoera oso bestelakoa da. Analisi hori eguneratzea ezinbesteko ikusten dugu". Horretarako, behin-behinekoko kontratazioa egin du Udala, eta dagoeneko langile bat lanean ari da horretan.

Autoentzako aparkaleku berriak sortuko ditu Udalak Zalduspen

Behin-behinekoak izango dira eta ospitaleko obrak hastearekin batera zabaltea da asmoa, azaroaren 4an

E.A.B. ARRASATE

Autoentzako behin-behineko aparkaleku berriak sortuko ditu Udalak Zalduspen datorren astetik aurrera, "ospitaleko obrek eragindako aparkaleku galera arintzeko". Espazio berri hori Oltan eraikina zegoen lekuan atonduko dute. "2023ko maiatzean bota zuten eraikina, eta orduetik orubea hutsik dago. Espazioa txukuntzeko lanak hasiko dituzte orain, eta espero dugu datozen asteetan erabilgarri egotea", nabarmendu dute udal ordezkariak.

Ospitale berrirako obrak datorren astelehenean hasteko asmoa dutela adierazi dute Amenabar enpresa eraikitzaileko arduradunek. Lehen lanak ingurunea atontzeko izango dira; hau da, "lan-eremuak hesitu eta langileen etxolak jarri".

Bi urte eta erdiko lanak izango dira eta hainbat egokitze lan egin beharko dituzte; esaterako, eraikin berria egiteko, egungo errepedea okupatu egin beharko dute; hortaz, errepedea berregokitu egin beharko dute sartu-irteerak bermatzeko.

Lau hitzaldi, Arrasateko iraganaz gehiago jakiteko

Azaroa iristearekin batera, prest da Arrasate Zientzia Elkartearen Iragana Astintzen hitzaldi zikloa ere; hamabigarren edizioa izango da aurtengoa, eta helburua, betikoa, Arrasateko iragana ezagutaraztea; datorren eguaztenean egingo dute lehen saioa

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasate Zientzia Elkarteak XII. Iragana Astintzen hitzaldi zikloa aurkeztu du asteon. Urtero moduan, helburua Arrasateko iraganaren berri ematea dela azaldu du elkarteko kide Jabier Bengoak, "ahalik eta hitzaldi ezberdinenekin". Aurten hamabigarren zikloa da eta lau hitzaldi izango dira. Horietatik hiru hizlari emakumezkoak dira, eta horri balioa eman dio Bengoak: "Emakumezko hiru hizlari izateaz gain, emakumeen esperientzietan oinarritutako kontakizunak egingo dituzte, eta hori ere nabarmenduko nuke".

Lehen hitzaldia Maria Rosa Aierbek egingo du, emakumeak eta baserriak ardatz hartuta. "Oso pozik gaude Rosa ekarri dugulako, azken urteetan haren atzetik ibili gara eta ez dugu lortu. Prestigio handiko historialaria da eta Gipuzkoako eta Arrasateko historiaz inork badaki, Rosak daki", dio Bengoak.

Bigarren hitzaldiari erreparatuta, zera dio elkarteko kideak: "Janire Castrillok emakumei buruz lan asko jorratu izan ditu eta Erdi Aroko kontuak ekarriko dizkigu gurera".

Azaroaren 19an egingo dute hirugarren hitzaldia, gainontze-koak ez bezala, martitzen batean, eta Nere Jone Intxaustegiren hitzaldiaren gaiak ere interesa piztuko duela dio Bengoak, XVII. eta XIV. mendeetako bikote harremanak oinarri hartuta.

Laugarren eta azken hitzaldian, Imanol Vitoresek kontatuko du olagizonak, merkataria eta gobernariak nola ibiltzen ziren Erdi Aroan siderurgia-sektorearen antolaketan, Arrasateko esperientzian oinarrituta.

Lau hitzaldiak, "erakargarriak" Bengoak azpimarratu du pandemia iritsi zenera arte "sekulako arrakasta" izan ohi zuela Iragana Astintzen zikloak. "Pan-



Arrasate Zientzia Elkarteko kideak, Portaloian, kartelarekin. SARA LANZ AZPIAZU

demiaren ostean, ohiturak aldatu egin dira. Hala ere, jendea etortzen da gure saioetara eta pozik gaude izaten duten erantzunarekin". Aurtengo hitzaldiak ere "erakargarriak" direla gaineratu du: "Uste dugu herritarrak

animatuko direla Arrasateko iragana ezagutzera, gure amonen eta birramonen iragana ezagutzera, hain zuzen. Beraz, herritarrei dei egiten diegu etortzeko". Saio guztiak Kulturateko areto nagusian egingo dituzte.

Lau hitzaldiz osatutako zikloa da

Azaroak 6, eguaztena

- **19:00** *La mujer y su derecho al caserío en la historia guipuzcoana. Siglos (XVI-XIX)* hitzaldia, Maria Rosa Aierbe historialariaren eskutik, gaztelaniaz.

Azaroak 13, eguaztena

- **19:00** *Erdi aroko euskal lurretako emakumeak: Historia ikasteko/kontatzeko ikuspegi anitzak* hitzaldia, Janire Castrillo historialariaren eskutik, euskaraz.

Azaroak 19, martitzena

- **19:00** *Compuesta y sin novio. Mujer y ruptura de promesas de matrimonio en Mondragón. Siglos (XVII-XIX)* hitzaldia, Nere Jone Intxaustegi historialariaren eskutik, gaztelaniaz.

Azaroak 27, eguaztena

- **19:00** *Olagizonak, merkataria eta gobernariak siderurgia-sektorearen antolaketan Erdi Aroan. (XIII-XVI)* Arrasateko adibidea hitzaldia, Imanol Vitores historialariaren eskutik, euskaraz.

OHARRA: SAIO GUZTIAK KULTURATEKO ARETO NAGUSIAN IZANGO DIRA.

Txatxilipurdiren eskutik, Arimen Biltzarra egingo dute

Txatxilipurdik antolatuta, Arimen Biltzarra egingo dute gaur, eguena, 18:00etan hasita, Arrasateko kaleak girotzeko. "Biteriko plazan hasi eta Monterronera ibilbide bat egingo dugu Ilargixorekin eta bere lagun kukumarroekin (Ikus 2. orria). 00:00etan, Ttak taldearen eskutik, DJ Putzu eta DJ Galtzagorri egingo dira gaztetxean.

'Ondo lo egitea' hitzaldia azaroaren 7an Kulturaten

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Ondo lo egitea* hitzaldia egingo du Joaquin Duran doktoarek urriaren 7an, eguena, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean hasita. Pneumologoa da Duran, Txagorritxu ospitalean Loaren Unitate sortu zuena, eta hainbat gai izango ditu hizpide: lo ondo egitearen garrantzia, insomnioak, apneak eta abar.

Herribus zerbitzu berezia egongo da gaur eta bihar

Gaur goizean, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan egingo du geldialdia Gorostizan, San Andres, Zigarrola eta Makatzenarako noranzkoan, eta arratsaldean, 15:00etan, 16:00etan, 17:00etan eta 20:00etan -itzulera, maiztasun berarekin, 10:30etik 18:30era-. Bihar, ordu erdian behin egingo du herribusak hilerrirako joan-etorria, 19:00ak arte.

Jostailuen bilketa solidarioa egiten ari da IMME elkarte

Emakume musulmanak integraztea helburu duen IMME elkarteak bigarren eskuko jostailuak biltzen ari da, *Jostailu bat, irribarre bat* izeneko kanpainaren bitartez. Hala, elkarrekin Txetako gozoki-denda ondoan duen lokalean entregatu daitezke jostailuak, astelehen eta egubakoitzetan, 10:00etatik 13:30era, azaroaren 29ra arte.

errigora **agerreko** **aek** **Sortzen**

Eman bultzada, indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

urriak 24 - azaroak 14

errigora.eus

Saskien balioaren %25 Nafarrea eraldia eta hegoaldeko (Agerreko) euskaragintzera bideratuko da

Saski beltza 55€ Saski berdea 65€ Saski gorria 75€ Karta-jekoa +5€

Trialsinean hazten segi gura du Gorka Merinok

Oztopo Trialsin Klubeko pilotua da arrasatearra eta mundu mailako txapelketetan ari da lehiatzen; 15 urte bete berri dituenez, elite mailako Munduko Kopan parte hartu ahal izango du datorren urtean, eta hori da, hain zuzen, haren helburu nagusietako bat

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 15 urte ditu Gorka Merino trialsineko pilotuak (Arrasate, 2009). 2017an hasi zen trialsina praktikatzeko, Oztopo taldean. "Bizikletekin saltoak egitea gustatu izan zait betidanik. Lagun baten bidez jakin nuen kirol honi buruz, eta Oztopo taldean hasi nintzen", azaldu du.

2020an Espainiako txapelketak lehiatzen hasi zen, euskal selekzioarekin, eta azken hiru urteetan munduko txapelketetan lehiatu da, Espainiako selekzioarekin.

Kadete mailako lehen urtean aritu da aurten eta denboraldia "nahiko ondo" joan dela dio. "Hala ere, Alemanian jokatuako munduko txapelketan ez nuen egun ona eduki", azaldu du –denboraldia irailean amaitu zen–. Datorren urtera begira, elite mailako Munduko Kopako hainbat txapelketatan parte hartzea da arrasatearraren helburua. "Hemendik gertuen dauden pare bat txapelketatara joango naiz. Egia da ni baino pilotu nagusiagoekin lehiatuko naizela, eta horrek errespetu apur bat ematen dit, baina dudan onena ematen saiatuko naiz eta hazten jarraitzeko aukera emango dit".

Jose Merinok, Gorkaren aitak, gaineratu du Munduko Kopako txapelketetan UCI puntuak eskuratzen dituztela pilotuek. "Zenbat eta puntu gehiago eduki, orduan eta sailkapen fase gutxiago jokatzen dituzte; hau da, zuzenean finalurrekoetan hasten dira, adibidez".

Horrekin batera, Vicen (Katalunia) jokatuako duten Munduko Txapelketarako sailkatzea ere bada Merinoren helburua.

Bidaia luzeak eta garestiak

Pilotu gazteak azaldu du munduan zehar lehiatuta bidaia "nekagarriak" izaten direla, batzuetan "oso luzeak", baina esperientzia aberasgarria dela



Gorka Merino, oztopo bat gainditzen, txapelketa batean. CRYSTELLE

JOSE MERINO (AITA): "MUNDU MAILAN LEHIATZEA GARESTIA DA; BABESLEAK BEHAR DITUGU"

dio. "Oraindik gaztea naiz, baina kirol honetan hobetzen jarraitu gura dut, esperientzia irabazten, eta txapelketa horiek ematen didate horretarako aukera", nabarmendu du.

Aita semearekin aritzen da batetik bestera, txapelketaz txapelketa, eta bidaia horien kostua handia dela dio, bai denboran eta baita dirutan ere: "Txapelketa asko eguaztenetik domekara artekoak izaten dira eta, bidaiaz gain, hango hotela ere ordaindu behar izaten dugu. Izan ere, selekzioak ez du ezer

ordaintzen; kamiseta soil bat baino ez diete ematen".

Urteko aurrekontua: 9.000 euro Hori dela eta, babesle bila dihardute, "Gorkak trialsinean hazten jarraitu dezan", aitak azaldu duenez. "Oso maila onean ari da, baina diru asko gastatzen dugu bidaietan, eta horri lizentziak, aseguruak eta bizikletaren mantentzea gehitu behar zaizkio. 2025erako egindako aurrekontua, adibidez, 9.000 eurokoa da. Beraz, bailarako enpresetako ateak joko ditugu, ea babesten gaituzten", adierazi du. "Modu horretan, enpresek ikusgarritasuna eta abantaila fiskalak eskuratu ditzakete, eta guk asko eskertuko genuke", gaineratu du. "Horrez gain, Arrasateko Udalean ere galdetuko dugu, ea Kirol Saitetik partida bat bideratu dezaketene gu laguntzeko".



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Zalduspe bai ala ez?

Azkenaldian gai bakarra dago guztion ahotan: autobus geltokia, Zalduspen edo erdigunean. Baina nork pentsatu du herriaren erdialdean autobus geltoki batek zer ekar dezakeen? Kutsadura akustikoa, ingurumenaren kutsadura, zarata, itxaronaldiak...

Gaur egun, Zalduspetik 250 autobus inguru pasatzen dira, hiri artekoak, urbanoak, lineakoak eta abar. Baina geltokia erdigunean jarriko bagenu, ez lirakeke egunero 250 autobus izango, baizik eta 500 autobus! Bikoitza izango lirakeke!

Prest gaude trafiko hori guztia, kutsadura akustikoa eta ingurumen kutsadura hori guztia jasateko?

Ezetz uste dut, denok hiri garbi eta berde baten alde egiten dugulako, Mugikortasun Planean proposatzen den bezala, geltokia herriaren erdigunean jartzeak plan osoa hondatuko duelako, planaren filosofia hautsiz.

Imajinatu Zalduspeko geltoki bat, handia, zabala, kafetegi zerbitzuarekin, bainugelekin eta bezeroarentzako arretarekin, beste hiri batzuetan bezala. Egin dezagun Arrasate kutsadurarik gabeko hiri bat, irisgarritasun ona duena.

Kirol elkarteei zuzendutako trebakuntza saioa astelehenean

Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute, 18:30etik 20:30era, eta gaur da izena emateko azken eguna

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udala, Arrasateko Herri Eskola, Arizmendi Ikastola, Leintz Eskola Kirola, Txaitxilipurdi eta San Juan de Dios Ospitalea elkarlanean dabilta EKKO (Eskola-Komunitatea-Kirola-Osasuna) esku-hartze komunitarioko proiektua garatzen. Helburuetako bat da komunitatea babes faktore izatea osasunaren sustapenean, eta uste dute osasunaren sustapena eta prebentzioa hezkuntza formaletik haratago landu behar direla. Hori dela eta, kirol elkarteetako

koordinatzaile eta entrenatzaileei zuzenduta, trebakuntza saio bat antolatu du Udalak, osasunaren, prebentzioaren eta kirolaren inguruan. "Helburua da gazteekin dauden entrenatzaile eta begiraleek eman ahal izatea oinarrizko informazioa eta aholkularitza ongizate emozionalaren inguruan, gazteek balio eta portaera-jarraitibide egokiak eskura ditzaten laguntzeko". Ainhoa Lauzirika eta Ixone Akarregi izango dira gidariak.

Gaur da izena emateko azken eguna, Arrasate.eus-en.

OHARRAK

Sexualitateari buruzko hitzaldia hilaren 5ean

Natalia Urteagak eta Jaione Fernandez de Jauregik hitzaldia egingo dute martitzenean Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Santamasetan postuak jartzeko izen-ematea

Herriko hainbat txokotan postuak jartzeko eskaerak udal webgunean egin behar dira, azaroaren 15a baino lehen –Seber Altubeko postuetarako, azaroaren 22a baino lehen–.

1951koen kintada azaroaren 9an

Bittori erretegiaren elkartuko dira, 12:00etan, eta Tartufo jatetxean bazkalduko dute, autobusez joanda. Parte hartzeko, 80 euroko ordainketa egin behar da: ES84 3035 0001 5200 1016 4916.

Azaroan, eguen gau beroak gaztetxean

Kooltur Ekintzak datorren hileko egitaraua eman du aditzera. La Inquisicion, Old Time Spooks, Bele eta Eh Mertxe taldeek Kataluniako punkaz, Gasteizko hillbilly-punkaz, Donostiako pop-soulaz eta Arabako Errioxako rock-and-rollaz bustiko dute gaztetxea

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Kalitate handiko zuzenekoek hartuko dute, beste hilabete batez, Arrasateko gaztetxecko oholtza, ostegunero, 22:00etan, Kooltur Ekintza eragileak antolatuta. Hilaren 7an, Bartzelonako punkaren erreferenteetakoak diren La Inquisicionek girotuko du gaua. Hirugarren lan luzea aurkeztera etorriko dira: *Mundo invisible*. "Hitz eta doinu gogor, indartsu, ilun eta biziak plazaratzeagatik dira ezagunak, eta haien oihartzuna Europako eta Hego Amerikako herrialdeetaraino heldu da", adierazi du antolatzaile taldeko Iker Barandiaranek.

Azaroako menuaren bigarren platera ere punkaren uhinetan mugitzen da, baina doinu akustikoagoetan. Old Time Spooks duela pare bat urte sortu zen, Gasteizen, eta Ipar Amerikako Appalache mendietako musika-moldeetan oinarritzen da haren proposamena, hala nola hango hillbilly estiloan eta tresna folklorikoetan.

Beleren txanda izango da hilaren 21ean. Liher taldeko Lide Hernando abeslariaren talde berria da Bele. Rocka apur bat alboratuta, soulean, musika beltzean eta bestelako estilo urbanoagoetan murgiltzen da; betiere, haren ahots ikaragarria lagun.

Egitaraua Oiongo Eh Mertxe! rock-and-roll talde "zitalak" boroilduko du. "Eszenatokiaren gainean eta beste kontzertu batzuetako lehen lerroetan sinpatia transmititzen duen banda da, dantzatzeko gogoa ematen duen estribillo melodikoekin", aipatu du.

Gaur, Eneritz Furiyak

Koolturzaleek badakite gaur ere hitzordua dutela Arrasateko gaztetxean, 22:00etan; urriko azken kontzertua Eneritz Furiyakek emango du, folkarekin eta soinu akustiko zein elektronikoeekin esperimentatzeari mugak jartzen ez dizkion bakarlari irundarrak.

Jolasaren bidez beldurra lantzen duen antzezlanaren zapatuan

Azaroaren 2an, 17:00etan, *Mamuak ezagutzera joan zen umea* izeneko obra familiarra taularatuko du Anodino konpainiak Amaia antzokian. Beldurra da antzezlanaren gai nagusia; sortzaileen hitzetan, modu berezian kontatuta: "Txikitari garatu eta helduak garenean mantentzen diren beldurrei buruz hitz egin nahi dugu. Beldur horiek gure

inkontzientean itsatsita eta gure eguneroko bizitza egiterakoan lokarturik daude, baina, usain, irudi edo, kasu honetan bezala, ukitu batek esnatu ditzake".

Jolasetik eta umoretik garatuko dute kontakizuna, mundu erreala eta mundu imaginarioa uztartuta. Zuzeneko musika izango da bi munduen arteko lotura. Leire Orbe eta Maite Fombellida aktoreek gorpuztuko dituzte pertsonaia nagusiak -kutzak antolatzen jarduten duten langileak-.

Zeramika-ontziak sortzeko ikastaroa Loixereren eskutik

Azaroaren 12tik abenduaren 12ra, hastapen eta trebatze mailako ikastaroak antolatu ditu Loixe zeramika taldeak, teknikak eta akaberak lantzeko. Bi orduko saioak izango dira, astearte eta ostegunetan, Kulturolako egoitzan. Hiru orduko egongo dira aukeran: 10:00etan, 16:00etan eta 19:00etan. Izen-ematea, 685 79 61 27 zenbakian.



Buztinari forma ematen. GOIENA



ZURE LASAITASUNA GAUR HASIKO DA, EGIN ZAITEZ BAZKIDE

www.sanfeliipe.eus • Tel. 943 77 30 22

Lehen urratsak energia komunitatea sortzeko

Energia komunitatea sortzeko hamaika laguneko taldea eratu da Aramaion, eta, komunitatea sortzeko bide horretan, atzo egin zuten lehenengo bilera; prozesuari buruzko azalpenak eman zituzten D2030eko Aritz Ameztegik eta Goienerreko Oier Etxebarriak

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Aramaion energia komunitatea sortzeko asmoa duen hamaika laguneko taldea batu da eta energia komunitatea eratzeko prozesu horretan lehenengo bilera egin zuten atzo arratsaldean udal-etxe osoko bilkuren aretoan. Hizlari lanetan aritu ziren Debagoiena 2030eko energia eremuko arduradun Aritz Ameztegi eta Goienerreko Oier Etxebarria.

Ameztegiaren esanetan, prozesua "epe motzean" hasiko da, eta prozesu horren aurkezpena izan zen atzoko saioa: "Aurreko bileran egiteko asmoa genuen, baina iruditu zitzaigun hobe zela herri guztira zabaltzea, eta halaxe egin dugu. Testuingurua kontatu, Europatik datozen zuzentarauen berri eman eta Espainiako Estatuan zer ari den mugitzen, besteak beste". Etxebarriak gehitu du energia komunitateak zer diren azaltzeaz gain, sakondu eta hastera doan prozesua irudikatzen laguntzea izan dela bileraren xedea.

Ecodeseko datuak ere eman ditu Ameztegik: "Espainian sortu ziren energia komunitateetatik herena EAEn eta Nafarroan sortu dira. Orduan, mugimendu bat badago. Energia komunitatea sortzeko urratsak egiterakoan ez dira bakarrik egongo. Eskualdeko sarearen laguntza izango dute, dagoeneko bi urte daromatzena".

Herritar nahiz eragileendako

Edozein herritarrek eta eragileak hartu dezake parte energia komunitatean. Honela zehaztu du Aramaioko Udaleko lehen sektoreko gaietako dinamizatzaile Aitor Larrañagak: "Norbanakoek hartu dezakete parte, herriko elkarteek, enpresa batek, komertzio batek, taberna batek... Eragile publikoek ere bai. Energia komunitateak sortzerakoan interesgarria da herrian dauden profilak jasotzea herri horren



Apirillean egin zuen energia komunitateei buruzko hitzaldia Aritz Ameztegik. I.A.A.

KOMUNITATEA SORTZEA HAMAR BAT BILERATAKO PROZESUA IZANGO DELA AURREIKUSTEN DUTE

profil soziosemantikoa jasota egon dadin. Komunitate energetikoan jende plurala batzean pentsatu behar da".

Hori berretsi egin du Goienerreko Etxebarriak: "Edonork hartu dezake parte. Zenbat eta aniztasun handiagoa egon, hobeto". Jende kopuruari dagokionez, Etxebarriak azaldu du Aramaio moduko herri batean dozena bat lagunekin nahikoa dela: "Baina, agian, hasieran elkartzeko direnak eta bukaeran egongo direnak ez dira berberak izango. Bidean batzuk joan egingo dira, eta beste batzuk etorri". Hortaz, aramaioarrak eta herriko eragileak parte hartzerako animatu ditu: "Oso prozesu polita da. Nik ditudan esperientziatik ikusi dut lanerako gogoia eduki behar dela, baina prozesua polita da. Proiektu komunitario parte-hartzailea da".

Maiatzerako sortzea helburu

Larrañagak, Ameztegik eta Etxebarriak adierazi dute parte-hartzaileen konpromisoa izango dela datozen hilabeteetan antolatuko diren bileretara joatea eta herritarrak izango direla energia komunitatearen noranzkoari buruzko erabakiak hartuko dituztenak, eta Debagoiena 2030 eta Goiener izango dituzte bidelagun. Zortzi-hamar bilera egitea aurreikusten dute, taldea ahaldundu eta komunitatearen "lema" hartzeko.

"Prozesu horretan eurek erabakiko dute zenbatean behin egin nahi dituzten bilerak. Bilera horietan ez da izango: Goiener dator, hitzaldia egingo du, eta listo. Ez. Bilera horietan egin behar dena da hara batzen den taldea talde sena duen komunitate bihurtu. Bide batez, bilera horietan aprobetxatuko da gai ezberdinei buruz formakuntza emateko. Printzipioz, maiatz aurretik eratu beharko genuke kooperatiba edo elkarte, dena delakoa. Hamabostean behin elkartzeko bagara, denbora soberan dago, baina lanketak egin behar dira eta horrek denbora behar du.", dio Etxebarriak.

'Haziara in the Mapping' jaialdia ospatuko dute azaroan

2 eta 6 urte artekoendako hiru emanaldi egingo dituzte Aramaion, eta parte hartzeko izena eman behar da

I.A.A. ARAMAIO

Laugarren urtez jarraian, Europa Creativa Mapping proiektuaren barruan sortutako *Haziara in the Mapping* jaialdia hartuko dute Gasteizetik eta Arabako bederatzi udalerrik azaroaren 2tik abenduaren 27ra bitartean, eta horietako bat izango da Aramaio. Hain zuzen ere, 2 eta 6 urte artekoendako hiru ekintza antolatu dituzte eta jarduera guztiak kultur etxean izango dira. Jaialdi horrek arteak familian ikusi eta esperimentatzeko aukera ematen du, eta sormen pertsonala bultzatu.

Hiru emanaldi

Lorategian ikuskizunarekin iritsiko da *Haziara in the Mapping* Aramaiora azaroaren 3an. 17:00etan izango da ikuskizuna eta kultur etxeko oholtzan osatuko duten lorategian antzerkia,

bideoa, itzalak eta marrazkiak nahastuko dituzte, ikusleei jolas-ikusmen eta ikusmen aktibo biziaren proposatzeko.

Azaroaren 6an, berriz, 18:00etan, *Tomasaren etxea* instalazioaren txanda izango da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "handiendako eta txikiendako jolas-espazioa da", eta parte-hartzaileek elkarrekin entzungo dute elkarbizitza nahiz eskuzabaltasunaz hitz egiten duen ipuina. Plazak mutatuak dira.

Azaroaren 24an, 17:00etan, *Minimach* animazioaz gozatu ahal izango da. *Stop motion* animazioa, 3D marrazki biziak eta film labur irudizatuak ikusi ahal izango dira; denak jaialdiko lehiaketa atalekoak.

Ekintzetan parte hartzeko izena eman behar da, itxasokultura@gorbeialdea.eus helbide elektronikora idatzita.

Ordenantza fiskalen aldaketa gaurko osoko bilkuran

Gaur izango da urriko osoko bilkura, 18:00etan. Bost puntu daude jasota gai-zerrendan, eta horietako bat da 2025eko zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantza fiskalen aldaketa onartzea. Besteak dira aurreko bilkurako akta onartzea, dekretuen berri ematea, kredituen judizioz kanpoko aitortpena eta galdera eta eskaerak.

Martxan da Gorbeialdeko orri-markagailu lehiaketa

Beste urte batez, Gorbeialdeko Kuadrillak orri-markagailu lehiaketa jarri du martxan, eta, oinarrietan jasota dagoen bezala, marrazkia, leloa edo testuaren gaia norberak aukeratu dezake eta lanak folio edo kartulinan aurkeztu behar dira. Partaide bakoitzak gehienez ere hiru lan aurkeztu ditzake. Oinarriak Udaren webgunean daude jasota.

Azaroaren 6an Aramaioko Lagunkoien irteera

Aramaioko Lagunkoia taldeak erretiratuentzako ibilaldia antolatu du azaroaren 6rako. Goizeko hamarretan elkartuko dira, Alaiak Jubilatuen Elkarte aurrean; Ibarra, Arraga, Arrikoti, Arriola, Arexola eta Uribarri zeharkatuko dituzte, eta berriro ere Ibarrara itzuliko dira. Itzuleran, 12:00 aldera, hamarretakoa egingo dute.

Azaroaren 9an ospatuko dute Aramaioko II. Kintada

13:00ean, triki-poteoa egingo dute, Anboto tabernan hasita, eta 15:00etan, kantu bazkaria. 17:00etan, bingoa izango da, eta, ondoren, Gantzagara igoera. Bazkariak 12 euro balio du eta azaroaren 5a da izena emateko azken eguna. Jaiotza-urteko urte txinatarreko animaliaz moztarrotuta joan beharko da. Herri-tar guztiei egin diete gonbita.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11
43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Gipuzkoa plaza: eremu batean ziburuak eta bestean autoen aparkalekua. ION ALBIZU

Gipuzkoa plaza berritzea helburu, gune bat estalita

Portasol auzoko plaza eraberritzea da Udal Gobernuaren asmoa, espazio estali bat eta zibururik gabeko beste bat sortuta. Proiektua idazteko ardura eman dio Behark arkitekto taldeari eta lanen inbertsioa 400.000 eurotik gorakoa izango da

Mirari Altube ARETXABALETA

Gipuzkoa plazan gune estali bat sortzeko eta plazaren beraren "urbanizazioa hobetzeko" asmoarekin proiektu bat garatu gura du Udal Gobernuak. Horren ardura Behark arkitekto taldeari eman dio eta lanak 2025ean hasi gura ditu.

Bi eremu: ziburuekin eta gabe

Udaleko Gobernu Taldeak prentsa-ohar bidez eman du aditzera, eta adierazi herrian gune berriak sortu eta daudenak egokitzeko hartutako konpromisoa betetzera datorrela proiektua; eta gaineratu du: "Zerbitzu eta jarduerak deszentralizatu eta auzoetara bideratzeko helburua ere badauka. Kasu honetan, Portasol biziberritzeko beste elementu bat da".

Estalitako gune bat sortu gura dute; ziburuen eremu bat izango da, "ahalik eta behar gehienei" erantzuteko: "Txikienak ere jolastu ahal izan daitezen eguraldi txarra dagoenean". Horretara,

rako, dauden ziburuak handitzea eta aldatzea proposatu dute.

Era berean, zibururik gabeko espazio bat sortzea ere proposatu da. "Jarduera ezberdinetarako" aprobetxatzea eta beste jolas batzuetarako erabiltzea da horren helburua: "Espazio horretako eserlekuetan atseden hartu ahal izango da, patinekin jolastu, hainbat kultur ekintza egin, auzoko jaiak ospatu...".

Behark arkitekto taldearen lana

Bilbon egoitza duen Behark arkitekto taldeak idatziko du proiektua: "Taldea horrek proiektu ugari egin ditu eta horietako batzuk sarituak izan dira". Gune estalia zein plaza osoaren urbanizazioa jasoko dituen proposa-

**UDAL GOBERNUAK
2025EKO
AURREKONTUAN
SARTUKO DU
INBERTSIOA**

mena bideratzeko ardura izango du horrek. Aurreproiektuaren planoak eta infografiak aurkeztuko dizkie udal ordezkariari, baita materialaren aurrekontua eta Kalitatea Kontrolatzeko Plan ere, besteak beste. Proiektuaren idazketa kostua 14.900 euro izango da –BEZik gabe–.

400.000 eurotik gora

Behark taldeak egindako lehen proposamena jasotakoan "ahalik eta ekarpen gehien" batzen saiatuko direla adierazi dute Gobernutik, ondoren behin betiko proiektua idatz dezaten. Eta hori egindakoan obra esleituko dute, "ahalik eta lasterren" egin ahal izateko. Obraren inbertsioa 400.000 eta 450.000 euro artekoa izango dela aurreikusi dute, eta horri "oraindik baloratu gabe dagoen urbanizazio lanak" gehitu beharko dizkiote. Hori guztia Udal Gobernuak prestatzen dabilen 2025eko aurrekontuan jasoko dute, datorren urtean gauza dadin.

Huhezinema euskarazko film laburren lehiaketa abian da, 18.ez

Lanak aurkezteko epea zabalik dago, azaroaren 17ra arte; urtarrilaren 22tik 24ra bitartean banatuko dituzte sariak

M.A. ARETXABALETA

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko laugarren mailako ikasleek antolatzen duten Huhezinema jaialdia hasi da lehen pausoak ematen. Hamazortzigarrenez egingo den lehiaketako lanak aurkezteko epea zabaldu dute, eta azaroaren 17ra arte jasoko dituzte; horretarako, www.huhezinema.eus atarian zintzilikatu duten galdetegi bat bete behar da. Iaz, 81 lan jaso zituzten, eta aurten ez dituzte gutxiago jaso gura.

Jaialdia 2025ean egingo dute gero, urtarrilaren 22tik 24ra bitartean, hain zuzen ere, Arkupe kultur etxean. Hitzaldiak, eskola magistralak eta beste hainbat ekitaldi egingo dituzte orduan, baita sari banaketa ere.

Ohi legez, hiru sari nagusi banatuko dituzte: Sail Ofiziala, 650 eurokoa; Ikasleen Saila, 300 eurokoa; eta Bideoklip Saria, 300 eurokoa. Horrez gain, Mundukide Saria ere emango dute, 700 eurokoa, "munduaren gainean hausnartzera gonbidatzen duen film onenarendako".



M.A.


Batukada doinuak Aratzekoekin

Atzegi elkarteak abian jarritako boluntarioritza kanpainaren berri zabaltzeko batukada doinuak atera dituzte, beste behin, kalera Aratzeko kideek. *Orain duzu aukera* da kanpainaren leloa eta herritarrek gonbidatu dituzte boluntarioritza modalitatearen batean aktiboki parte hartzera; aurten, bereziki 55 urtetik gorakoei zuzendu diete mezua.

Palestinaren txokoa

Gune berriak egokitu dituzte azken egunotan Udal Liburutegian, eguneroko gertaerei eta datei kasu eginda. Hala, "Palestinan gertatzen dena ulertzen lagundu" dezaketen liburuak eta filmak –euskaraz zein gaztelaraz– batu dituzte, eta eskuragai jarri.

Era berean, Gaba Baltzerako irakurgai proposamenak ere jaso dituzte beste txoko batean.



UDAL LIBURUTEGIA

Txalaparta doinuei eustea helburu sortu da Sutunpa

Talde berria eratu dute herriko txalapartariak eta Arientzako kanpai-jole eskolako kideek elkarrekin, eta ikastaroa antolatu dute azarorako; lau eguenetan izango da, kuartelean, azaroaren 7an hasita, eta izena emateko epea zabalik dago

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko txalapartariak Sutunpa izenaren bueltan elkartu dira eta Arientzako kanpai-jole eskolako kideek bat egin dute haiekin. Elkarrekin sortzearen arrazoia da transmisioa bermatzea. "Txalaparta jotzen dakitenak egon badaude gure herrian, besteak beste ikastaro asko eman direlako, baina gero jarraipenik ez da egon". Horren arrazoia da "ezer ezin eskaini izana" orain arte. "Zelan egongo da jarraipena lokalik ere ez badugu izan?", adierazi dute taldeko kideek. Orain, gela bat izango dute kuartelean entseguak egiteko, ikastaroak antolatzeko eta gura beste jotzeko; eguen guztietan izango dira han, 18:00etatik aurrera.

Taldea indartzea helburu

Txalaparta ez da edonon jo daitekeen instrumentu bat; hala dio taldeko kide Igor Etxabek: "Bi lagun behar dira, gutxienez, eta etxean ezin da jo; norabait eraman behar da derrigorrean eta oholek pisua daukate hara eta hona ibiltzeko". Horregatik, kuarteleko gela gune aproposa izango da entsegurako zein topagunerako.

Txalapartariak ez ezik, kanpai-jole eskolako kideek ere



Etxabe, Quintanilla, Albizu, Madinabeitia eta Ziardegi joan den eguean. M.A.

badute elkartzeko ohitura. Egu-bakoi guztietan joaten dira Areantza auzoko elizara, eta han txalaparta bat ere badute. Hala, ordu erdi inguruan kanpaiak jotzen dituzte eta beste ordu erdi batez txalaparta, Gorka Madinabeitiak azaldu duenez: "Gustura jardun izan dugu, baina konturatu ginen ez genuela aurrera egiten, eta guk baino gehiago zekien norbait behar genuela horretarako". Txalapartariengana jo, eta orduantxe erabaki zuten bat egitea elkarte baten bueltan.

Elkartu izanak baduela zentzua dio Aitor Ziardegi txalapartariak, urteetako harremana dagoelako atzean, besteak beste. "Behin baino gehiagotan elkartu izan gara. Kanpai-joleen topaketak egin dituztenean mazoekin zein makilekin jo izan ditugu kanpaiak, eta ekitaldi polita sortu da Bergarako kanpandorrean eta Larrino auzokoan, esaterako. Izan ere, konexio naturala dute txalapartak eta kanpaiak".

Elkarrekin eratu duten Sutunpa elkarte txalapartaren bueltako kultura eustera dator: "Gura



Txalapartariak Jaikikoekin batera egindako ikuskizunaren une bat. I.S.

Kuarteleko jaialdian Jaikikoekin

Urriaren 12ko *Herrixa kuartelera* jaialdian Jaiki elkarteekin batera jardun zuten Sutunpako kideek. Aurretik ere, sanmigeletan, girotu zituzten kaleak. Haien asmoa da halako ekitaldietan parte hartzen jarraitzea Udalarekin hitzarmen bat sinatuta.

duguna da txalaparta kalera ateratzen den bakoitzean jendea elkartzea horren inguruan, jotzeko gertu dagoen jendea". Gaur egun, hamahiru bat kide daude taldean, baina kalean jotzen dihardutenak sei-zortzi lagun izaten dira. Taldea indartuta ekitaldi gehiago antola daitezkeela uste dute, eta, badute burutazioen bat edo beste, udaberriera begira: "Txalaparta egun bat izango litzateke; ekitaldi xume bat, baina, era berean, jardunaldi bat inguruko beste elkarte batzuekin hartu-emanak estutzeko".

Ikastaroa azaroan

Herriko txalaparta-zaleak ikastaro eskean dituztela aspalditxoan badakite: "Pentsa, orain dela urte pare bat esan genien egingo genuela!". Ez da emango duten lehenengoa, azken hogei

urteetan hainbat egin dituzte eta: "Gehienak beti hastapen ikastaroak izan dira, gerturatze bat, baina dagoeneko hori baino gehiago gura dute hainbatek. Hortaz, jende gehiago egonda mailakatu egin daiteke".

Saioak azaroaren 7an hasiko dituzte, eta lau eguenetan egin, 18:00etatik 19:30era bitartean, kuartelean. Izena emateko epea hilaren 5a arte izango da zabalik eta horretarako Loramendi elkartera jo daiteke -685 75 67 29- edo Igor Etxaberekin harremanetan jarri -628 44 00 49-. Prezioa 30 euro da.

TXALAPARTAREN BUELTAKO KULTURA SORTU GURA DUTE, JOTZEKO GERTU DAGOEN JENDEAREKIN

Zinema itzuliko da Arkupera azaroan sartzearekin batera

'Soy Nevenca', 'La virgen roja' eta 'El 47' filmak izango dituzte helduek, baita beste bi ikus-entzunezko ere

M.A ARETXABALETA

Uda sasoiarekin batera kaleko ekitaldiei agur esan eta azaroan zinema denboraldiari ekingo diote Arkupen. Helduentzako eta umeentzako filmak iragarri dituzte bihurtik bertatik.

Aste bukaeran, Iciar Bollain zinema-zuzendari nafarraren *Soy Nevenca* filma izango dute helduek; egubakoi 22:00etan, zapatuan eta domekan 19:30etan eta astelehenean 16:00etan. Umeentzako, oster, *Del revés* 2

marrazki bizidunen filma ekarriko dute zapaturako eta domekarako, 17:00etan. Sarreren prezioek ez dute aldaketarik izango: helduena 5 euro da -astelehenean, 3 euro- eta umeena, 3 euro.

Hurrengo bi aste bukaeretan, *La virgen roja* eta *El 47* izango dituzte helduek; lehenengoa Najwa Nimri aktore ezaguna protagonista duen drama da eta bigarrenak 1978ko Bartzelonako 47 autobus linea du ardatz, Eduard Fernández protagonista izanik. Umeentzako, oster, *Buffalo kids*,

euskaraz, eta *Gru 4. Mi villano favorito* emango dituzte.

'Prosopagnosia' hilaren 30ean

Hilabete bukaeran, bi ikus-entzunezko emango dituzte: Jesus Carrera komunistaren bizitza jasotzen duen *Hondarribiko gorria* hilaren 28an eta hausnartzera gonbidatzen duen *Prosopagnosia* 30ean. Azken hori Aretxabaletan bizi den Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendu du eta Itziar Ituño eta Kepa Errasti ditu protagonista.

Tute eta mus txapelketak jokatuko dituzte Basotxokoek

Basotxo erretiratuen elkarteak mahai-joko txapelketak antolatu ditu azaroaren 8rako Gurea tabernan. Tutean 11:00etan jardungo dute eta musean, 16:00etan. Izena emateko azken eguna azaroaren 5a da. Ondoren, afaltzeko elkartuko dira Muru Alde elkarteak. Txapelketak Basotxo ordezkariak dute eskualdeko txapelketan.

%39 igoko da hondakinen gaineko zerga 2025ean

Urriko osoko bilkuran adierazi dutenez, 2025ean %2 igoko dira udal zerga eta tasa nagusiak, baina hondakinen gaineko zergen igoera izan dute eztabaidagai udalbatzako kideek; igoera aplikatzearekin ez daude oposizioko jeltzaleak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Urriko ohiko osoko bilkuran, ordenantza fiskalak eta zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak %2 igotzea erabaki du Eskoriatzako udalbatzak, aurtengo kontsumo prezioen indizeak izandako igoera orokorraren azpitik aplikatuta. Igoera horretatik salbuesita geldituko dira zenbait tasa, kiroldegiko tarifak, etxebizitzarako lizentziak, industria zerbitzuetarako lizentziak, udal ondasunak erabiltzeagatik kobratzen diren tasak eta jardura edo ekitaldi soziokulturaleko prezioak. Horien prezioak mantendu egingo dituzte.



Eskoriatzako udalbatzako kideak osoko bilkuren aretoan. I. BELOKI

Igoera, legea betetzeko

Tasen artean igoera nabarmena izango duenetako bat hiri hondakinak biltzeko zerbitzua izango da: %39ko igoera izango du, Europak ezarritako legea bete ahal izateko. Legeak dio zerbitzu hori ezin dela defizitarioa izan; horregatik, nahitaez igo beharko dela tasa hau azaldu dute Eskoriatzako EH Bilduko Udal Gobernu kideak. Horren baitan, EAJk aurka bozkatu zuen urriko osoko bilkuran.

Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak, Xabi Uriartek, honela azaldu du hiri hondakinak biltzeko zerbitzuak izango duen igoera: "Europatik adierazi dute hondakinen zerbitzua ezin dela defizitarioa izan; beraz, herritarren gain jausi da gastu hori. Ez dugu jeltzaleen ezezkoa ulertzen, hondakinen tasak ez igotzeak legea ez betetzea ekarriko lukeelako". Gaineratu duenez, "125.000 euro daude ordaintzeko Eskoriatzan, eta lehen, bi zatitan egiten zen ordainketa; orain, hiru hilean behin egingo dugu. Hau da, lau zatitan kobratuko da, ordaintzeko zailtasunak dituzten herritarrek daudela kontuan hartuta".

ZERGA ETA TASEN %2KO IGOERA OROKORRA ONARTU DUTE ESKORIATZAKO UDALBATZAKO KIDEEK

Oposizioaren aurkako botoa

"Ezetz bozkatu dugu, Bilduren proposamena ez zaigulako ondo iruditu; batez ere, zaborren tasaren igoera dela-eta", adierazi du, bestalde, Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak: "Eman duten arrazoia da lege berriak horrela eskatzen duela, eta guk ez dugu uste horrela denik. Legeak ez du esaten %39 igo behar dela zaborraren tasa. Lege berriak bi gauza esaten ditu: zerbitzu publikoa ezin dela defizitarioa izan, batetik, eta, beste aldetik, gehien kutsatzen duenak gehiago ordaindu beharko lukeela".

EH Bilduren proposamenarekin hori ez dela lortzen uste du Eskoriatzako EAJk, eta bide errazena hartu duela dio. "Zerbitzuaren kostua jaitsi egin beharko genuke. Batetik, bilketa dugu, eta hondakinen kudea-

keta. Mankomunitatean atez ateko sistema dugu, eta oso garestia da; gure herrietan sistema hori ez balitz egongo, orokorrean, %6-8 jaitsi ahal izango litzateke. Beste aldetik, hondakinen tratamenduari dagokionez, geroz eta zabor gutxiago sortuz gero, gutxiago ordaindu beharko da. EH Bilduk azkenengo urtean ez du ezer egin sortzen den zabor kopurua jaisteko. Gainera, Eskoriatzan bilketa selektiboa %7 inguru jaitsi da. Hori guztia egin ez denez, tasak izugarri igo dituzte. Uste dugu neurriak eta programak martxan jarri behar direla sortzen den zaborraren kopurua jaisteko. Horrez gain, gehiegi sortzen duenak gehiago ordaindu behar duela ere ez da betetzen; proportzionala izan beharko litzatekeela uste dugu", azaldu du, bestalde, Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak.

Irtenbidea jasotzeko prest

Bilkuran, EH Bilduko bozeramaileak proposamenak batzordera eramateko eskatu zion Ezkurdiari, eta haiek entzuteko eta irtenbideak bilatzeko prest daudela adierazi zuen.



Iaz, beldur-harrapakaria kalera irteteko prest. ESKORIATZAKO UDALA

Haurren jai izatetik herritarren festa bihurtzeko ahaleginean

Gaba Baltza ospatzeko ekintza-sorta ederra prestatu dute; ekitaldi nagusia 19:00etan izango da, plazan

I.B. ESKORIATZA

Kalabazak hustu, kandelak piztu eta ohitura zaharrak berreskuratuz, Gaba Baltza ospatuko dute gaur Eskoriatzan. Beldurrak uxatuko dituzte, eta, iluntasunak sortzen duen zirrarak beldur-jolasetan jarduteko ilusioa pizten duenez, horretan murgilduko dira eskoriatzarrak.

Hala ere, erritu zaharrak berpiztu baino gehiago, berriak sortzen ari dira Eskoriatzan, bizipenak asko aldatu direla argudiatuta. Hala, iaz bezala, Eskoriatzako beldur-harrapakariak haurren eta helduen beldurrak batzen izango direla adierazi dute antolatzaileek.

EGITARAU BETERA

Goizean zehar herriko ikastetxeek Fernando Eskoriatza plaza apainduko dute azken asteetan egin dituzten apaingarriekin. Eta arratsalde osoan gaztai-

na-erreak egongo dira plazan. 17:30ean hasiko da ginkana, makillaje-txokoa jarriko dute, baita eskea ere. 19:00etan hasiko da ekitaldi nagusia, eta, amaitzeko, zezensuzkoa egongo da.

Beldurrak sutara

"Iaz sortu genuen beldur-harrapakariaren figura, eta aurten gorpuztu eta sendotu egin nahi dugu. Hala, umeentzako ginkana-jokoa eta eskea mantentzen bada ere, 19:00etan Fernando Eskoriatza plazan egingo den ekitaldia berezia izango dela uste dugu", adierazi dute Eskoriatzako Udaleko ordezkariak.

Guztira lau beldur-harrapakari egongo direla jakinarazi dute, eta hurrek nahiz helduek paporean idatzi edo margotuko dituzten beldurrak batu eta sutan erretzeko ardura izango dute. *Beldurrak erre, iluntasuna bizi* lelopean.

Sarrerak salgai Katziporretako ikuskizun berrirako

Ostirala iritsi da izeneko ikuskizun berria azaroaren 29an izango da, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian. Hala, adin guztietakoek beharko dute sarrerak emanaldira sartzeko, eta sarrerak salgai egongo dira alde aurretik kiroldegian azaroaren 4tik aurrera, sei eurotan, eta *bibe.me* azaroaren, 22tik aurrera, zazpi eurotan.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa
Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

Oihalen artean 'hegan' egiteko lekua dago

Joseba Iñurrategi pilotalekuko gimnasioan ematen dituzte oihal akrobazia ikastaroak, eta, haurren taldeak beteta dauden arren, helduentzako saioetan lekua dagoela azpimarratu du Agurtzane Telleria irakasleak, eta interesa dutenei ateak ireki dizkie

Imanol Beloki Unamuno ESKORITAZA 2017an hasi zituzten erritmoa, indarra eta oreka era bateratuan landu behar diren oihal akrobazia ikastaroak egiten Eskoriatzan, eta ordutik hona beti osatu dituzte taldeak; haurrentzat zuzendutakoak eta baita helduenak ere. Hala, ikasturtea hasi berri, probatu nahi duenak aukera izango du bertatik bertara oihal akrobazia ezagutzeko.

Zazpi urteko ibilbidea

Gogoan ditu Agurtzane Telleriak, Eskoriatzako oihal akrobazien irakasleak, hasierako garai haiek, eta ordutik hona eskaintza hobetzen joan direla azaldu du: "Rosa Lasagabaster Manuel Muñoz kiroldegiko kirol teknikaria zen, eta hari azaldu nizkion beharrezko baldintzak, eta bidari ekin genion. Hasieran umeekin hasi ginen, eta bi hilabetera nagusien beste bi talde sortu ziren; Huheziko Mondragon Unibertsitatetik ere eskatu ziguten ikastaroak egiteko euren ikasleentzako kretituak emateko...".

Harremanak sendotzeko

Oihal akrobazien saioetan yoga jarrerekin hasten dute beroketa, eta ondoren hasten dira ariketekin. Gorputza ezagutzeko

dela lehenengo urratsa dio Agurtzane Telleriak; indarra neurtzen ikastea eta norberaren indarra oihal gainean egoki erabiltzea. "Teknika ikastea garrantzitsua da, baina politena taldean sortzen den giroa da; izan ere, ikasleen artean sortzen den laguntasun konplizitatea sekulakoa da. Oihal akrobazia kirol oso zaila da eta arriskua ere bada zenbait ekintzatan; beraz, horregatik alboan duzun laguntzailearekin ariketa burutzeko lortzen duzunean, poztasun hori elkarbanatzea zoragarria da;

emozio horrek asko lotzen du, eta hori da helburua".

Izena emateko aukera

Ikasturteari ekin diote dagoneko, eta ezohiko diziplina den oihal akrobazia herritarrengana gerturatu nahi izan du Telleriak: "Haurren saioen taldeak beteta daude. Helduentzat zuzendutakoan, berriz, bada lekua, eta, beraz, interesdunek izena eman dezakete edo probatzera etorri. Horretarako, deitu 609 55 62 10 telefono-zenbakira edo *whatsapp*-a bidali.



Haurren taldea oihal akrobazia ikastaroan, asteon. AGURTZANE TELLERIA

Atamakoak Durangon

Urriaren 26an, Open 12 Harri borroka artean III. txapelketa izan zen Durangon, eta ekitaldian Atama Eskoriatza taldeko hamabi borrokalari lehiatu ziren: Danel Calero, Paco Gomez, Oihan Benitez, Andoni Puertas, Deiane Carmona, Zuhaitz Legorburu, Naroa Cabeza, Xuban Altuna, Alexandro Monteiro, Najih Douali, Xabi Orobengoa eta Joseba Camacho.



RAFA CARRIET

LEINTZ GATZAGA | 17

Gaba Baltzerako aurpegiak margotu eta 'Altxorraren bila'

18:00etan batuko dira gaur Leintz Gatzagako haurrak, eta egunerako prestatu duten abenturari ekingo diote



Domekan kalabazak husten aritu ziren herria apaintzeko. AINHOA BARANDIARAN

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteko kideek beste urte batez antolatu dute Gaba Baltza herriko txikientzat gaurko egunerako. Urteroko ildotik prestatu dute egitaraua, baina ekin-tza nagusia *Altxorraren bila* haurren gustukoa izateko ahalegina egin dutela nabarmendu dute.

Gaba Baltza gaur ospatuko duten arren, joan den domekan hasi zituzten prestaketa lanak, kalabaza-huste tailerrarekin. Kalabazak hartu, hustu eta begiko, sudurreko eta ahoko zuloak egin zizkieten, horien barruan kandelak pizteko. Horrela, herria modu beldurgarrian apainduta izateko.

Eskearen ostean, jolasa

18:00etan aurpegiak era beldurgarrian margotzeko batuko dira haurrak erabilera askotariko

gelan, eta prest daudenean kalera atera, eta *Xanduli, manduli, Eman gozokiak guri!* ari-tuko dira etxez etxe gozoki-eskean. Ondoren, 19:00etan, *Altxorraren bila* jokoa hasiko dute, eta proba ederrak prestatu dituztela adierazi dute Gurel Guraso Elkarteko kideek: "Pistak jarraituz probak gainditu beharko dituzte aurrera egiteko. Mamu bat izango dugu, pistak topatzera etxebizitza batera sartu beharko dute haurrek, eta bolatokian ere izango dugu sorpresaren bat. Esan beharra dago ihes-geletan izaten diren bezalako probak izango ditugula gaur...".

Altxorraren bila jokoa amaitzen dutenean, parte-hartzaileek elkarrekin afalduko dute Toki Eder elkartean. "Ez dugu zehaztu, baina, mokadutxo bat elkarrekin jateko ohitura izanda, pizza batzuk jango ditugu".

Autobus errefortzua jarriko dute sanmilixanetan

Azaroaren 10ean ospatuko dituzte San Milixan jaiak Gatzagan, eta bertaratu nahi duenarentzat autobus errefortzua jarri dute. Urtero moduan, Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako artisauen produktuak izango dira artisau azokan, herriko bisita gidatuak egingo dituzte, eta jateko eta edateko produktuak izango dira, besteak beste.

Auto pilaketak saihesteko autobusean joateko dei egiten du Udalak. Lehenengo autobusa 09:30ean irtengo da Aretxabale-tatik *Nafarroa kalea*; ondoren, etengabe egongo da Eskoriatzatik Gatzagara bidean, 15:00ak arte. Horrekin batera, eskaerapeko autobusa ere, eskaera egin beharrik gabe, orduro pasako da. Autobusean joan gabe korrika joan nahi duenak ere izango du aukera: Sordan bideetatik lasterketa egongo da, Arrasate-tik *-12:00etan irteera-*.

"Jende askok ez gaitu aspergerrok ezagutzen"

XABAT ASKASIBAR BALEZTENA HERRITARRA

Aspergerren sindromea dutenen errealitatea zabaltzea du helburu Askasibarrek; batik bat, Antzuolan. Haren hitzetan, "ezkutuan" dago, baina kanporatu beharra dago

Amaia Ramirez de Okariz


Kortabarria ANTZUOLA

5 urte zituela esan zioten Xabat Askasibar Baleztenari (Antzuola, 2001) aspergerria zuela, eta, orain, sindrome horren nolokotasunaz aritu da Maider Triviño aretxabaletarrarekin batera, *Ezagutu eta zure mundua zabaldu* izenpean hitzaldia egin baitzuten hilaren 24an Olanaran. **Antzuola Herri Eskolan izan zinen gaiaz hizketan duela bi urte.**

Bai. Pertsona ezberdinak gaude munduan, eta Iraia Gabilondok [Helburu akademiako ardura-duna] eta biok pentsatu genuen aurkezpen txiki bat egitea han, umeeekin eta irakasleekin. Harrera oso ona izan genuen, eta pentsatu genuen hurrengo pausoa herri mailan zerbait egitea zela, Aspergerren sindromea dugunon gaitasunak azaltzeko. **Zeintzuk dira gaitasun horiek?** Bat, adibidez, memoria oso ona dugula, iraganeko gertakariak gogoratzen ditugula; baita kirol batean aritzeko arauak ondo barneratzen ditugula ere.

Bakoitzaren bizipen eta ezaugarriak, ordea, ez dira berberak.

Halaxe da. Nik, adibidez, Goizperren eta Gureak-en egiten dut lan, eta klasifikatzen naiz ona, gauzak ordenatzen. Goizperren, gainera, urtebete luzatu didate



Xabat Askasibar Baleztena. A.R.K.

"GARRANTZITSUA DA ASPERGERRA DUTEN ERREFERENTEAK IZATEA UMEEK ETA GURASOEK"

kontratua: langile fina naizela esaten didate.

Herrian aspergerrez hitz egin beharra dagoela uste al duzu?

Bai. Jende askok ez gaitu ezagutzen, eta horregatik zabaldu nahi ditugu aspergerren gauzak,

jendeak uler dezan nolakoak garen. Garrantzitsua da umee eta gurasoek erreferenteak izatea ere, Aspergerren sindromea izanda ere bizitza normala egin daitekeela erakustea. Izan ere, askotan, ezkutuan egoten da, baina kanporatu beharra dago. **Horretan jarraituko al duzue aurrerantz?**

Ikusiko dugu zer egin. Printzipioz, eskerrak eman nahi dizkiet Antzuolako eskolan irakasle izandakoei, eurei esker bainaiz gaur naizena. Eta eskerrak baita Maiderrri eta Udalarari ere.

'Altxorraren bila', kondairak eta beldurrak erretzea Gaba Beltzean

18:00etan hasiko dira ekintzak, eta ekitaldia egingo da Herriko Plazan; arropa zaharrak janzteko dei egin dute

A.R.K. ANTZUOLA

Halloween jaiaren izaerari buelta bat emateko asmoz, Gaba Beltza ospatuko dute gaur. 18:00etan hasiko da ospakizuna, *Altxorraren bila* egingo baitute Idolaz aisialdi taldearen eskutik, elkarlanean antolatu duten arren Udalararekin, Bergarako Musika Eskolarekin eta Helburu akademiarekin. 19:00etan, kalejira egingo dute hilerritik kalera, eta antolatzaileek kandelak eramateko eskaria egin diete parte-hartzaileei; 19:10 aldera hasiko da ekitaldia Herriko Plazan.

Horretarako, arropa zaharrak janzteko dei egin dute.

Gaba Beltza, argiak itzalita

David Martin eta Sandra Mele-ro txalapartariak hasiko dute ekitaldia, eta musika eskolako haurrek pare bat abesti kantatuko dituzte ostean. Mila Etxezarreta herritarrek, berriz, kondairak kontatuko ditu, eta, hala nahi duenak, beldurrak sutan erre ahaliko ditu; horretarako, itzalita egongo dira plaza argiak. Amaitutakoan, 20 kilo gaztaina banatuko dituzte.

NIRE USTEZ



ION LIZARAZU

Orain ere

Jasoko zenuten Correoseko esku orria, *orain ere arratsalde irekita* egongo dela esaten duena; euskaraz lehendik ere zabalik egongo zen edo ez, ordea...

Elia, itzultzaile neuronal eta GTranslate-rekin egin dut nik proba, eta denek eman dute emaitza hobea. Nabaria da itzulpena egin dela; hau da, espainolez idatzi eta euskarara pasatu dela, ondoren; eta enegarren aldiz, gainera, gaizki egin da.

Eta itzulpeni buruz pentsatzen nengoela etorri zait gogora nola itzuli behar izaten diren sarritan euskarazko mezuak Whatsapp edo Telegram taldeetan, norbaitek euskara ulertzen ez duelako, eta topo egin dut nola Telegram aplikazioak bere barne duen mezuak zurea ez den hizkuntza batetik zure hizkuntzara automatikoki itzultzeko aukera. Hau da, ahalbidetzen duela taldeko hizkuntza orokorra euskara izatea, eta ulertzen ez duenari aukera ematen diola aplikazioan bertan testu horren itzulpena irakurtzeko. Bada, aukera bikaina iruditu zait talde eleanizetan erabiltzeko.

Autismoa, "pertsonalitate mota bat"

Askasibarren gidaritzapean, Triviñok –aspergerria du– egin zuen hitzaldia. Autismoaren –aspergerria barne da– ezaugarriez jardun zuen, ideia bat azpimarratuta: "Guretako egin gabe dagoen mundu batean bizi gara; autismoa zerbait arrarotzat hartzen da". Halere, erantsi zuen autismoa ez dela "gaixotasun bat, baizik eta pertsonalitate mota bat".



Triviño, zutik, urriaren 24ko hitzaldian. A.R.K.

Landtxopeko karta txapelketan izen-ematea zabalik da

Landtxope jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, beste urte batez egingo dute karta txapelketa, eta zabalik da izen-ematea azaroaren 12ra arte, elkarteetan. Azaroaren 18an, 19an, 21ean eta 22an hasiko dira partidak jokatzeko: puntxoan, briskan, tutean eta musean arituko dira, hurrenez hurren, eta 16:00etan hasiko dituzte guztiak.

Hala, asmoa da abenduaren 21a baino lehenago amaituta izatea partida guztiak, batzordekideek jakinarazi dutenez.

Memoria tailerra

Eguaztenetan –azaroaren 20tik otsailaren 5era– egingo den memoria tailerrean izen-ematea ere zabalik da, azaroaren 15era arte –guztira, hamar saio egingo dituzte–; eta horretarako, Gizarte Zerbitzuetara edo Landtxopera jo beharko dute interesa duten herritarrek.

PUBLIZITATE GEHIGARRI BEREZIA

KOOPERATIBAK



Elkarrekin lanean aurrera askotariko sektoreetan

Kooperatiba enpresa-ereduak indartsu dihardu,
aberastasuna sortzen, modu orekatuan banatzen
eta egiteko moduak zaintzen



1.200.000
pertonako
taldea gara, eta
sinesten dugu
badela banka
egiteko beste
modu bat.
*Eta zuk, zertan
sinesten duzu?*



Sinesten dugun horixe gara. Sinesten dugu konpromisoa dugula partaide gaituen gizartearekin. Sinesten dugu jasotakoa baino mundu hobea utzi behar dela. Sinesten dugu ez dagoela bakarkako aurrerapenik, baterakoa baizik. Eta gure inguruan oparotasuna, ongizatea eta berdintasuna sustatzen lagun dezakegula. Gaur eta bihar.


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

Kooperatibismoa: Debagoienetik bultzada jaso, eta eskualdea indartu

Debagoieneko esperientzia kooperatiboa bakarra da mundu osoan; dituen ezaugarri bereziengatik eta izan duen hedapenagatik. Hazkunde horretan giltzarri izan diren zenbait kooperatiba zein eragile ageri dira hurrengo orrietan

Urte berria hastearekin batera hasiko da Kooperatiben Nazioarteko Urtea, eta haren inguruan berbetan hasiko dira ondorengo orriak ere. Nolakoa da Debagoieneko kooperatibismoa? Zer ekarpen egiten dio eskualdeko ekonomiari eta ongizateari? Galdera horiek, besteak beste, erantzungo dira lehenengo orrietan. Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUko presidentek nabarmendu du kooperatibak "ekonomia eta enpresa ulertzeko beste modu bat" direla. Horren ondorioz, kooperatibismo indizea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ongizate indizea. Gehigarri honetan bildu dira eskualdeko kooperatibismoaren ikur esanguratsuenetako batzuk.

Askotariko sektoreetan dihardute Debagoieneko kooperatibek. Ezohiko kasu bat da, adibidez, ERKOP taldearena. Lehen seko-reko lau kooperatibak osatzen dute: baserritarrek sortutako MIBA, ortuko lanetan diharduen BARRENETXE, esnegintzako sektorean garrantzi berezia daukan BEHIALDE eta lehen sektoreko jakiak koinatu eta zerbizatzen dituen AUSOLAN.

EROSKIk ere saltzen ditu lehen sektoreko bertako jakiak, baina, horrez gain, beste produktu asko erosi daitezke haren supermerkatuetan. Hain zuzen, 2024. urtean indartuta eta berrituta irteten ari da taldea. Datozen hiru urteetarako plan estrategiko berria eratu du, eta koope-

ratibaren gaur egungo errealtatatera egokitu du kudeaketa eredua.

ULMA da Debagoieneko beste kooperatiba talde esanguratsu bat. Eskualdeko enpleguarekin oso konprometituta dago, eta buru-belarri dabil gaur egungo erroka handienetako bati heltzen: talentu gaztea erakartzea. Haren eredu sozial, ireki, dinamiko, ekintzaile eta kooperatiboak erakartzen ditu horietako asko.

Talentu gazteak formakuntza eskatzen du, askotan, eta horretaz arduratzen da, besteak beste, MONDRAGON Taldeko Otalora Garapenerako Zentroa. Milaka pertsona igarotzen dira urtero bertatik; formakuntza jasotzera batzuk eta eskualdeko esperientzia kooperatiboa ezagutzera beste batzuk.

FAGOR taldea da eredu kooperatibo horren eraikuntzako aitzindarietako bat. 60 urte

KOOPERATIBISMO INDIZEA ZENBAT ETA HANDIAGOA, ORDUAN ETA HANDIAGOA DA ONGIZATEA

BALIO TEKNOLOGIKOA DA DEBAGOIENKO KOOPERATIBEN BESTE EZAUGARRI NAGUSIETAKO BAT

baino gehiago dira Taldea sortu zenetik, eta nabarmen hazi da kooperatiba ordutik. Gaur egungo testuingurura egokitzeko, taldeko gobernantza eredua berrikusi eta eguneratzeko prozesuan murgilduta dago taldea.

Daukaten balio teknologikoa da Debagoieneko kooperatiben beste ezaugarri nagusietako bat. Teknologia berrien garapenean lan egiten du, hain zuzen, IKERLAN zentro teknologikoak. 50 urte bete ditu zentro horrek.

Teknologiaren inguruan ikeretzea ez ezik, behar-beharrezkoa da kooperatibismoaren beraren inguruan etengabeko sakontzea eta ikerketa ere. Horren gainean ikertu dute, hain zuzen ere, LANKI ikertegiko Aitzol Loyola eta Marixe Ruiz de Austri ikertzaileek.

50. urteurrena ospatuko duen beste kooperatiba bat ere bada go eskualdean: ONNERA GROUP. Oñatin du egoitza, baina nazioartean hedatu da dagoeneko. Sukaldaritzarako, garbiketarako eta hotz-aplikazioetarako ekipamendu-soluzioak eskaintzen ditu.

Zenbaki honetako azken elkarrizketatua Pello Rodriguez izango da. MONDRAGONeko Kontseilu Orokorreko presidentea da. Berriki izendatu dute, abuztuan, eta orain arte presidente kargua hartzen gazteena da. Aurrera ilusioz begiratzen du Rodriguezek; eskualdeko kooperatibismoari bultzada bat emateko asmoa nabari zaio.

Kooperatiben Kontseilua

22. orrialdea

Erkop Taldea

24. orrialdea

Ulma Taldea

26. orrialdea

Eroski Taldea

28. orrialdea

Otalora Garapenerako Zentroa

29. orrialdea

Fagor Taldea

30. orrialdea

Ikerlan

32. orrialdea

Lanki Ikertegia

33. orrialdea

Onnera Group

34. orrialdea

Mondragoneko Korporazioa

36. orrialdea



Kooperatiben Kontseiluko presidente Patxi Olabarria, aurtan 50 urte bete dituzten kooperatibei aitortza egiteko ekitaldian, aurtengo urrian.

Aste gutxi batzuk falta dira 2025a hasteko. Kooperatiben Nazioarteko Urtea izango da, eta hauxe izango da haren leloa: *Kooperatibek mundu hobea eraikitzen dute*; izan ere, kooperatibek munduan duten eragina nabarmendu nahi da. Baina zein da euskal kooperatibismoak Euskadiko ekonomian eta enpleguan duen eragina?

Gaur egun, 2.000 kooperatiba aktibo baino gehiago daude, kooperatiba horiek zuzeneko 60.000 enplegu baino gehiago sortzen dituzte eta EAEko BP-Garen %10 dira, 12.000 milioi euro baino gehiagoko fakturazioarekin. Kooperatibistei dagokionez, milioi eta erdi baino gehiago dira; hau da, euskal biztanleriaren %70ek nolabaiteko harremana du kooperatibismoarekin.

Eta garrantzitsuena da harreman hori belaunaldi gazteenengan ere nabaritzen ari dela. Gure ingurunea etengabe aldatzen ari da; enplegua, harremanak izateko modua, lan egiteko modua eta herria eraikitzeke modua etengabe aldatzen ari dira, eta aldaketa horretarako

Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialari ezinbesteko ekarpena

Gero eta handiagoa da enpresa kooperatiboek Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialari egiten dioten ekarpena. Gainera, kooperatibista gehien dituzten eskualdeek –Debagoiena, adibidez– ongizate-indize handiagoa dute

ezin hobea da kooperatiba, enpresa egiteko beste modu bat gisa eta gazteek baloratzen dituzten balioak dituen enpresa mota gisa, mundu hobea egiten lagundu nahi duelako. Formula kooperatiboa edozein jardue-

**GURE INGURUNEA
ETENGABE ALDATZEN
ARI DA ETA HORREN
AURREAN EZIN HOBEA
DA KOOPERATIBA**

ra sektoretara egokitzen da, eta, horregatik, gazteriaren talentuaz baliatuta, kooperatibak daude, esaterako, ekonomia digitalaren eta trantsizioaren alorretan eta garabidean dauden beste sektore batzuetan ere. Horri esker, proiektu berri horiek pertsona erdigunean jartzearekin bat etortzea eta ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik jasangarriak izatea lortzen da.

Testuinguru horretan, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (KOOPERATIBEN KON-

TSEILUA) ospakizuneko urterako prestatzen ari da, baina begirada beti Euskadin jarrita.

Enpresa egiteko beste modu bat Euskal kooperatibismoak indartsu dagoela erakutsi du eta gaur inoiz baino gehiago baliotsi ditu haren ezaugarriak, enpresa egiteko beste forma bat gisa; hau da, pertsonak erdigunean jartzen dituen enpresa gisa. "Ekonomia eta enpresa ulertzeko beste modu bat da, ekoizteko eta aberastasuna bantatzeko beste modu bat, eta

Kooperatiben Nazioarteko Urtea

2024ko ekainaren 19an, NBEko Batzar Orokorrak 2025. urtea Kooperatiben Nazioarteko Urtea izango zela aldarrikatu zuen, ebazpen baten bidez. Ebazpenaren testuan, urtea ospatzeko hainbat modu gomendatzen ditu, eta estatukide guztiak, Nazio Batuak eta alderdi interesdun guztiak animatzen ditu ospakizuna aprobetxatuz kooperatibek garapen sozioekonomikorako egiten duten ekarpena sustatzera.

Kooperatibek mundu hobea eraikitzen dute leloarekin eredu kooperatiboan jartzen da arreta, mundu mailako oztopo ugariaren funtsezko irtenbide gisa, eta 2030ean Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko lana azkartzeko duen garrantzia nabarmentzen da.

Hasiera, New Delhin Kooperatiben Nazioarteko Urtearen inaugurazio ofiziala New Delhin (India) egingo da, 2024ko azaroaren 25etik 30era bitartean egitekoak diren ACLren Nazioarteko Konferentzian eta Batzar Orokorrean, munduko kooperatibismoa inspiratuko duten nazioarteko liderren aurrean. Ondoren, urte osoa egongo da kooperatibek gizartean duten eragina ospatzeko; urte osoa, mugimendu kooperatiboa indartzeko eta pertsonen bizitzak hobetzeko jada egin denaz eta egiteko dagoenaz hausnartzeko.

ekiteko, kudeatzeko eta kontsumitzeko beste modu bat, ekonomia tradizionalaren alternatiba gisa", adierazi du Patxi Olabarriak, KOOPERATIBEN KONTSEILUko presidentea.

Komunitatean eragina

Eta, gainera, oso eragin positiboa du ingurunean. "Hala adierazten dute ongizatea, soldata arrakala, langabezia, errenta desberdintasunak, desberdintasuna eta pobrezia neurtzen dituzten hainbat adierazle ofizialek; izan ere, adierazle horiek esaten digute kooperatibista eta kooperatiba gehien dituzten eskualdeetan aldagai horien egoera orekatua dela. Hau da, kooperatibismo-indize zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da ongizate-indizea.

Debagoienak, enplegu kooperatiboaren ehuneko handiena duten eskualdeetako bat denak, esaterako, pobrezia edo bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden pertsonen indize txikiena du.

Datu horiek erakusten dute kooperatiben eragina euren ki-deengan ez ezik komunitatean ere nabaritzen dela, eta mesede ere egiten diola. "Aberastasuna birbanatzen dute eta ekonomia demokratikoagoa sustatzen dute", adierazi du Olabarriak. "Mundu globalizatu eta lehiakor batean, lankidetzaren etorkizunerako eredu jasagarria izan daitekeela erakusten digute enpresa kooperatiboek".

Onura ekonomiko eta soziala

Azken hamarkadetan krisi ekonomiko eta sozialak bizi izan dira, baina kooperatibek erresilienteak direla eta lurraldearekiko konpromisoa dutela erakutsi dute. Horregatik, enpresa kooperatiben arrakasta ez da soilik ekonomikoki duten arrakasta; ingurunea eraldatzeko duten gaitasunari begira duten arrakasta ere bada. "Gai dira tokiko beharrak detektatzeko, horiei erantzuteko eta pertsonen bizitza hobetzeko", esan du KOOPERATIBEN KONTSEILUko presidentea.

KOOPERATIBAK GARAIEKIN BATERA ERALDATU DIRA, ETA ERRONKA HANDIEI EGOKITU

Enpresa kooperatiboa garaiekin bat etorritu eraldatu da, eta erronka handietara egokitzen jakin du. Gaur egun ere beste erronka batzuei aurre egiteko gai dela erakusten ari da; esaterako, trantsizio energetikoari, digitalari eta sozialari aurre egiteko. Munduan gertatzen ari diren aldaketak handiak dira: globalizazioa eta enplegu-profil berriak, harremanak izateko modua eta adimen artifizialaren inpaktua ere bai.

Ekintzailatza kolektiboa

Etorkizunean eraldaketa handi horiek izanda, enpresa kooperatiboei lotutako balioak zabaltzea ere izango da KOOPERATIBEN KONTSEILUaren lana, balio horiek dira-eta gazteek gehien eskatzen dituztenak. "Bilatzen dugu ekintzailatza kolektiboa sustatzea, talentua erakartzea eta atxikitzea, lidergo berriak sortzea, emakumeek erabaki organoetan parte hartzea bultzatzen jarraitzea, berrikuntza bultzatzea, elkarren arteko lankidetzaren bultzatzea, eta jaso dugun ondarea mantentzea eta hobetzea. Laburbilduz, kooperatibismoak gure herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialari egiten dion ekarpena handitzea bilatzen dugu", azpimarratu du Patxi Olabarriak.

Ekintzailatza kolektibo horrek ingurune aproposa ere behar du eta enpresa kooperatiboetan ingurune hori sortzeko joera handiagoa dago. Goren Kontseiluak esku artean dituen ikerketen arabera, ekintzailak euren ingurune sozioekonomikoaren eraginaren mende daude, neurri handi batean. Eta eskuratu dituzten balioek edo eskualde jakin batean nagusitzen den kulturak ere eragina dute ekintzailatza bultzatzeko. Hau da, kooperatibek haziak ematen dituzte proiektu kooperatibo berriak hazi eta gara daitezten.

KOOPERATIBEN KONTSEILUA, Espainiako, Europako eta munduko kooperatiben alorreko erakunde berezi gisa, ilusioz ari da 2025 honi aurre egiteko prestatzen. Haren historiako lau hamarkadetak urte garrantzitsuenetako baten aurrean, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK bere lana eta konpromisoa areagotuko du, mugimendu kooperatiboak gure herriaren garapenaren alde egindako ekarpenak onarpen sozial handiagoa izan dezan.

Aitortza mundu hobearekin

KOOPERATIBEN KONTSEILUAK aitortza erakutsi zien urriaren 3an, Bilbon, aurtengo mendebaldeko bideo eginda duten eta, beraz, Euskaditik mundu hobearekin laguntzen duten hogeita hamar euskal enpresa kooperatibori baino gehiagori; horien artean, Debagoieneko hauei: Ikerlan, Lagun Aro eta Onnera Group.

Hainbat ikerketa eta estatistikak erakusten dute sortzen diren enpresa proiektuen %61 ez direla 5 urte baino gehiagora iristen. Baina badago enpresa mota bat datu horietatik kanpo dagoena. Kooperatibak dira; izan ere, Euskadin ia %80ko biziraupentasa dute euren lehen jardueratik ekitaldietan. Horregatik, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK nabarmendu du enpresa kooperatiboei aldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalerara egokitzen eta Euskadiko sare ekonomikoan irauten eta haren zati garrantzitsu izaten lagundu dieten kooperatibista guztien balioa.

Ekitaldia KOOPERATIBEN KONTSEILUAK mugimendu kooperatiboaren aitortza soziala handitzeko duen konpromisoaren frogak da, gure herriaren garapenari egiten dion ekarpenagatik aitortza sozial handiagoa behar duela uste baitu. "Kooperatibak aldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalerako benetako motorra dira. Mundu honetan, non desberdintasunak gero eta gehiago diren, kooperatibek erakusten digute badagoela aberastasuna modu bidezkoagoan banatzerik, pertsonak euren jardueraren erdigunean jarritz", adierazi zuen Patxi Olabarriak, KOOPERATIBEN KONTSEILUko presidentea.

Ekitaldian, Mikel Torres Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua egon zen, baita Euskadiko beste agintari eta kooperatiba eta enpresa munduko beste ordezkari batzuk ere; esaterako, Konfekoop-eko presidentea Rosa Lavin.



Juan Luis Arsuaga paleontologoaren hitzaldia.



KOOPERATIBEN KONTSEILUko ordezkariak eta erakundeetakoak Arsuagarekin.



Enpresa sarrituetako ordezkariak eta agintariak batzen dituen argazkia.

Biologia eta ekonomia

Aitortza horren osagarri, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK Juan Luis Arsuaga paleontologo ezaguna gonbidatu zuen, haren ikuspegia azal dezan; izan ere, haren ustez, lankidetzaren ez da soilik giza balio bat, gure bilakaera eta gizateriaren historia ulertzeko funtsezko gako bat ere bada. *Cooperar para competir: la clave de la evolución social* izeneko hitzaldia egin zuen, eta bertan lankidetzaz hitz egin zuen, eta gizakien eboluzioa, haren aztergaia, oinarri hartuta azaldu

AURTEN 50 URTE BETE DITUZTEN KOOPERATIBEI AITORTZA EGIN BERRI DIE KOOPERATIBEN KONTSEILUAK

zuen nola lankidetzaren izan den kooperatibismoaren iragana, oraina eta etorkizuna bultzatu duena. Atapuercako aztarnategietako ikerketa taldeko kide eta Paleontologiako katedradun eta idazle ospetsuak biologiaren eta ekonomiaren arteko harremanean oinarritu zuen hitzaldia. "Ekonomia teoria ebolutiboaren inspiratzaile izan da, eta alderantziz, eta, gainera, hizkuntza partekatzen dute, kontzeptu berberak erabiliz, hala nola ekosistema edo hipotesi berberak ere, baita Erregina Gorriaren efektua eta Zisne Beltzaren teoria ere".

Ekitaldiari amaieran, Demode Quartet taldeak *Bi hanka*, kooperatibismoaren ereserkia *a cappella* interpretatu zuen.

ERKOP kooperatiba talde bat da, 1993an sortu zena, Auzo Lagunekin batera nekazaritzako elikagaien bost kooperatibaren proiektu komuna bilduta. Hiru hamar-kada geroago, bilakaera nabarmena izan duen arren, jatorrizko proiektuak bere horretan jarraitzen du eta indartu egin berri da, *Etorkizuneko ERKOP* ikuspegi bateratuarekin. Artikulu honetan, gaur egun bazkide diren lau kooperatibetako gerenteak bildu dira. Oro har, lau errealitate desberdin dira, eta gure herrialdeko nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzeko konpromiso bateratua dute.

1963an sortutako MIBA pentsu-kooperatiba da horietako bat. "Baserritar pila baten artean muntatu zuten", azaldu du kooperatibako gerente Iosu Ogizak. "Arrasate inguruan kooperatibaren loratzea izan zenean, baserritar batzuk nekazaritza-kooperatibak ere sortzen hasi ziren, eta tsetuinguru hartan sortu zen MIBA ere, Markinan (Bizkaia). Baserritarrek elkartu ziren indar handiagoa izateko eta zeuzkaten gabeziei aurre egiteko. Baserritar asko zeuden, baina, orain nekazaritzatik bizi den jende gutxiago dagoenez, bazkide gutxiago dago", azaldu du. Geroago erabaki zen kooperatibako langileak ere bazkide izatea, eta handik aurrera bazkide eta baserritarrez osatutako kooperatiba bilakatu zen. Gaur egun, oraindik baserritarrek daukate kooperatibaren %51. Animalien-

ERKOP: 30 urtez nekazaritza elikadura indartzen

Nekazaritza elikaduraren arloan lan egiten duten lau kooperatibaz osatutako taldea da ERKOP. Lehen sektoreko kooperatibak indartzeko aliantza estrategikoa osatzen dihardute duela 30 urte baino gehiago, eta hazten jarraitzeko asmoa dute

tzako pentsuak ekoiztu eta saltzea da MIBAREN jarduera nagusia; behi, ahuntz, ardi zein oiloentzako pentsuak egiten dituzte. Horrez gain, orturako tresnak zein bertako beste produktu batzuk saltzen dituzte zabalik dauzkaten lau dendetan.

BARRENETXE kooperatiban, berriz, ortuariak ekoizten dituzte, berotegietan zein aire librean. "Ortugintzan zebiltzanek zailtasunak zeuzkaten ekoizpenean eta distribuzioan, eta 1980an lan-kooperatiba bat sortzea izan zen zeregin haiek

modu antolatua egiteko bidea", adierazi du Iosu Arrizabalagak, BARRENETXEko gerenteak. Hain zuzen, lana kooperatiba baten bidez antolatzeak langileentzako baldintza hobekak ekarri zizkien, Arrizabalagaren esanetan. "Orain, aukera daukagu lana era antolatuan egiteko, ordutegi batzuekin eta oportekin. Beste era bateko nekazaritza-enprekin alderatuta, bizi-kalitatea ezberdina da".

Kooperatibak daukan ibilbidea ere azpimarratu du: "Es-

kutik eskura igaro da kooperatiba pare bat belaunalditan. Gure helburuetako bat da generazio batek hurrengoari lana ahalik eta era hobereanean uztea". Era berean, ingurua ere hurrengo belaunaldietarako ahalik eta modu onenean uztea da euren printzipioetako bat, eta, horretarako, nekazaritza iraunkorraren aldeko apustua egin dute. Hain zuzen, nekazaritza praktika onak saritzen dituen Globalgap ziurtagiria eta ekoizpen naturala bermatzen duen PI egiaztagiria dauzka.

Esneingintzaren sektorean leku berezitua dauka, berriz, BEHIALDEK. Aramaioko lurretan dago kooperatiba hori, eta egunero esnea ematen dieten 450 behi dauzkate, baina guztira gehiago dira abelburuak: 520 behi nagusi hazi dituzte, eta haiek ordezkatzeko beste 500 biga ere badauzkate. 320 hektareako lurretan hazten dituzte behi horiek, aire zabalean, eta hori da, hain zuzen, bereizten dituen ezaugarri nagusia, Gorka Berrio bertako gerenteak esan duenez: "Esneingintzako enpresen %95ek behiak ukuiluetan izaten dituzte, instalazio geroz eta bereizitagoetan, kanpora atera gabe. Guk, ordea, artzaintza egiten dugu; larreetara atertzen ditugu behiak, eta egunean bi aldiz sartzen ditugu barrura: batzeko eta pentsu emateko". Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan mota horretako artzaintza egiten duten enpresa handiena da BEHIALDE, baita txandakako artzaintza birsortzailea egiten duten tamaina horretako bakarra ere. Kaiku kooperatibako kide ere badira, eta haiei bideratzen diete esnea, haiek produktuaren eraldaketa eta banaketa jarduerak egiteko.

Ausolan, ordea, 17 emakumek sortu zuten, 1969an. Garai hartan, emakumeak, ezkondu ondoren, utzi egiten zion lan egiteari, eta edozein jardueratan aritzeko senarraren baimena behar izaten zen. 17 emakume haiek erabaki zuten, beraien ekimenez. Kooperatibaren jatorriak berdina izaten jarraitzen du oraindik; horrek definitzen du Ausolan. Taldeko zuzendari nagusi Laura Rodriguezek adierazi duenez, "emakume haien ausardia" 11.000 profesionalz osatutako talde batean proiektatzen da gaur egun, gehienak

MIBA, baserri kooperatiba

1963an sortu zuten MIBA, Markinan, hainbat baserritarrek. Horregatik, Markina Inguruko Baserritarren Alkartea esan nahi dute haren siglek. Egun ere baserritarrek eta, aldi berean, bezeroak dira bazkideen %51; gainontzekoak langileak dira. Pentsuak ekoizten dituzte, baina beste hainbat produktu ere saltzen dituzte euren lau dendetan; orturako tresnak, esaterako.



Etxebarrian kokatuta dagoen MIBA kooperatibaren lantegia.

NEKAZARITZAREN ETA ELIKADURAREN ARLOKO LAU KOOPERATIBAK OSATZEN DUTE ERKOP

KOOPERATIBEN ARTEAN SINERGIAK SORTU ETA SEKTOREA INDARTZEKO BALIATZEN DUTE

andrazkoak. Otorduak presta-
tzeko zerbitzua ematen zuten
hasieran, eta gaur egun ere hala
diraute. Eskoletan, enpresetan
zein sektore soziosanitarioan
ematen dute jaten, besteak bes-
te, eta *gourmet* atal bat ere jarri
dute martxan. Horrez gain, gar-
biketa zerbitzuak ere eskaintzen
ditu. "Konpromiso handia dugu
bertako sektoreak garatu eta
indartzearekin; hurbiltasuna da
gure printzipio garrantzitsue-
netako bat", dio Rodriguezek.

Lehen sektoreari bultzada

Guztiek diote onura ugari ekarri
diela ERKOP taldean biltzeak.
MIBako Ogizak, esaterako, tal-
deak "indarra" ematen diela esan
du: "Gure arloan kooperatiba
txikiek indar gutxi daukate,
baina, haiek elkartu eta talde
bat sortuta, indar handiagoa
hartzen dugu. Batetik, ematen
dugun irudia hobetu egiten da
eta eraginkortasun aldetik ere
gauza asko elkarrekin egiteko
aukera ematen digu. Guztion
onerako da". Gainera, gehitu du
taldean nekazaritzako elikagaien
sektoreko beste kooperatiba ba-
tzuk sartu daitezkeela, abantaila
horiez probesteko. Bat dator
BARRENETXEko kide Arriza-
balaga ere: "Logikoena da ho-
rrelako talde bat sortzea; izan ere,
taldean sektoreko beste
kooperatiba batzuekin lan egiteak
sinergiak sortzeko aukera ematen
digu". Berriok nabarmendu
du "garrantzitsua" dela era ho-
rretako talde bat sortzea, eta
Rodriguezek azaldu du koope-
ratiba ezberdinak izan arren
"osagarriak" direla elkarren
arteak: "Uste dut duela 30 urte
baino indar handiagoa dugula
orain, eta bide horretan jarraitu-
tuko dugu, beste batzuei ere
ateak zabaldua".

30 URTETIK GORA DARAMA TALDEAK MARTXAN, ETA ENPRESEI ONURA UGARI EKARTZEN DIE

ERABERRITU EGIN DA AZKEN URTEAN, ETA 'ETORKIZUNEO ERKOP' BIDE ORRIA FINKATU DUTE



BARRENETXE kooperatibaren negutegi bat.

BARRENETXE, ortuko lanean

Nekazarien kooperatiba bat
da BARRENETXE. 1980an
sortu zen eta egun hogeii
bazkide ditu. Ortugintzan
modu isolatuan aritu ohi
ziren nekazariak, eta
kooperatiba lan baldintzak
hobetu eta indarrak
batzeko tresna gisa erabili
zuten. Belaunaldi batetik
bestera joan dira ofizioa
jasotzen; garrantzi berezia
ematen diete
iraunkortasunari eta
erreleboari.

BEHIALDEKO larreetan

Hamazortzi bazkideko
kooperatiba txiki bat da
BEHIALDE. Aramaioko
lurretan dago, Albina
izeneko eremuan. Guztira
1.000 behi baino gehiago
ditu kooperatibak, eta
artzaintzaren bidez hazten
dituzte, larreetan libre
utzita. Berezia da ezaugarri
hori, gaur egun
esnegintzako etxalde
gehienek ukuiluan
edukitzen dituzte-eta
abelburuak, larreetara
atera gabe.



BEHIALDEko behiak, Albinako larreetan, Aramaion.



AUSOLANen irudi bat; barazkiak sukaldean egiteko gertu.

AUSOLAN: lurra eta sukaldea

Ausolan, 1969an 17
emakumek sortutako
kooperatiba da, eta 55
urteren ondoren liderra
bihurtu da janari eta
garbiketa zerbitzuetan.
Egun, 11.000 langile, 19
sukaldaritza zentro eta
16 bulego ditu.
Zerbitzuak eskaintzen
ditu hezkuntza, enpresa,
soziosanitario, sozial eta
osasun sektoreetan.
SHARMA sukaldaritza
maila altuko lan lerroa
ere badauka.



Ongizate handiena sortu nahi du ULMAK langileentzat; kontziliazioa sustatuz, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako lan giroan.

ULMA, pertsona guztien garapen pertsonalarekin eta profesionalarekin konprometituta

ULMA betidanik egon da oso konprometituta Debagoieneko enpleguarekin. Hala ere, konpromiso horrek historiako erronka handienetako bati egin beharko dio aurre gaur egun: talentu gaztea erakartzea

Zer bilatzen dute gazteek? Zer eskaini dakieke erakartzeko? Eta, batez ere, zer egin dezakete enpresek haien beharrak asetzeko? Galdera horien aurrean, ULMAko eredu sozial, ireki, dinamikoa, ekintzaile eta kooperatiboa balio segurua da. Pertsonengan oinarritutako proiektu berritzaileen bidez lan aukerak eskaintzen dituen eredu da.

ULMA lan egitea

ULMA lan egiteak profesional gisa eta pertsona gisa garatze-

ko eta garapen sozialerako aukerak eskaintzen dizkizu. Irauteko bokazioa. Espiritu horren ondorioz, konpromiso argia dugu ULMA Taldea osatzen duten pertsona guztien garapen pertsonal eta profesionalarekin.

Ongizate handiena sortu nahi dugu haienentzat, kontziliazioan eta berdintasunean, hurbiltasunean eta errespetuan oinarritutako lan giroa sustatuz, eta etorkizuneko perspektiba zabalak dituzten sektore industrialan karrera profesional

iraunkorra eta gogobetegarria eraiki ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak jartzen ditugu haien eskura.

ULMAk, bere historia osoan, beti izan du konpromiso irmoa ingurunearekin eta gizartearekin. Gizartea aldatu egin da 60 urte hauetan, baina gure asmoa hasierakoa bera da oraindik ere: gizartetik jaso duguna itzuli nahi diogu gizarteari. Konpromiso hori zabaltzeko, eremu askotan, hala nola garapenerako lankidetzan, gizarteratzen, kirolean, kulturaren,

euskararen arloan, berdintasunaren arloan eta hezkuntzaren arloan diharduten entitate eta erakundeei laguntzen diegu, eta haiekin elkarlanean aritzen gara.

Osasuna eta ongizatea

Eta ULMA osatzen duten pertsonen bizitza ere hobetu nahi dugu, gure langileen interesekoak diren osasunari eta ongizateari buruzko hainbat gai buruzko ikastaro, tailer, hitzaldi eta prebentzio kanpainetara joateko aukera eskainiz. Horrek guztiak, ULMA Taldeko Osasun Zerbitzuak bultzatuta, arreta medikoa emateaz gain, bizimodu osasungarria ere sustatzen du eta.

Egunetik egunera hobeak izatea gustatzen zaigu, eta, horregatik, ikaskuntzan eta berrikuntzan zentratzen gara. Erronkek ez gaituzte geldiarazten, eta beti gaude ideia berrietara irekita. Horren ondorioz, prozesu industrialak optimizatze eta teknologia berriak inplementatzeko proiektu aitzindari ugari abiarazi ditugu. Gure formulak esperientzia eta berrikuntza batzen ditu.

Enpresa sustapen eredu honek oraindik ere fruituak ematen ditu, eta horrek eraman du

ULMA berarentzat erabat berria den esparru batean sartzera: osasunaren esparrura, hain zuzen. ULMA Medical Technologiesen eskutik irudiak hartzeko ekipoez, datu medikoen plataformez eta adimen artifizialeko hainbat algoritmoz osatutako soluzioak garatzen dira, oftalmologiako gaixotasunen diagnostiko medikoa eta detekzio goiztiarra errazago egiteko.

Industrial eta nazioartekoa

ULMA lan egiteak, hau da, bederatzi negoziok osatutako talde kooperatibo eta industrial batean lan egiteak hazteko eta ikasteko aukera paregabea ematen du hainbat sektore industrialan. Hori guztia soluzio industrialak garatzen onenak diren eta esperientzia handien duten profesionalen eskutik, sei hamarkada baino gehiagoan ULMA soluzio industrialen garapenean talde sozioenpresarial nagusietako bat bihurtu duten profesionalak baitira.

Eskualdean oso errotuta egotea ez da nazioartean erreferente izateko oztopoa guretzat. 81 herrialdetan gaude, eta planetako edozein bazterretara daramatzagu gure soluzioak. Nazioartean egotea, taldea sektore askotara iristea eta barruan talentua sustatzeko dugun politika direla-eta, aukerarik hoberena gara karrera profesional bat egin nahi dutenentzat.

Etorkizuneko industria erakitzen ari gara, ikuspegi so-

"Kontseilu sozialean parte hartu dut; haren funtzionamenduari buruzko prestakuntza jaso ahal izan dut. Benetan, oso eredu erakargarria eta gizatiarra iruditu zait"



ALATZ
ETXEBARRIARTEUN
ULMA LIFTING
SOLUTIONS

LANGILEAK

5.600

PERTSONA LANEAN

SALMENTAK

1.100

MILIOI EURO

MERKATUA

81

HERRIALDETAN

zioenpresarialetik gure ingurunean eragin positiboa izaten jarraitzeko. Pertsonen, garapen profesionalaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten dugu, gure produktuak eta soluzioak Oñatitik munduko edozein lekutara eramane eta han gauzatu ahal izateko.

Gure DNA kooperatiboak pertsonekin eta gure ingurunearekin dugun konpromisoa gidatzen du, haiei ondare gisa utzi nahi diegun ingurumena, gizartea, ekonomia eta kultura lantzen ari gara eta.

"Kooperatibari buruzko ikuspegia erabat aldatu du ULMAn lan egiteak. Lankideek edozein egoeratan laguntzeko joera dute, beti hobetzea bilatuz, aparteko erabakitasun eta motibazioarekin"



IÑAKI ARZUAGA
ULMA
PACKAGING



ULMAK ematen du 9 negoziok osatutako talde kooperatibo eta industrial batean lan egiten hazteko eta ikasteko aukera.



ULMAn lan egiteak profesional eta pertsona gisa garatzeko eta garapen sozialerako aukerak eskaintzen dizkie langileei.

Talentu gaztea sustatzeko gune bat

ULMAk eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (MGEP) lankidetza estua izan dute beti ingurune industrial jasagarria bultzatzeko erronkarekin bat egin dezaketelako profesionalak prestatzeko. Horren adibide da aurten sinatutako lankidetza akordio bikoitza, aliantza indartzen duena eta talentu gazte espezializatua sustatzeko ekimen berriak bultzatzea ahalbidetuko duena.

Bi erakundeon arteko konpromiso berri horrek ULMA

Gela sortzea dakar; hau da, eskualdeko etorkizun industrialerako giltzarri diren arlo teknologikoetan ezagutza eta proiektu berritzaileak garatzeko gunea.

Ikasleak enpresara

Espazio hori MGEPren instalazioetan egongo da, eta ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetan lankidetza erraztea izango du helburu. Sortu berri diren bi katedra erabiliko ditu: horietako

bat adimen artifizialaren ingurukoa eta bestea fabrikazio industrialeko prozesuetako efizientziari buruzkoa.

ULMaren eta MGEPren arteko harremanaren ondorioz, azken hamarkadan MGEPko 400 ikaslek baino gehiagok garapen profesionalerako espazio bat aurkitu dute ULMA Taldeko kooperatibetan. Gainera, azken lau urteetan, ULMA Taldearen negozioek inbertsio handiak egin dituzte urtero, ikerketa, transferentzia teknologiko eta etengabeko prestakuntza proiektuak finantzatzeko.



IBON CALVO
ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

Ze eskain dezake ULMaren eredu kooperatiboak?

Eredu kooperatiboak ibilbide luzea egin du historian zehar, bai mundu mailan, baita gure bailaran ere. Badirudi mundua eta gizartea orain hasi direla eredu kooperatiboaren onurez eta abantailez jabetzen. Guk, aspalditik, gure bizipenetatik jakin dugu hori.

Pertsonak, gizaki sozialak garen aldetik, kooperatzeko beharra sentitzen dugu, eta eredu kooperatiboak oinarritzko behar hori asebetetzen du.

Helburu horrekin berarekin, gizarte hobetzaile egiteko asmoarekin, ULMAk 60 urte baino gehiago daramatza lanean. 60 urte hauetan gizon eta emakume asko proiektuaren parte izan gara. Egun, ULMA bederatziko negoziok osatzen duten proiektu sozioenpresarial bakarra da, 80 herrialde baino gehiagotan puntako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituen. Baina lehenengo egunetik gaur arte, beti argi eduki dugu pertsonak direla proiektu horren oinarria eta haien bitartez bakarrik garatu daitekeela proiektua.

Guri gertatu zitzaigun moduan, guk ere ondorengo belaunaldiei ULMA proiektuan parte hartzeko aukera eskaintzen diegu, bakoitzaren garapen pertsonal eta profesionalerako abiatura, gure inguruan gizarte justuago eta bidezkoagoa eraikitzen jarraitzeko. Horrek mugitzen gaitu, eta, azken 60 urteetan bezala, tinko jarraituko dugu lanean.

EROSKI 2024-2026ko aldirako plan estrategiko berriari murgilduta dago, eta helburu du azken urteetan landu dituen gako nagusietan sakontzea. Helburu nagusietako bat da prezioen lehiakortasunaren alde apustu egitea, bereziki freskoetan eta marka propioan, eta horiekin batera sustapenak eta abantailak eskaintzea EROSKIren eta Capraboren fidelizazio-kluben bidez.

Aurrezpenarekin duen konpromisoa da EROSKIren ardatz nagusietako bat elikagaien banaketako sektore lehiakor honetan, zeinetan marjinak zinez estututa eta tenkatuta dauden.

Hori dela eta, EROSKIren ustez, lehiari aurre egiteko erarik onena da norberari leiala izatea, haren posizioa indartuz eta bereizgarri izatea nahi dituen elementuak aukeratuz.

Helburua da kontsumitzaileek haren aldeko hautua egitea erosketa egiteko orduan.

EROSKIk jarraitzen du etxeko prezioa gutxitzen laguntzeko apustu egiten. Alde horretatik, prezioen igoera mugatzen ari da haren marjinen kaltetan, eta familien aurrezpenaren aldeko apustua indartzen, prezioen lehiakortasuna hobetuz.

Era berean, sustapenei gero eta bultzada handiagoa ematen die. Eta marka propioa garatzearen aldeko apustu nabarmena egiten du: familia askorentzat aterpe bihurtu da, gainera, sektorekotik goragoko hazkuntza-tasak izan ditu eta.

Aurrezkiak kontsumitzaileei

EROSKIk leial eta sendo jarraitzen du kontsumitzaileei aurrezkiak helarazten. Hori da haren politika komertzialaren lerro nagusietako bat, eta halaxe dator plan estrategiko berriari. Horrekin, 33 milioi euro baino gehiago aurrezten lagundu du 5.700 produktu baino gehiagoren prezioa gutxituta 2024ko lehen sei hilabeteetan.

Aurrezki horren erdia baino gehiago, zehazki 17 milioi euro, haren markako 1.100 produktu-



Kontsumitzailea dago Eroskiren erdigunean, eta haren aurrezpena eta erosketa esperientzia dira lehentasunezkoak.

Aurrezpena eta produktu freskoa, EROSKIren plan estrategiko berriaren ardatzak

2024. urtean EROSKI Taldea indartuta eta berrituta irteten ari da: plan estrategiko eguneratu batekin abiatu du ekitaldia datozen hiru urteetarako, eta errealitate berrira egokitu du kudeaketa eredua

ri prezioa jaitsita lortu du. Era berean, programa azpimarragarrietako bat *Beti prezio onak* deritzon saskia da: delako saski horretan, lortu du 576 produkturen salmenta zenbatekoak jaitea, eta horrek, lehenaz gain, 13 milioi euroko aurrezkiak ekarri du guztira. Denetarik duen saskia da, osasungarria eta merkea; izan ere, 300 produktu fresko dakartza: fruta eta barazkiak, arraina, haragia, ogia, arrautzak eta oinarritzko beste elikagai batzuk, hala nola esnea, jogurtak, pasta eta arroza. Horretaz gai-

nera, etxeko garbigarriak eta zainketa pertsonalerako produktuak ere sartzen dira.

EROSKIk inbertsio ahalegina areagotu du, eta aurrezkiak elikadura osasungarriari lotu dio, bereziki. Horrela, produktu freskoen bidez aurrezten laguntzea lortu du: 1.183 erreferentzia eta 21,9 milioi euroko aurrezkiak. Horren ondorioz, EROSKIren erosketa-saskiak %1,14ko barioa izan du 2024an, eta KPIaren igoera berdindu du epe horretan, prezioei eusten ahaleginduz, eroslearen mesedetan.

Freskoak eta tokikoak

Planeko beste ildoetako bat freskoak eta tokian tokiko produktuak dira: lehentasunezkoak dira, eta toki nabarmena betetzen dute haren dendetan. EROSKIk apustu indartsua egiten du hur-

bileko produktuen alde. Konpromiso horri hastapenetatik eusten dio, eta horren erakusgarri dira haren hornitzaileak, erdiak baino gehiago tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizleak baitira; 21.000 erreferentzia baino gehiago merkaturatzen dizkie. Produktu freskoak ezinbestekoak dira elikadura osasungarri batean; horregatik, EROSKI ahalegintzen da ahalik eta sortarik handiena preziorik onenetan izaten.

Bestalde, eta kontsumitzaileen eskariei erantzunez, EROSKIk jarraitzen du bere markak bultzatuz, sorta zabalduz eta sustapenak eta deskontuak eginez. Iaz, urtearen hasierarako, marka propioaren zama %27tik gorakoa zen ontziraturako produktuetan, eta, hain zuzen, %7 handitu zen produktuon kopurua EROSKIn erosten dutenen saskian. Haren markek jarraitzen dute elikadura osasungarriaren eta iraunkortasunaren aldeko apustuaren isla izaten, eta, hala, haren posizionamendua indartzen.

Erosketa esperientzia hobetu

EROSKIk dituen helburuen artean, bat da berrikuntza arloan kontsumitzailearen erosketa esperientzia hobetzea, digitalizazioarekin aurrerapen handiak etorri baitira; eta bestea, iraunkortasunaren arloan, ekonomia zirkularrarekin zerkusi duten gaitetan aukera berriak bilatuta.

EROSKIk 100 milioi baino gehiago inbertituko ditu eraldaketa teknologikorako programa batean; izan ere, abangoardian diren teknologiak baliatuta, erosketa esperientzia erosoagoa, lasterragoa eta pertsonalagoa izango da.

EROSKI-REN HELBURU NAGUSIETAKO BAT DA PREZIOEN LEHIKORTASUNAREN ALDE APUSTU EGITEA

EROSKI-REN SASKIAK %1,14KO BARIAZIOA IZAN DU AURTEN, ETA KPI-AREN IGOERA BERTINDU

EROSKI-K NAHI DU KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA ESPERIENTZIA HOBETZEA

Beste 160 denda datozen hiru urteetan

Datozen hiru urteetan beste 160 denda irekiko ditu EROSKIk, formatuak bezereen beharretara egokituta. Gaur egun, 1.500 denda propio eta frankiziatu ditu. Denda propioei dagokienez, fokalizatuta daude iparraldeko perimetroan; helburua da 2024rako beste hamaika irekitzea. Frankizia hartzaileen kasuan, helburua da urtean 60 denda irekitzea. Formatu komertzialek eboluzionatu egingo dute merkaturako joera berrieta, eta horrek denden erakargarritasuna eta errentagarritasuna bermatuko du. Saltoki berriek izango dute EROSKIren langile taldearen talentua, horiek baitira oinarri kooperatiboa duen enpresa honetako protagonistak. Aniztasunaren eta autogestioaren alde egiten du apustu, eta beste 1.000 lagun pasa batuko ditu euren talentu eta gaitasunekin.

MONDRAGON Korporazioak Aretxabale-tako Otalora jauregian duen egoitzan egiten du lan Iñigo Iñurrategik (Bergara, 1973). Taldeko kooperatibetako langileak, zuzendariak zein arduradunak prestatzeko zentroko kidea da.

Nortzuk eta zertara etortzen dira Otalorara?

Profil askotariko jendea etortzen da. Batetik, arlo kooperatiboko ikastaroetara datozenak: bazkideak zein organoetako kideak. Bestalde, ikastaro egiturarik ez izan arren, kooperatibetako kideek gai berezituak lantzeko beharrak izaten dituzte aldiro, eta haietako foro eta programak antolatzen ditugu: genero, ingurumen inpaktu, zibersegurtasun, gobernantza, talentu zein digitalizazioari buruzko parte-hartze foroak, adibidez. Horietarako, batzuetan, kanpotik ekartzen ditugu gaian adituak, eta, beste batzuetan, guk egiten ditugu. Azkenik, bilerak egitera edo lanera etortzen dira kooperatibetako kideak zein MONDRAGONeko dibisio eta korporazio-ko organoetako ordezkariek, eta bilgune edo lanleku bezala funtzionatzen dute, esaterako, bazkideekin, bezeroekin edo beste aliatu batzuekin elkartzeko.

Bisitak ere izaten dituzue, ezta?

Bai; kooperatiba taldearen jardura ezagutzera etortzen dira asko. Kooperatibek bezero, hornitzaile zein aliatuak ekartzen dituzte, batzuetan, eta, beste batzuetan, euren kabuz etortzen dira politikariak, kazetariak, ikasleak, ikerlariak zein kanpoko kooperatibetako kideak. Atzeritik 3.000 lagun etortzen dira urtean, mundu osotik. Bi lankide ditugu euren jardun osoa horretan ematen dutenak, mundu osotik datozen pertsonen harrera egin eta gure esperientzia kooperatiboa azal diezaieten. Atzeritik datozenen profila eta jatorria askotarikoa izan daiteke. Azken egunotan, esaterako, Brasilgo eta Kaliforniako kooperatibistak izan ditugu, eta Txinatik eta Quebecetik beste bisita mota batzuk izan ditugu, baita Jaurlaritzatik ere.

Doaneko zerbitzua da ala ordaindua? Otalora erabiltzearen, oro har, ordaindu egiten da: ikastaroak, gelen erabilerak, bazkariak... **Edozein motatako kooperatibek hartzen dute parte? Hau da, izan industrial edo zerbitzuetakoak?**

"Atzeritik 3.000 lagun etortzen dira urtean"

IÑIGO IÑURRATEGI OTALORA GARAPENERAKO ZENTROKO KIDEA

Milaka pertsona igarotzen dira urtero Otalorako formakuntza zentrotik. Ikastaroak jasotzera zein foroetara eta kooperatibaren esperientzia ezagutzera, besteak beste



Iñigo Iñurrategi, Otalora zentroaren aurrean.

"BADAGO KONTZIENTZIA KOOPERATIBOAREN BIZIBERRITZE INTERESGARRI BAT"

"IDENTITATE KOOPERATIBOA ETA KONPROMISOA LANTZEA AUKERATU DUGU"

Bai, noski; taldean era askotakoak ditugu eta denek hartzen dute parte.

MONDRAGONen balioak indartzeko ikastaroak dira?

Ikastaro batzuk beren beregi gure balioak eta izaera kooperatiboa lantzeko dira, eta besteetan, zeharka bada ere, gure izaera eta politika sozioenpresariala kontuan hartzen dira.

Datu batzuk ematearren: urtean zenbat enpresa eta zenbat langile pasatzen dira Otalorako zentrotik ikastaroak jasotzera?

1.400 pertsona inguru etortzen dira urtero arlo sozietarioko ikastaroetara, eta 800-1.000 artean komite zein foro espezifikotara. Kanpotik etortzen diren bisitak, berriz, 3.000 inguru izan ohi dira urtero. Horrez gain, zenbakirik ez daukagun arren, gehitu behar dira kooperatibek euren kabuz antolatutako bilera edo lan-saioetara etortzen diren pertsonak. Denera, urtero hemendik pasatzen diren pertsona kopurua kalkulatzeko, Otalorako jantokian bazkari kopuruari erreparatzea besterik ez dago: aurten 12.500 bazkari ematea aurreikusten dugu. Bertara etortzen direnentzako bakarrik dago irekita jatetxea.

Kooperatibista izaera, balioak, identitatea, ardurak, zereginak... ondo barneratuta daude gaur egungo kooperatibisten artean eta kooperatibista horietako liderren artean?

Nik esango nuke momentu honetan badagoela kontzientzia kooperatiboaren biziberritze dinamika interesgarri bat, eta horretan gero eta hobeto gaudela. Gure aurreko erreferente guztiek azpimarratu izan dute

izaera eta balio kooperatiboak etengabe lantzearen beharra. Horri jarraituta, aurten, 2025-2028ko aldirako politika sozioenpresarialean definitu ditugun lau ardatz estrategikoen artean berriz ere identitate kooperatiboa eta konpromisoa lantzea aukeratu dugu, balio kooperatiboak egunerokoan bizitzea. Beraz, kontua ez da orain ondo barneratuta dagoen edo ez, baizik eta beti izango dugula hori landu beharra. Balio kooperatiboak, interes kolektiboa, elkartasuna, ekintzaitza, erantzunkidetasuna, autogestioa... ez direlako gure gizartean modan dauden balioak, eta, kontzienteki eta sistematikoki landu ezean, zaila da konpromiso eta atxikipen ideologiko maila egokia mantentzea.

Zeintzuk dira, egun, zure esperientzia kontuan hartuta, MONDRAGONeko kooperatibetako arduradunen kezkek?

Gure egunerokoan kooperatibatik kooperatibara kezka mota ezberdinak ditugu: batzuk euren proiektuaren bideragarritasunarekin kezkatuta egon daitezke eta beste batzuk, aldiz, proiektu berriek eta hazkunde erronkek sortzen dituzten zailtasunekin. Baina burua altxa eta talde bezala aurrera begiratuta, politika sozioenpresarialean definitutako erronka eta ardatz estrategikoak dira gure kezka nagusiak.

Zeintzuk dira definitu dituzuen erronka horiek?

Gure kooperatibek, bakoitzak bere arloan, lidergo posizioak lortzea, lehiakorrak eta kooperatiboagoak izanez; modu horretan lortuko dugu lanpostuak mantendu, sortu eta aberastu suna banatzea eta Euskal Herriaren eraldaketa sozialerako funtsezko eragile izaten jarraitzea. Horretarako, balio kooperatiboak indartu, gobernantza hobetu, negozioak eraldatu eta zentzu guztietan jasangarri bihurtu nahi dugu, interkooperazioa indartuz eta sare berriak sortuz. Hori guztia, inpaktu soziala handitu eta hurrengo belaunaldiei ondare hobea eskaintzeko. Gai horiek nola landu eta lortu da gaur dugun kezka nagusia. Gaur egun, kontziente gara aurrean daukagun lana handia dela, baina lantaldeetan ilusio eta konpromiso maila handia ageri da. Beraz, bagabiltza. Eta jarraituko dugu.

"Gobernantza moldatu egin behar dugu, FAGOR ere aldatu delako"

JOXEAN ALUSTIZA USANDIZAGA FAGOR TALDEKO PRESIDENTEA

60 urte baino gehiago dira FAGOR TALDEA sortu zenetik, eta nabarmen hazi da ordutik. Garai berrietara egokitzeko, gobernantza eredua berritzeko prozesuan murgilduta dago, Alustizak azaldu duenez. Prozesua beharrezkoa dela dio presidenteak, FAGOR-en kooperatiba eredua iraunkorra izan dadin

Zortzi kooperatibaz osatuta dago FAGOR TALDEA. Guztira, 10.403 langile ditu Euskal Herrian eta nazioartean, 70 egoitza baino gehiagotan banatuta. Urte luzeetako ibilbidearen fruituak dira: 1964an sortu zen, Ularco izenarekin, eta ordutik etengabe hazi da. Orain, ordea, hamarkadetan baliatu duten gobernatzeko erak "eguneraketa bat" behar du, Joxean Alustiza FAGOR TALDEKO presidentearen arabera. Garai berrietara egokituko den gidaritzak bat sortzeko prozesuan buru-belarri dabil Taldea, Arrasateko eredu kooperatiboaren iraunkortasuna bermatzeko urrats berri bat eginez. "FAGOR-i ez ezik, eredu kooperatiboari berari ere egin diezaiokete ekarpena prozesuak", azaldu du.

Gobernantzaren inguruko hausnarketa prozesuan murgildurik da FAGOR; garrantzitsua da gobernantzaz hausnartzea?

Bai. Edozein erakunde, enpresa edo elkarte bere irizpideak ditu gobernantzarako. Haiek, euren izaera eta balioekin bat egitez

aparte, eraginkorrak izan behar dute. Kooperatibetan, bertako kideok langile eta jabe garen heinean, garrantzi berezia hartzen du araudiaren definizioak eta aplikazioak, denon artean hartzen ditugulako erabaki horiek. Hala ulertu zuten kooperatiba talde honen fundatzaileek duela 60 urte, eta energia handia eskaini zioten araudi horiek behar bezala egin eta gorpuzteari. Kontua da hainbat arlotan

"AZKEN URTEETAN ASKO ALDATU DIRA GIZARTEA, OHITURAK, MUNDU IKUSKERAK, KOOPERATIBAK..."

"GURE GOBERNATZEKO ERA OSOTASUNEAN BERRIKUSTEKO MOMENTUA DA"

gure gobernatzeko era ez dela aldatu hamarkadetan, eta, 60 urteren ostean, badela momentua FAGOR-eko gobernantza eredua bere osotasunean berrikusteko. Eta hori da egiten ari garena. FAGOR-eko kooperatibak hazi egin dira, munduan zehar egoitza ugari dituzte, bazkideen nahi eta beharrak guztiz bestelakoak dira... Finean, azken hamarkadetan nabarmen aldatu dira gizartea, ohiturak, mun-

"KOOPERATIBETAKO ORGANOEK EUREN JARDUNA NEURTZEKO AUKERA DAGO MAHAI GAINEAN"

"OSO GARRANTZITSUA DA DALANGILEEN FORMAKUNTZARAKO BITARTEKO GEHIAGO ESKAINTZEA"

du ikuskerak, kooperatibak... Laburbiluz, gizartea eta kooperatiba bera ez dira lehen ziren berdinak. Gobernantza eredua moldatu egin behar dugu, FAGOR bera ere aldatu delako.

Zein puntutan da prozesua?

Urte hasieran lan-mahai bat osatu genuen hainbat presidentek, gerentek eta Kontseilu Sozialeko kidek. Lan mahai horrek gure kooperatiben gobernantza berrikusi du bere osotasunean, goitik behera, eta hori berritzeko hasierako proposamen bat landu du. Orain, urri bukaeran, proposamen hori zortzi kooperatibetako organoetako 300 kiderekin partekatu dugu: Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Batzordea eta Kontseilu Soziala osatzen dutenekin. Haien iritzi eta ekarpenak jaso nahi ditugu. Deliberazio prozesu horri garrantzia eman diegu, uste baitugu denoi dagokigula etorkizuneko gobernantza markoa definitzea.

Hainbat hausnargai izango dituzue... Zeintzuk dira nagusiak?

Edozein kooperatibaren gobernantzan dauden bi alor ezberdin identifikatu ditugu: batetik, gobernantza mekanismoak; eta, bestetik, gobernantza dinamika. Mekanismoei dagokienez, landu beharreko zenbait arlo identifikatu ditugu. Hasierako garaietan ez zeuzkaten erronkak daukagu gaur egun, kooperatibak handitu egin direlako. Erronka horiek identifikatu ditugu, eta soluzioa oraindik ez daukagu esku artean, baina bazkideei galdetu nahi diegu zer iritzi duten eurek.

Zeintzuk izan dira identifikatu dituzuen berrikusi beharreko mekanismoak?

Hainbat dira. Batetik, gure organoetako kideen formakuntzan

eta gaitasunean sakontzeko beharra ikusi dugu. Organoetan erabaki inportanteak hartzen dira eta uste dugu bertan dauden pertsonak behar bezala formatuta egon daitezkeen bitartekoak eskaintzea garrantzitsua dela, erabaki inportante horiek hartzeko lagungarri liratekeenak. Kooperatiben kudeaketan jardun aurretik beste lan batzuk izaten dituzte, askotan zerikusirik ez dutenak, eta gobernantza organoetara pasatzen direnean ardura horiek betetzeko prestakuntza egokia behar dutela iruditzen zaigu. Bigarrenik, kooperatibetako presidenteen lan baldintzei erreparatu diegu. Sorreratik, handitu egin dira presidentea izatea egokitzen zaionaren ardurak, eta hasierako berak dira euren lan baldintzak. Hori ere berrikusi egingo dugu. Bestalde, administrazio organoetan kanpo kontseilariak egoteko aukera ere aztertuko dugu, gai zehatz batzuetan jakintza espezifikoa eskaini dezaketenak. Ikuspegi hori lagungarri izan liteke erabakiak hartzeko. Bukatzeko, batzar nagusien eta kontseilu sozialen antolaketari buruz hausnartu dugu. Gure kooperatibak asko hazi dira, eta oso zaila da, adibidez, dimentsio batetik gorako kooperatibetan batzar bat egitea, edo horietan sor litezkeen eztabaidak era egokian eta eraginkorrean kudeatzea. Bilkura horiek egiteko beste modu batzuk asmatzeko aukera ere mahai gainean dago; betiere, bazkide guztiek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea bermatuta.

Gobernantza dinamika ere aipatu duzu.

Ezinbestekoa da kooperatibetako hiru organo nagusien –Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Batzordea eta Kontseilu Soziala– dinamika propioa eta euren arteko harremana zaindu eta lantzea. Organo bakoitzaren funtzioak –zereginak–, rolak –jardutako moduak– eta erantzukizunak definitzearekin batera, hura osatzen duten kideen formakuntzaren aldeko apustu garbia egiten da proposamenean. Ostera, aldiari, kooperatibetako organoek euren jarduna ebaluatzeko eta organoen arteko harreman kalitatearen jarraipena egiteko bitartekoak eskaintzeko proposamena dago mahai gainean.



Joxean Alustiza, FAGOR-en Arrasateko egoitzaren aurrean.

Hausnarketak emaitza bat izango du, ezta? Nola hartuko duzue azken erabakia?

300 lagun horiei proposamena eginda, bakoitzak bere organoan aztertuko du. Horren ondoren, euren ekarpenak egingo dituzte, eta ekarpen horiek jaso eta aztertu ostean onartuko da FAGOR-eko gobernantza aldatzeko behin betiko proposamena. Gero,

aldaketa horiek gauzatzeko beharrezkoak diren urratsak egingo dira. Adibidez, barne arautegian eta estatutu sozialetan aldaketak egin behar badira, kooperatiba guztietan bozkatu eta erabakia erreferendum bidez hartuko litrateke, *persona bat, boto bat* printzipioari jarraituz. Esan moduan, prozesu honetan garrantzi be-

rezia emango diogu kontraste faseari, eta denon artean diseinatuko dugu aurrera begirako bide orria.

Beraz, prozesuak, FAGOR-i ez ezik, eredu kooperatiboari ere egingo lioke ekarpena...

FAGOR errealitate kooperatibo handia eta erreferentziala izanik, iruditzen zait ekarpen bat egingo diola egungo eredu koo-

peratiboari. Baliteke beste kooperatiba askok FAGOR-ek egiten duen errealitatearen irakurketa bera egitea: aspaldi sortutako kooperatibak izatea eta egungo testuingurura egokitzeko beharra identifikatzea. Edozelan ere, uste dut garrantzitsua dela bakoitzak bere barne ereduaren inguruko hausnarketa egitea eta erabaki

propioak hartzea, norberaren errealitateari erreparatuta, eta ezaugarri propioak kontuan hartuta.

Prozesu honekin bukatutzat emango duzue FAGOR-en gobernantza-zen gaurkotzea?

Ez. Momentuz, egin duguna, gure kooperatiben gobernantza aztertea izan da. Baina beste bi alorretara ez gara iritsi, eta aurrerago landu beharko ditugu: batetik, Taldearen beraren gobernantza. Esan bezala, zortzi kooperatibek osatzen duten Taldea gara eta horien gobernantza aztertu dugu prozesuan, banaka, baina guztien arteko gobernantza lantzeke geratu zaigu. Bestalde, Taldeko kooperatibak jada ez dira lehen zirenak. Lehen, Euskal Herrian genituen egoitzak. Orain, Euskal Herrian ditugu egoitza nagusiak, eta hemen ditugu bazkide gehienak, baina baditugu filialak nazioartean. Hori ere landu beharko dugu.

Kooperatibagintzak ba al du etorkizunik?

Uste dut baietz. Kooperatibagintza munduan zehar zabaltzen ari da, eta geroz eta gehiago dira modu horretan funtzionatzen duten enpresak. Uste dut kooperatibek, orokorrean, etorkizun sendoa dutela. Hala ere, gureari dagokionez, galderak beste bat izan behar du: gure kooperatiben eredura etorrira, elkartasunean, interkooperazioan eta konpromiso sozialean oinarritutako kooperatibismo arduratsu eta erreferentzialak badu etorkizunik? Baietz esango nuke, baina hori da, hain zuzen, gure erronka, eta ez da erraza. Hori lortzera bidean egin dugu gobernantzaren inguruko hausnarketa ere.

Harrera kooperatiboan sakontzen

FAGOR harrera kooperatiborako prozesua eguneratzen ari da. Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren eta FAGOR-en ibilbidearen –sorrera, bilakaera, gaur egungoa...– ingurukoak lantzen ditu kide berriekin. "Belaunaldi berriak dira FAGOR-en oraina eta etorkizuna, aurrera begirakoa marraztuko dutenak. Kooperatiben izanean eta zertarakoetan sakontzeak lagunduko du unean unekora moldatze horretan kooperatibagintzaren

erroei eusten", azaldu du FAGOR TALDEko presidentek.

Proba pilotu bat izan du martxan azken urtean, Lanki kooperatibismoaren ikertegiarekin elkarlanean. Online formakuntza eta aurrez aurreko saioak tartekatuta, bazkide berriei haien formakuntza prozesua nahieran antolatzeko aukera eskaintzeko. Formakuntza ereduak beste kooperatiba batzuetara zabaltzeko aukera eskaintzea da asmoa.



Joxean Alustiza, FAGOR-en harrera kooperatiboaren gaineko lan-saio batean.

"IKERLANen misioa da teknologia garatzea eta enpresei transferitzea"

ION ETXEBERRIA IKERLAN ZENTRO TEKNOLOGIKOKO ZUZENDARI NAGUSIA Mondragon Korporazioko ikerketa zentroak 1974az gerotik balio teknologikoa ematen die enpresei

Mende erdia ospatzen ari da IKERLAN urte osoan. Besteak beste, erakusketa ireki berri dute Arrasaten, direna eta egiten dutena herritarrekin partekatuzeko.

Irailean ekitaldi berezia egin zuten Amaia antzokian; maiatzean herri festa bat; Kooperatiben Kontseiluaren aitortza jaso duzue, erakusketa duzue ikusgai Kulturaten...

Amaia antzokikoa oso hunkigarria izan zen. Hainbat testigantza egon ziren; adibidez, gure lehen lehendakari izan zen Javier Retegirena. Maiatzean egin genuen jaia ere berezia izan zen, arrasatear guztiekin ospatu genuelako. Eta erakusketa, benetan ikusteko modukoa da.

Orain arteko lehendakari eta zuzendari nagusi guztiak omendu zenituzten irailen.

Bai; IKERLANetik milaka pertsona pasa dira eta ezinezkoa zen guztiak oholtza gainean egotea. Enpresa pertsona horien ordezkarezekin irudikatu genuen. Nire ustez, Mondragon estiloa bezala ezagutzen dugun lan egiteko moduan dago arrakasta. Sakonean, zehaztasunarekin,

ondo egindako lana. Joxe Mari Ormaetxeak lideratu zuen hura IKERLAN sortu aurretik, eta Europa mailan zeuden hainbat zentrotara bidaiatu zuten; bertan lan egiteko modua eta zentro motak ezagutu, eta ikerketa bat egin zuten. Arrasatera ezagutza hura ekarri eta IKERLANek gaur egun duen erdua diseinatu zuten. Ikerketaren eta transferentziaren artean oreka bat bilatuz.

Hori guztia, enpresei berrikuntzan eta lehiakortasunean zabaltzen laguntzeko teknologia garatzeko helburuarekin.

Gure helburua eta misioa teknologia garatzea da, baina ez garatzea bakarrik, baizik eta enpresetara transferitzea. Enpresa horiei lehiakorragoak izaten laguntzeko, euren produktu, zerbitzu eta prozesuetan teknologia horiek lehiakorrago

"MONDRAGON ESTILOA BEZALA EZAGUTZEN DUGUN LAN EGITEKO MODUAN DAGO ARRAKASTA"

bilakatuko dituztelako. Guk egiten dugun ikerketa aplikatua da. Punta-puntako teknologiarekin lan egiten dugu, gaur egun etengabe entzuten den adimen artifizialarekin, digitalizazioarekin eta energiarekin lotutako teknologiek. Horren helburua da enpresara eraman eta enpresak teknologia horren bidez bere produktuak eta zerbitzuak hobetzea eta baita enpresa berriak sortzea ere.

Enpresak, izan Mondragon Taldekoak nahiz edozein motatakoak?

Gaur egun gure bezeroen artean %50, erdia, kooperatibak dira eta beste erdia ez dira kooperatibak. Geografikoki oso errotutako enpresa bat gara, mundu mailako konpainiekin egiten ditugu ikerketa proiektuak. Batik bat, Europako unibertitate eta zentroekin. Baina, gero, transferentziaren %80 EAE mailan egiten dugu; bereziki, Gipuzkoan. Orokorrean, gure misioa da gure inguruko enpresei herrian aberastasuna sortzen laguntzea teknologiararen bidez. **Berrikuntzaren zurrunbiloan, IKERLAN ere, punta-puntan egoteko, une oro berritzen doa?**



Ion Etxebarria, IKERLANeko zuzendari nagusia, Arrasateko egoitza nagusian.

Urtero, 13 milioi euro inguru inbertitzen ditugu ikerketan; hau da, teknologiak garatzen eta gureganatzen. Hor hiru zutabe nagusi ditugu: lehena, digitalizazioarekin eta adimen artifizialarekin lotutakoa; biga-

"13 BAT MILIOI EURO INBERTITZEN DITUGU URTEAN TEKNOLOGIAK GARATZEN ETA GUREGANATZEN"

rrena, elektronikarekin eta zibersegurtasunarekin lotutako teknologiak; eta hirugarrena, mekatronikarekin eta energiarekin lotutakoa.

420 laguneko lan taldea osatzen du IKERLANek, eta egoitzak ditu Arrasaten, Donostialdean eta Bilbon; zeintzuk dira aurrera begira aurreikuspenak?

Zifrak baino garrantzi handiagoa du gauzak egiten ditugun bezala egiten jarraitzeak. Koherentziarekin, enpresei eta gizarteari balioa ematen eta harrobian inbertitzen.


 ikerlan

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Ikerketaren bidez, ezagutza transferitu, enpresei balioa eman eta pertsonak trebatzen ditugu.

www.ikerlan.es





Aitzol Loyola eta Marixe Ruiz de Austri, LANKIko ikertzaileak.

"Erantzukizuna eta elkartasuna dira kooperatiben oinarriak"

AITZOL LOYOLA ETA MARIXE RUIZ DE AUSTRI LANKI IKERTEGIKO KIDEAK LANKI, MUko kooperatibismoaren ikertegia, Huzezi fakultatean kokatzen da. Kooperatibismoari buruzko ikerketa eta hezkuntza kooperatiboa da bertako jarduna

Gaur egungo kooperatiben eta kooperatibetako erantzukizun kulturaren gaineko ikerketa egin dute Loyolak eta Ruiz de Austri. Elkarrizketa honetan eman dituzte ikerketaren nondik norakoak.

Kooperatibismoa duzue aztergai LANKI ikertegian, eta azken urteotan erantzukizunaren kultura ikeretzen aritu zarete; zergatik?

Kooperatibismoa, pertsonen burujabetzan oinarritzen denez, eredu oso exigentea da erantzukizunari dagokionez. Gaur egun, bi errealitate aurki ditzakegu: batetik, bazkideen erantzukizun maila handia erakusten duten esperientziak ditugu; bestetik, kooperatibetan badago ere pertsonen erantzukizuna indartu behararen sentipena. **Nola egin duzue ikerketa?**

Abiapuntuko galdera hau izan da: posible da gaur egungo kooperatibetan bazkideen erantzukizunaren kultura hedatzeko baldintzak sortzea? Metodologia kooperatibetako eragileekin lanikidetzan aritzea izan da. Kooperatibista jubilatuen, egungo arduradunen eta bazkideen hausnarketak dira ikerketaren funtsa. **Erantzukizuna kooperatibismoaren oinarritzko balio gisa definitu duzue.**

Horrela da. Kooperatibismoaren esentzia bi balio nagusitan sintetizatu beharko bagenituzke, bi hauek azpimarratzen ditugu: erantzukizuna eta elkartasuna. Pertsonen erantzukizuna eta elkartasuna erdigunean jarri, eta enpresa eta gizartea eraldatzeko sortu ziren enpresa kooperatiboak.

Gaur egungo errealitatera ekarrita, kooperatibetan nola landu daiteke pertsonen erantzukizuna?

Ikerketan hiru ildo nagusi garatu ditugu: batetik, nola ulertu da erantzukizuna pentsamendu kooperatiboan?; bestetik, zertan zehaztuko genituzke gaur egun bazkideen erantzukizun portaerak?; azkenik, zein arlo kudeatu behar dira kooperatibetan pertsona erantzuleak sustatzen dituzten erakundeak izateko?

Batetik, pertsonen erantzukizuna elikatzeke errelato kooperatibo bat eraiki nahi izan dugu. Bestetik, gaur egungo errealitatea aztertzeke bi foku uztartu ditugu: bata, kooperatibek dituzten erronka nagusien harira bazkideek izan beharreko portaera erantzuleak definitzea; bigarrena, jarrera erantzule horiek sustatzeko kooperatibek kudeatu behar dituzten arloak identifikatzea.

Beraz, portaera zehatzak zehatzen dira ikerketan.

Kooperatibek dituzten erronken harira definitu ditugu erantzukizun portaera zehatzak: enpresaren errentagarritasunarekiko, finantzazioarekiko, kualifikazio profesionalarekiko eta gobernanta kooperatiboaren funtzionamenduari. Arlo bakoitzean pertsonen erantzukizuna zein portaera zehatzetan gauzatu den definitzen saiatu gara. **Bestetik, kooperatibek kudeatu beharreko arloak aipatu dituzue.**

Bai, pertsonen erantzukizun portaerak sustatzeko kooperatibek ere testuinguru egokiak sortu behar dituzte. Begirada horretatik, kudeatu beharreko zazpi arlo aztertu ditugu: 1. Gobernanta kooperatiboaren funtzionamendua; 2. Informazio-komunikazio estiloa; 3. Proiektu kooperatiboaren definizioan bazkideen parte-hartze bideak; 4. Hezkuntza kooperatiboa; 5. Lana antolatzeko ereduak; 6. Lidergo estiloak; 7. Enpresaren gizarte funtzioa. Abiapuntuko galdera hau izan da: nola ulertu behar dituzte kooperatibek arlo horiek pertsonen erantzukizun portaerak sustatzen dituzten testuinguruak sortzeko? **Ikerketaren ondorioak esaldi batean sintetizatu beharko bazenituzkete?** Ikerketaren ondorioak azaltzen dituen *Lanki koaderno*a sarean dago ikusgai. Esaldi bat: *Pertsonen erantzukizuna eta elkartasuna kooperatiben funtsezko oinarria da; horregatik, enpresa proiekturako gestio planak egiten ditugun moduan, pertsona eta balio kooperatiboak garatzeko gestio planak egin beharko genituzke.*

"ERANTZUKIZUNA ELIKATUKO DUEN ERRELATO KOOPERATIBOA ERAIKI NAHI DUGU"

"BALIO KOOPERATIBOAK GARATZEKO GESTIO PLANAK IZAN BEHARKO GENITUZKE"



Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia

XXI. MENDEKO KOOPERATIBISMOA ERAIKI.

- **Ikertu**, euskal kooperatibismoa eta Mondragoneko Esperientzia Kooperatiboa.
- **Eragin**, hezkuntza kooperatiboaren bidez.
- **Sakond**, aholkularitza kooperatiben proiektu sozio-enpresariala garatzeko.

lanki.mondragon.edu

"ONNERA GROUP dena, hein handi batean, sortzaileei esker da"

EDUARDO CALVO ONNERA GROUP-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

ONNERA GROUP kooperatiba –nazioarteko enpresa-taldea– sukaldaritzarako, garbiketarako eta hotz-aplikazioetarako ekipamendu-soluzioak eskaintzen ditu

Askotariko sektore, merkatu eta herrialdeetan lider diren markak biltzen ditu ONNERA GROUPEk; besteak beste: Asber, Fagor Professional, Efficold, Edenox, Danube, Domus eta Primer. Produktuak bost kontinenteetan merkaturatzen dituen talde globala da. Zazpi fabrika ditu munduan zehar estrategikoki banatuta –Euskal Herrian, Espainian, Frantzia, Polonian eta Mexikon–, baita merkatu bakoitzera egokitutako soluzio ugari eskaintzeko gai diren 2.300 profesional baino gehiago ere.

Urte berezia da aurtengoa ONNERA GROUP kooperatibarendako, besteak beste, 50 urte betetzen dituelako; nola ari da ospatzen kooperatiba urrezko ezteiak?

Era berezian eta ilusioz ospatzen dihardugu urteurren hau, ekitaldien bidez proiektu hau posible egin duten eta egiten dutenei eskerrak emanez. Bazkide fundatzaileen testigantzeekin gure sorreraren lekukotza jasotzen duen liburu bat argitaratu dugu, gaur arte Fagor Industrial izan denaren gako nagusienak islatuz. Maiatzaren 10ean Jubilatuen Eguna ospatu genuen: bulego, lantegi eta *showroom*-era bisita gidatua egin, eta Arantzazun bazkari eder batekin borobildu genuen. Maiatzaren 24an, berriz, Batzar Orokorra egin genuen Oñatiko kiroldegian, eta bertan sortzaileei omenaldi bat egin zitzairen; bazkari erraldoi batekin bukatu zen. Eta Oñatiko herriarekin urtean zehar hainbat ekimenean parte hartuz ospatu dugu, hala nola Arantzazuko dokumentalaren estreinaldian parte hartuz edota Aloñako Igoeran babesle ofizial izanez.

Maiatzeko Batzar Orokorrean sortzaileak omendu zenituzten; nola joan zen?

Oso ondo. Gaur egun ONNERA GROUP dena sortzaileei esker da, hein handi batean. Orain 50 urte proiektu kooperatiboan sinistu, martxan jartzeko adorea izan eta esfortzuz eta konpromisoz aurrera eramanez zutelako. Egungo bazkideek legatu eder hau eskertu nahi izan diete omenaldi xume bezain bero batekin. **Batzar hartan beste erabaki garrantzitsu bat hartu zuten bazki-**

deek: enpresari izena aldatzea. Fagor Industrial bezala jaio zena ONNERA GROUP da gaur egun; Zer dela-eta izen aldaketa?

Aldaketaren xedea egungo egitura korporatiboa hobeto islatzea da, taldeak hainbat marka komertzial eta filial barne hartzen baititu. Eguneratze horrek identitate korporatiboa modu argian eta eraginkorrean komunikatzen lagunduko du.

Merkatu globaleko presentzia indartzen jarraitzea da ONNERA GROUPEn helburuetako bat; non, zein herrialdeetan, jarduten du, batik bat?

Espainian eta Polonian liderrak gara, eta Europako beste merkatu batzuetan pixkanaka hazten goaz hainbat sektoretan gure presentzia handituz. Gure hazkunde esanguratsua AE-Betan eta Mexikon izan da, batik bat.

370 milioi euroko fakturazio-zifra aurkeztu duzue azken Batzar Orokorrean; urte ona izan zen iazkoa?

Bai, 2023a urte ona izan da emaitza ekonomikoari dagokionez, ONNERA GROUPEko negozio guztietan fakturazio-zifra gestio plana gairatuta baitzuen. Eta nabarmentzekoa da, era berean, fakturazio horrek lortutako EBITDA, %12,6koa. Emaitza on honen atzetik pertsona talde konprometitu bat dago. Eta, bide batez, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet hau guztia posible egin dutenei.

Zein da aurreikuspena aurtengo?

"IZENAREN ALDAKETAREN XEDEA EGUNGO EGITURA KORPORATIBOA HOBETO ISLATZEA DA"



Eduardo Calvo, ONNERA GROUPEko zuzendari nagusia.

2024ko gestio planak fakturazio-zifrari dagokionez %2,5 haztea aurreikusten du; eta emaitza ekonomikoa portzentaje berean aurreko urtearekiko hobetzea. Ildo horretan, ONNERA GROUP osatzen duten filial guztien errentagarritasunean jarri dugu arreta. Momentuz, orain arteko eboluzioa jarraituta, lortu daitekeen helburua dela esan dezakegu.

Gaur egun, zein da ONNERA GROUPEn erronka nagusia?

Garapen iraunkorrean oinarrituta, berrikuntza eta tekno-

logian punta-puntako diren produktuak garatzen jardutea gure bezeroen beharrei hobe-kien erantzuteko.

Ingurunean txertatuta dagoen kooperatiba-enpresa da ONNERA; zenbateraino da garrantzitsua ONNERA taldearendako ingurune hurbilean eragitea?

Gure kooperatiba izaerari eta iraunkortasun estrategiari erantzunez gizartea eraldatzea da gure erronketako bat. Eta horretan dihardugu etengabe, gure inguruko proiektuak babestu eta lagunduz.

"IRAUNKORTASUN ESTRATEGIARI ERANTZUNEZ, GIZARTEA ERALDATU GURA DUGU"

ONNERA GROUP


ONNERA Group nazioarteko enpresa talde bat gara sukaldaritzaren, garbitegien eta hotz-sistema aplikatuen ekipamendurako soluzioak sortzen dituenak.

ZINTZOTASUNA · KONPROMISOA · TALDE GLOBALA · EKIMENA



asber

efficold*



DOMUS

DANUBE

Primer

Honako hau da Pello Rodríguez (Urretxu, 1975) MONDRAGONeko presidente kargua hartu eta bere ibilbide profesionalen garai berri bati ekin dionetik eman duen lehen elkarrizketa *-Tu Lankide* aldizkaritik eta webgunetik osorik jasota, hemen-. Energia eta ilusio dosi handiekin iritsi dela dio. Haren bulegoan hartu gaitu, Udalatxera eta Anbotora begira leiho ikusgarriak dituen espazio zabalean.

Hizketaldiaren ardatza datoren lau urteetarako ibilbideari buruzkoa da, haren agintaldiaren ardatza izango den dokumentuaren gainekoa. Daukan eginkizunaren aurrean eroso, ziur eta konprometituta dagoela antzematen da. Harentzat MONDRAGONeko presidentea izatea ohorea dela eta proiektuari bultzada berri bat emateko indar guztia jarriko duela azaldu digu. **Nolakoak ari dira izaten lehenengo aste hauek?**

Lurreratzea ona ari da izaten. Kontseilu Orokorrean urte asko daramatzat eta MONDRAGONeko gaiak ezagunak zaizkit. Gainera, Iñigorekin [Uzin] egindako eskualdatzea oso ona izan da, eta uda lasaia. Eta, arlo pertsonalari dagokionez, suabe eta kontrolpean.

Kargu honetarako zu izendatu izanaren inpaktua nola daramazu?

Batzar Nagusian azaldu nuen abenduan sentitu nuena... Sabelean nuen korapilo batez mintzatu nintzen, eta oraindik hor jarraitzen du... baina orain txikiagoa da. Batzar Nagusiaren aurreko egunetan tentsioa dezentekoa izan zen, lehen agerraldi hura prestatu behar nuelako. Baina batzarra hasi eta hitzaldia egiteko aukera izan nuenetik, oso ondo sentitu nintzela aitortu behar dut. Eta oso feedback positiboa jaso nuen, asko poztu ninduen. Azterketa gaitu izanaren tentsioa geratu zitzaidan.

Zein lehen balorazio egin diezagukezu politika sozioenpresarialaz kudeaketa-erreminta gisa?

Nire ustez, kooperatibetan egiten diren plan estrategiko guztientzat aterkia izan behar du. Eta aterki horrekin guztiok estaltzea lortu behar dugu. Hala, dibisio bakoitzeko plan estrategikoen politika horretan zehazten gabiltzan estrategiak jaso behar dituzte, eta poliki-poliki

"Ilusioz betetako nago, MONDRAGON proiektu liluragarria baita"

PELLO RODRIGUEZ 'MONDRAGON'-EKO KONTSEILU OROKORREKO PRESIDENTEA
Abuztuaren 1a ezkerreko, MONDRAGONeko Kontseilu Orokorreko presidentea da Pello Rodríguez; orain arte presidente kargua hartzen gazteena da

kooperatiben kudeaketa-planetan islatu behar dira. Asmoa da politika sozioenpresariala dibisioen plan estrategikoen lotzea eta kooperatiben ardatz estrategikoetan eta kudeaketa ardatzetan lurreratzea. Hori da hurrengo lau urteetarako erronka.

"POLITIKA SOZIOENPRESARIALEA DIBISIOEN PLAN ESTRATEGIKOEN LOTZEA DA ASMOA"

"NEGOZIOEK BILAKAERA ONA IZAN BEHAR DUTE, ETA MUNDUA DAGOEN MODUAN DAGO"

Politika estrategikotik kudeaketa eraginkorrera igarotzea. **Zer nabarmenduko zenuke dokumentu horretatik?**

Lehenik eta behin, ardatz estrategikoen eguneraketa. Lehengo zazpi ardatzetatik gaur egungo lauretara pasa gara: Nortasun Kooperatiboa, Etorbizuneko Negozioak, Irekiera eta Inpaktu Soziala, eta Interkooperazioa. *Irekiera eta Inpaktu Sozial* kontzeptuak aipamen berezia merezi du; izan ere, errentagarriak izango diren negozio berriak egiteko, bestelako korporazioetara zabaldu behar dugu eta gure esperientziara batu daitezkeen proiektuak aztertu, ezinezkoa delako MONDRAGONen guztiaz jakitea. Hortaz, irekiera ezinbestekoa da. Inpaktu sozialari dagokionez, erreferenteak izan gara, adibidez, lanpostuak sortzen, berdintasunezko komunitateak eraikitzen, elkartas-

nean, euskalduntzean; eta orain, geure buruari galdetu behar diogu zertan izan nahi dugun erreferente hurrengo urteetan inpaktu sozialarekin lotutako gaietan. Arlo asko daude, eta, horietakoren bat aipatzearren, etorkinak gizarteratzearena



Pello Rodríguez.

ekarriko nuke hona. Zeregin hori ondo egiten erreferenteak izan nahi dugu? Bai, jakina. Bada, hausnartu, eztabaidatu eta inpaktu sozialaren alorrean erreferente izan nahi dugun horren norabidea zehaztu behar dugu.

Politika sozioenpresariala kooperatibetan nola lurreratuko den omen da gakoa; zein ekintza daukazu aurreikusita hori gauzatzeko?

Kanpo komunikazioari begira lehen 100 eguneko etena baliatuta, barne komunikazioan nabil buru-belarri. Lehenik eta behin, politika sozioenpresarialaren edukia azaltzen. Izan ere, MONDRAGONen, Batzarrean parte hartzen dugunak baino askoz gehiago gara. Horregatik, MONDRAGONeko batzordeetan, finantza foroetan, pertsonenetan, dibisioetan... parte hartzen nabil. Eta hementi arte foro horietara guztietara joateko ahalgin sutsua egingo dut, neure burua aurkeztu eta politika hau aurkezteko. Gainera, ildo bereetik, Kontseilu Orokorrean eta Batzorde Iraunkorren ardatz estrategiko bakoitza garatzeko lehentasunak zehaztu, dibisioekin eta kooperatibekin kontrastatu eta horiek nola gauzatu asmatzeko prozesua jarri dugu martxan. Horren bitartez kooperatibetara helduko garen ustea daukat; eta, horrela, finantza izango ditugu 2025erako egiteko zehatzak, hurrengo epealdiko kudeaketa-planetan egikaritu ahalko direnak.

Nahikoak izango dira hiru hilabete hauek politikaren sozializazioa gauzatzeko?

Sozializazioak etengabekoa izan behar du, bai edukien transmisioan zein entzutean. Urriketik abendura bitarteko esprinta egingo dugu, eta ikusiko dugu denbora gehiago behar den. Ez dugu ahaztu behar azaroaren 22an MONDRAGON Foroa egingo dugula eta arreta politika sozioenpresarialean eta horren zabal-kunde jarriko dugula; aukera ezin hobea da kooperatibetako eta dibisioetako arduradunekin gai horiek partekatzeak.

Orain dela urte batzuk, mota horretako dokumentuetan MONDRAGONen lau urteko aurreikuspena erakusten zuten proiektio kuantitatiboak jasotzen ziren; nola irudikatzen duzu 2028ko MONDRAGON? Zenbakien alorrak garrantzia dauka, baina lau urteko ziklo

batean argazki kuantitatibo hori nabarmen aldatu dezaketzen gertaera asko jazo daitezke. Horregatik, hobe da alderdi kualitatiboaz hitz egitea, eta baita ere hizketagai izatea zeintzuk diren aurreikusitako etorkizun horren aldeko apustu estrategikoak. Espero dut 2028an bide horren zatirik handiena ibilia izatea, nahiz eta erraza izango ez den. Negozioek bila-kaera ona izan behar dute, eta mundua dagoen moduan dago. Europaren kasuan, guretzat esparru giltzarria dena, AEBekin eta Txinarekin alderatuta atzean gelditzen ari da. Horrek gure negozioetan inpaktu eta eragina izango du. Guk gizartea lanaren bitartez eraldatzen dugu, eta, horregatik, ezinbestekoa da gure negozioek funtzionatzea. Gainera, irekiera eta inpaktu soziala gisako beste arlo batzuk ere definitu ditugu; hortaz, 2028an arlo horietan aurrerapen garrantzitsuak egin behar ditugu. Horixe espero dut.

Hortaz, esan dezakegu irekiago, kooperatiboago, gizarteari egiten dion ekarpena kanpoan hobe ezagutzera emango duen eta hirugarrenekin lankidetzarako prestutasun handiagoa izango duen MONDRAGON bilakatuko dela?

Erabat, baina horretarako lanean jarri behar dugu. Egiteko asko daukagu MONDRAGON kanpoan gehiago ezagutu dezaten, bai Madrilin zein Euskal Herrian. Elkartasuneko interkooperazio erremintak –birmoldaketa eta birkokapena– ere oso garatuta ditugu, baina badira gehiago sustatu beharreko beste interkooperazio batzuk. Adibidez, MONDRAGONeko Finantza Batzordea, hamabi dibisio barne dituena, interkooperazio hutsa da; beste korporazio ba-



MONDRAGONeko presidentea, korporazioak Arrasaten duen egoitzan, Olandixon.

tzuek ez dituzten eta indartu behar ditugun altxorak dira lankidetzaren horiek. Sektore berrietako aliantza politikan ere badugu egitekorik. Adibidez, ez daukagu presentzia esanguratsurik energiaren sektorean, eta, aliantzak zabaltzen baditugu, teknologia eta negozio berrietara sarbidea izan dezakegu. **Gaur egungo geopolitika kontuan hartuta, politika sozioenpresarialaren ardatz estrategikoak ustekaberik gabe garatu ahal izango ditugula uste duzu?**

Negozioen alorrean ustekabeak ohikoak dira. Inoiz ez dira prozesu linealak izaten. Albistegiak ikustea nahikoa da eraldatzen ari diren negozio asko daudela jabetzeko. Adibidez, auto elektrikoa. Gu sektore horretan hornitzaile gisa gaude, eta ustekabeak egongo dira, seguru. Baina bizkorrak eta malguak izan behar dugu, eta egoerei

aurre egiteko aukerak non agertzen diren ikusteko abilak. **Erronka horiei guztiei aurre egiteko gogoz eta indarrez?**

Jakina! Ilusioz beteta nago. Ezer ez egitea erabaki bat da, baina uste dut hobe dela gauzak egitea. Ez dezagun ahaztu ekintzaileak

"DISFRUTATU EGIN NAHI DUT; 'MONDRAGON'-EN GERTUTASUNA AURKITU NAHI DUT"

"NIRE GAZTETASUNA BALIATU NAHI DUT PROIEKTU HONI MEREZI DUEN BULTZADA EMATEKO"

garela, enpresariak garela eta hurrengo belaunaldiei legatu hau hobetuta uzteko lan egiteko erantzukizuna daukagula. Hortaz, pentsatu dezagun etorkizuneko negozioetan, errentagarriak izango diren negozioetan. Apustua egin behar da: urteak daramatzagu sustapen funtsekin lan egiten *star-tup*-ak laguntzen; gehiago egin behar dugu, hortik ere gauzak irtengo direlako.

Ze helburu duzu agintaldirako?

Pertsonalki, disfrutatzea. Eta MONDRAGONen barruan biltzen ari naizena gertutasuna da: negozioek, kooperatibek eta dibisioek ikus dezatela MONDRAGONek egiten dien ekarpena, elkarrekin lotura estuagoa lor dezagun, eta bizipenean ere urruti egotearen sentsazioa ezabatu nahi nuke. MONDRAGON denok gara; beraz, denon artean egin dezagun egin beharrekoa.

Eta horretarako gertutasuna ezinbesteko osagaia da. **MONDRAGONen presidentea izateaz zer da zuretzat?**

Ohorea.

Bada, ohore hori eduki duen presidenterik gazteena zara...

Gazteena naiz, bai, egia da. Positiboa da, nire ustez. MONDRAGONen tamainako beste enpresa batzuetan ikusi ditut ni baino helduagoak, eta nik "nire gaztetasunaz" baliatu nahi dut proiektu honi merezi duen bultzada emateko. Eta horretan jarriko ditut energia guztiak. Oso gustura hasi naiz, disfrutatzen ari naiz, giro ona dago, dibisioetan egin ditudan bilerak ondo joan dira... Guztiok gustura gabiltzan artean, aurrera!



Tu Lankide webgunean argitaratutako elkarrizketa ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

"EGITEKO ASKO DAUKAGU MONDRAGON KANPOAN GEHIAGO EZAGUTU DEZATEN"

"PENTSATU DEZAGUN ETORKIZUNEN NEGOZIOETAN, ERRENTAGARRIAK IZANGO DIRENETAN"



KOOPERATIBEN KONTSEILUA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



KOOPERATIBEK

ETORKIZUN HOBEA ERAIKITZEN
DUTE PERTSONA GUZTIENTZAT



kooperatibenkontseilua.eus

Zerga gehienak %3 igoko dira; zaborraren tasa, %35

Udal Gobernuak eta oposizioak akordioa lortu dute eta aho batez onartu dituzte igoerok. Oposizioak esan du fiskalitate "sustatzaile, justu eta berde" baterako akordioa izan dela, eta balioa eman beharrekoa dela

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako udal zergek eta tasek %3ko igoera orokorra izango dute 2025ean. Salbuespen esanguratsuen zaborraren tasan aplikatuko da; %35,57ko igoera. "Gehikuntza potoloa da, eta, igoera progresibo baten faltan, horrela beharko du; izan ere, Europako zuzentarau bati lotuta gaude", azaldu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Oposizioa Iker Lakak esan du EAJk erantzukizunez jokatuko duela gai horrekin, eta ez duela populismorik egingo. "Argi dugu legeak eskatzen duen igoera dela", esan du, baina honako hau gaineratuta: "Aurrezten den dirua bideratu beharko litzateke birziklatze tasak hobetzeko sensibilizazio kampaniak egitera edo hobariak jartzera".

Unzetabarrenetxea alkatearen erantzuna argia izan da: "Gu ere arduratuta gaude igoerak herritarrei ekarriko dien esfortzuekin. Ingurumenean inpaktu handia eragiteaz gain, sortzen dugun zaborra kudeatzeak kostu ekonomiko handia du. Hala, kanpaina indartsu bat prestatzen ari gara herritarrak kontzientziatzeko".

%3ko igoera orokorra

Oposizioak, bestalde, "egoki" ikusten du %3ko igoera orokorra. "Ikusi dugu iazko %1,9ko igoera pixka bat motz gelditu zela, eta aurrekontuaren oreka garrantzitsua da", esan du Lakak.

Unzetabarrenetxeak azaldu du bi salbuespen egongo direla: "Ondasun higiezinaren gainera zerga %1,5 igoko da eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gainera zerga ez da igoko". Lakak esan du jeltzaleek ordenantza fiskalak babesteko jarritako baldintzetako bi direla horiek; izan ere, bi alderdi politikoek akordioa lortu dute eta 2025eko ordenantza fiskalak aho batez onartu ditu udalbatzak. "Uste dut akor-



Udal ordezkariak, martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.L.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA %1,5 IGOKO DA, ETA EZ DA IGOKO IBILGAILUEN GAINEN

dio ona dela, eta balioa ematekoa; izan ere, politikagintzan ez da oso ohikoa izaten".

Ekonomia jardueraren gainera zergan ezarritako hobariak, eraikuntza, instalazio eta obren gainera ezarritakoa, eta establizimenduak irekitzeagatiko merkataritza, zerbitzu zein ostalaritzan ezabatutako tasa ere azpimarratu ditu ordezkari jeltzaleak. "Fiskalitate sustatzaile, justu eta berde baterako akordioa lortu dugu", esan du.

Etxebizitza hutsen errekarua

Akordiotik kanpo geratu diren artean dago etxebizitza hutsen ezarritako %75eko errekarua. "Neurri diru-biltzailea besterik ez da. Bistakoa da ez dituela etxebizitza hutsak merkatura atera, eta, gainera, diru hori ez da etxebizitza politika aktiboak martxan jartzera bideratzen",

esan du Lakak. "Errekargu horren inguruan gauza asko eztabaidatu daitezke, eta, dakizuenetz, hasita gaude zein ondorio dituen aztertzen, baina, nahiz eta azken helburua ez bete, jarraituko dugu errekarua babesten, beharrezkoa delako presio mekanismo moduan mantentzea", erantzun du Unzetabarrenetxeak.

Akordioa lortu izana txalotuta ere, oposizioak adierazi du Udalaren funtzionamendu egokirako garrantzitsuak diren gaiak lantzeko denbora gehiago hartu behar dela. "Presaka gabiltza beti, eta azterketa sakona eskatzen duten gaiak dira. Eskatzen diogu Udal Gobernuari hurrengoetarako denbora gehiago aurreikusteko".

Aurrekontua prestatzen

2025eko udal aurrekontua du udalbatzak hurrengo jomuga. Foru Funtsetik 1,2 milioi euro jasoko direla azpimarratu du Lakak, eta herritarrei esfortzu bat eskatzen baldin bazaie ordezkari politikoek modu berean erantzun behar dutela esan du. Ezinbestekotzat jotzen du udal aurrekontuak etorkizuneko proiektu estrategikoak jasotzea.

"Errekonozimendu bat da nire ibilbide profesionalean"

GAIZKA MORALES RICHARD DANTZARIA

Dantza Konpainia Nazionalak fitxatu du elgetarra

L.Z.L. ELGETA

Urri hasieran egin zituen hautaketa-probak eta bost urteko lan-kontratua sinatu berri du Dantza Konpainia Nazionalarekin. Bakarleri mailako kontratua da, gainera. Pozik da Gaizka Morales Richard (Elgeta, 1997). **Ze garrantzi du zuretzat bakarleri mailako kontratua lortu izanak?**

Azkenean, errekkonozimendu bat da nire ibilbide profesionalean. Bi audizio zeuden; bietara aurkeztu nintzen eta oso pozik nago maila horretako kontratua lortu izanarekin. Egia esan, dezenteko erronka izan da niretzat probak prestatzea. Ohikoak diren ballet eskola bat eta dantza garaikideko errepertorio bat prestatzeaz gainera, ballet klasikoko bariazio bat ere aurkeztu behar zen bakarleri probetarako. Entrenatzeko egunero egiten dut nik balleta, baina ez naiz dantzari klasikoa.

Dantzaren munduan bost urteko kontratua sinatzea ez da oso ohikoa. Estatu mailan horrelako kontratu finkoak egiten dituen dantza konpainia bakarra da. Ikuspuntu pertsonaletik asko nabarrituko dut; izan ere, ikasten jarraitzeko aukera emateaz gainera, egonkortasun bat eskainiko dit, eta atzerrira irteteko beharrik izan gabe. Madrilen etxean bezala sentitzen naiz ni. **Muriel Romerok hartu berri du konpainiaren zuzendaritza.**

Azken hamarkadan zuzendari oso klasikoak izan ditu konpainiak, eta, egia esan, ez nuen



Gaizka Morales Richard. G.M.

neure burua hor ikusten. Romero irakasle izandakoa dut eta ezagutzen dut haren lana. Horrek ere animatu ninduen audizioetara aurkeztera. Haren proiektuaren inguruan irakurri dut, eta gustatzen zait. Esan du gauzak beste modu batera egin nahi dituela. Noski, klasikoa egingo dugu, baina gauza oso garaikideak egiten ere badaki.

Noiz hasiko zara konpainia berrian? Astelehenean. Madrilgo Mataron dago egoitza, eta bertan entseatuko dugu astelehene ostiralera, 10:00etatik 17:00etara. Badakit, hasiera batean, aurreko zuzendariak lotuta utzi dituen pare bat emanaldi prestatu behar ditugula. Ondotik etorriko dira proiektu berriak. Ez dut taldekiderik ezagutzen, baina hasteko desatzen nago eta jakin-min handia dut ze koreograforekin arituko garen jakiteko.

Puska-batzea eta beldurrezko ibilbidea gaurko Gau Beltzean

Gaur, urriak 31, iluntasunaren eta beldurrezko kontakizunen gaua izango da Elgetan ere. Guraso elkarteak antolatuta, urteroko puska-batzea egingo dute umeek 18:00etan. Taldeka abiatuko dira eta 19:00etan elkartuko dira atzera ere frontoi zaharrean. Ondotik etorriko da LH-5etik gorakoentzako beldurrezko ibilbidea (Ikus 2. orria).

OHARRAK

Sukaldaritza saioa

Patata-tortilla "ona" egiten ikasteko saioa egingo dute Ozkarbi elkartearen azaroaren 8an, 19:00etan. Zabalik da izen-ematea.

Gaztelekua

Ikasturteko lehen ekintza azaroaren 10ean egingo dute. Sukaldaritza tailerra izango da. Interesatuak zabalik dute izen-ematea.



Ordenantza fiskalen eguneraketa onartu zuten unea, asteleheneko osoko bilkuran. I.A.A.

Udal zergek eta tasek %3ko igoera izango dute

Udalbatzak aho batez onartu ditu 2025eko zergak eta tasak arautuko dituzten ordenantza fiskalak; zabor-tasak %29ko igoera izango du, Europako legediaren arabera zabor-bilketaren zerbitzua ezin delako defizitarioa izan udalendako

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
2025eko udal zergek eta tasek %3ko igoera orokorra izango dute. Asteleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zuten ordenantza fiskalen eguneraketa. PSE-EEko Alberto Alonso ezin izan zen osoko bilkuran egon.

Ogasun zinegotzi Aitor Aranzabalek azaldu zuenez, azken urteetan tasak eta zergak kon-

tsumo prezioen indizearen (KPI) azpitik igotzeak kalitatezko zerbitzuak emateko esfortzu gehiago egin beharra ekarri dio Udalari, eta egoera egonkortu ahala Udalak bere gaitasun ekonomikoan berreskuratzen joan beharra daukela zioen.

Udal Gobernuak 2025eko ordenantza fiskalen proposamena lantzeko, batetik, herritarren

eta Udalaren egoera ekonomikoa kontuan izan duela adierazi zuen; bestetik, kalitatezko zerbitzuak ematea betetzea. Horregatik proposatu zuten udal zerga eta tasak %3 igotzea.

Gainera, azpimarratu zuen Foru Funtsaren likidazioa negatiboa izango dela, %3,46 gutxiago, eta horrek ekarriko duela Gipuzkoako Foru Aldun-

ditik 400.000 euro gutxiago jasotzea Bergarako herriak: "Aurrekari horiekin, eguneraketa egitea proposatzen da tasa eta zerga gehienetan".

Zabor- eta ur-tasak, gora

Europako legediaren arabera, zabor bilketaren zerbitzua ezin da defizitarioa izan udalendako. "Tarifek, gutxienez, udalek zerbitzua emateagatik dituzten gastuak estali behar dituzte. Eguneraketa hori, derrigorrez, udal guztiek egin behar ditugu", adierazi zuen Aranzabalek. Horregatik, %29ko igoera izango du hondakinen tasak. Bilkuraren ostean, EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagak gehitu zuen Europatik datorren legedi hori ezin duela Udalak ukitu: "Gai batzuen inguruan ezin dugu erabaki eta horietako bat da zaborrarena. Badago tasa hori guk ezin duguna gainkosturik asumitu, eta horregatik dago %29ko igoera".

Uraren tasaren kasuan, berriz, %2,24ko igoera onartu dute: "Gai horren inguruan aipatu beharra dago altako prezioa %12 igo nahi digula Ur Kontsurtzioak eta zuzenean eragingo diola Udalaren egoera ekonomikoari". Hala, etxek etxeko laguntza zerbitzuan ez da tasarik igoko.

Jeltzaleen aldarrikapena

EAJk "azken unean" hartu badu ere erabakia, azkenean, onartu egin du EH Bilduren proposamena, jeltzaleek eginiko sei proposamenetatik bost onartu dituelako Udal Gobernuak. Bergarako alderdi jeltzalearen bozeramaile Mikel Letek adierazi zuenez, hasiera batean, %3,2ko igoera orokorra proposatu zuen Udal Gobernuak, eta "gehiegizkoa" iruditu zitzaion. Horregatik,

EAEko KPIa erabilita igoera %2,6koa izatea proposatzen zuten: "Guk planteatu genuen %2,6 igotzea, kontuan izanda abuztutik abuzturako urteko indizea %2,6koa zela. Uste genuen ego-kiagoa zela".

Hala ere, aurreratu zuen datorren urteko udal ordenantzen eguneraketari begira EAEko KPIa erabiltzea aldarrikatzen jarraituko dutela: "Udal honetan azken urteetan, behintzat, KPIaren indizea erabiltzerakoan Espainia mailakoa erabili da. Guk uste dugu EAEko KPIa erabili behar dela. Orduan, espero dugu hori lantzea eta hemendik aurrera indize hori erabiltzea".

EAJk balioa eman zion Udal Gobernuak "elkarrizketa guneak" sortzeari udal ordenantzak eguneratzeko orduan, eta EH Bilduk ere irizten dio "eztabaida espazio horiek oso emankorrak" izan direla.

Erraldoi Taldearen dohaintza

Landu zuten beste gaietako bat izan zen Bergarako Erraldoi Taldeak Udalari dohaintzan eman dion furgonetarena. Udal Gobernuak eskerrak eman zizkion taldeari ibilgailua herritarren esku jartzeagatik: "Obra eta Zerbitzuetako Departamentuan aztertu da eta ibilgailua egoera onean dago. Orduan, oso esker onez hartu duten baliabidea da. Mila esker aukera horrekin gogorarazteagatik eta gure esku lagatzeagatik".

FORU FUNTSETIK 400.000 EURO GUTXIAGO JASOKO DITU BERGARAKO UDALAK

Fernando Perez de Labordaren liburu aurkezpena eguenean

Mila bidaiari baino gehiagoren testigantzak jaso ditu 'Euskal Herria: La mirada extranjera' liburuan

I.A.A. BERGARA

Fernando Perez de Labordak kaleratu berri duen *Euskal Herria: La mirada extranjera* liburua aurkeztuko du eguenean, azaroaren 7an, arratsaldeko zazpitan, Olaso dorrean. His-

torian zehar Euskal Herria bisitatu duten eta lurraldeaz nahiz bertako biztanleaz hitz egiten duten 1.219 gizonezko eta emakumezko bidaiariren adierazpenak jaso ditu liburuan Perez de Labordak. Ikerketa-lan baten

ondorioa da eta Euskal Herriaren begirada "zabala, kritikoa eta afektiboa" eskaintzen du. Testigantzetan jaso du bidaiari haiek zer-nolako esperientzia bizi izan zuten hona etorri zirenean, eta zer pentsatzen zuten euskaldunetz eta hemengo bizimoduaz, ohiturez eta hizkuntzaz. "Obra aitzindaria da, entziklopedikoa, eta kontsulta-liburu gisa balioko dio bere buruari galdetu nahi dion orori nola ikusi gaituzten besteen begiek denboraren joanean".

Osakidetzaren egoera hizpide martitzenean egingo den hitzaldian

Azaroaren 5ean, *Zer ari da gertatzen Osakidetzan?* hitzaldia egingo dute, 19:00etan, Seminarioan, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Duintasuna Elkarteak antolatuta. Osakidetzaren egoeraz egingo dute berba Larraitz Arriola familia-medikuak, Ander Arregi Larrialdietako medikuak eta Rebea Ubera EH Bilduko parlamentariak.

Herrigunean trafikoa moztuko dute zapatu arratsaldean

Azaroaren 2an, zapatua, egingo dute Soraluze eta Bergara batzen dituen Antxintxika krosa. Hala, trafikoen eragina izango du lasterketak zapatu arratsaldean. Ibarraire eta Zurradero kaleak ibilgailuentzako moztuta egongo dira bi noranzkoetan, 15:00etatik 18:00etara bitartean. Ordu tarte horretan, taxi geltokia Ibarraire 46 parera mugituko dute.

ZTB: ehungintza artisautik adimen artifizialeraino

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak esker, herrian berebiziko garrantzia izan zuen oihalgintzaren industriatik hasita, adimen artifiziala oinarri duen Kubo Beltza edo Black Box deritzon erakusketa bisitatzeko aukera izango du herritarrak, besteak beste

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldietako aste mugituena izango da hurrengo. 2024ko jardunaldion oinarria adimen artifiziala da, etika-filosofiaren ikuspegitik begiratuta, eta haren erronkak eta arriskuak zeintzuk diren planteatuz. Hala ere, egitaraua urriaren 21ean abiatu zuten Bergarako Jokin Labaien, Beñat Arrieta, Uxue Lazkano eta Jon Irureta gazte ikerlarien hitzaldiekin eta hurrengo ekintza urriaren 25ean etorri zen, Aroztegi aretoan Joxe Mari Rubio eta Felipe Uriarte bergararrek ireki zuten *Ehungintza prozesua* erakusketarekin; azaroaren 10era arte egongo da ikusgai.

Hain zuzen, San Joxeperen Kulturaldiaren barruan erakusketa horretako protagonista diren makinak gaineko azalpenak ere eman zituen Rubiok Laboratorium museoa (argazkian).

Kubo Beltza: erakusketa berezia Azaroaren 5ean Kubo Beltza edo Black Box erakusketa inauguratuko dute Laboratoriumen; Indissoluble SL enpresako eta Bartzelonako Unibertsitateko ordezkariak egingo dute erakusketa bereziaren aurkezpena. Azaroaren 5etik otsailaren 16ra bisitatu ahal da, museoko ohiko ordutegian.

Black Box edo Kubo Beltza erakusketa-modulu bat da. Helburua da jendeak ikas dezala eta kontzientzia har dezala adimen artifizialaren alderdi nagusienei buruz, zeintzuk diren haren aplikazio praktikoak, bai eta sortzen dituen dilema etikoak ere. Kutxa beltzak adimen artifizialean esploratzera gonbidatzen du bisitaria, harekin interaktiboki aritzera eta hari buruz hausnartzera: zein egin-kizun duen munduan, zein aukera eskaintzen dituen eta zeintzuk diren haren arrisku poten-



Joxe Mari Rubio azalpenak ematen, ehungintza irudikatzen duten makinekin. GOIENA

tzialak ere. Laboratoriumeko moduluak funtsezko lau gairen inguruan sakontzea proposatzen dute: herritarrak, egunerokoa, iraunkortasuna eta industria. Erantzunak adimen artifizialak berak sortuko ditu, eta kasu bakoitzean ezberdinak izango dira; betiere, bisitariak nola elkar eragiten duenaren arabera.

Goi-mailako lau hizlari

Datozen bi asteetan lau hitzaldi ere izango dira Seminarixoa, 10:00etan. Publiko orokorrari, ikasleei eta Goienagusi elkarte-kideei daude zuzenduta. Azaroaren 4an, Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategiko Leire Lison eta Goiatz Oiartzabal arituko dira, euskaraz: *Digitalizazioa Euskal Herrian*. Azaroaren 6rako, We Are Clickers enpresako Leire Legarretak gonbidatu dute: *Adimen Artifiziala: zer da? Gure egunerokoan duen eragina ulertuz*. Ele bitan izango da. Azaroaren 11rako antolatuta duten hitzaldian ere adimen

artifiziala izango da protagonista, estrategia digitalerako aholkulari eta teknologia berrietako prestatzaile Imanol Teranen ahotik, gazteleraz: *Adimen Artifiziala ikertzen: zer den, nola dabilen eta nolako eragina duen*.

Azaroaren 13an, EHU'n Zuzenbide Prozesaleko katedradun Patxi Etxebarriak hitzaldia eman go du, gazteleraz: *Aurpegi erre-konozimendua eta identifikazio biometrikorako beste modu batzuk: erronkak eta arriskuak*.

Barnetegia eta ikastaroa

Publiko orokorrari, ikasleei eta Goienagusiri eskainitako hitzaldiez harago, enpresendako barnetegi teknologikoa ere antolatu dute azaroaren 7rako Miguel Altunan, 09:00etatik 14:30era. MUko Sonia Perezek eta Beatriz Laskurainek, besteak beste, ChatGPTren erabilera praktikoa izango dute hizpide, gazteleraz. Azkenik, azaroaren 8an, dendariendako ikastaroa gidatuko du Perezek, Irizar jauregian, 14:30etik 16:30era; adimen artifizialarekin komertzioetan zerbitzua hobetzeko eta marketina errazteko gomendioak emango ditu, gazteleraz.



ZTB jardunaldien informazio gehiagorako, eskaneatu QR kode hori mugikorrarekin.



NIRE USTEZ

KARMELE URIBESALGO

Bi hauen artean...

Telebistako saio ezagun batean galdera bera egiten diote gonbidatu guztiei: bi hauen artean, zer zara gehiago, matxista ala arrazista?

Argia eta zuzena da itaundutakoa, baina ez da erraza ataka horretatik modu duinean ateratzea. Lehen kolpean, elkarrizketatu gehienek esaten dute ez direla ez bata ez bestea. Gure ekintzei erreparatuta, ordea, ez dakit hori esateko moduan gauden.

Ez bagara arrazistak, jendez lepo dagoen autobus batean zergatik ez du inork atzerritarren alboan eseri nahi? Askotan, beraien ondoko eserlekuak izaten dira hartzen azkenak.

Eta ez bagara matxistak, zergatik txalotzen dugu neska batek talde bereko mutilek adina edo gehiago jatea? Azken boladan jabetu naiz ni bi horietaz, baina jakin badakigu askoz ere adibide gehiago daudela.

Nahiz eta pentsatu ez garela ez matxistak ezta arrazistak ere, oraindik badugu lana gure pentsamendu eta jarrera batzuk aldatzen.



IMANOL SORIANO

Oparoa izan da urriko Kulturaldia

Urriaren zehar ospatu dute San Joxepe elkarteak 26. Kulturaldia. Dantza topaketa, bisita Laboratoriumera, hiru ikastetxeetako ikasleen bisita, herriko gazte ikerlarien hitzaldia, abesbatzen kontzertuak, Emma Ocanicaren *Oroimena eta ahazteak* hitzaldia, bingo musikatua, bazkaria... Denetarik izan dute. Gaur, urriak 31, txokolatea prestatuko dute Jardunekin batera, Gau Beltza dela eta.

OHARRAK

Izen-ematea: San Silvestre Trail lasterketa

Abenduaren 31n egingo da, 12:00etan hasita, San Silvestre Trail probaren bederatzigarren edizioa. Izena emateko aukera azaroaren 2an irekiko dute, 12:00etan, www.herrikrosa.eus webgunean. Ibilbidean aldaketak izango dira, besteak beste.

Bergara Oinez ekimena: urteko azken irteerak

Gaur, urriak 31, Agorrosinen elkartuko dira (10:00). Hurrengo irteerak azaroaren 14an eta 28an eta abenduaren 12an izango dira. Jarduera fisikoa eta beste herritar batzuekin harreman berriak egiteko aukera ematen du, eta amaieran mokadutxoak egiten dute. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko: 943 76 21 40 (San Joxepe) edo 943 77 70 95 (Agorrosin).

Bergarako Besarkadaren itzala argitu du Lanbroak

Lehen Karlistaldiaren gaineko hitzaldi zikloaren gaineko balorazio "oso ona" egin du Lanbroa elkarteak. Zumalakarregi museoko Mikel Alberdi izan da azken gonbidatua: "Sinatutakoa ez zenez errespetatu, oso ospe txarra du Bergarako Besarkadak"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Amaitu da Lanbroa Kultur Elkartek Lehen Karlistaldiaren bueltan antolatutako hiru hitzaldiz osatutako zikloa. Ziklo osoaren balorazio "oso ona" egin du Lanbroako kide Ander Errastik: "Uste dugu formula arrakastatsua dela lantzen ditugun gaietako erreferente diren hizlariekin hitzaldiak antolatu eta ondoren elkarte gastronomiko batean, afari eder baten bueltan, solasaldiari jarraipena ematea. Orain, hausnartzen ari gara ze beste bitarteko baliatu dezakegun adin askotariko publikoari heldu gaitezten. Horrez gain, herritarrok Lanbroa elkartera hurbildu eta parte hartzera gonbidatzen zaituztegu; elkarteko bazkide egiteko ateak zabalik ditugu".

2025eko maiatzean beste bat Horrez gain, esker on hitzak ere izan ditu Errastik: "Udalari eta Umore Ona, Sagarpe eta



Irizar jauregiko aretoa goraino bete zen urriaren 25eko saioan ere. ENEKO AZURMENDI

Pertxa elkarteei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, baita hiru hitzaldietan Irizar jauregiko aretoa bete eta ondoren gurekin afaltzera etorri diren herritarrei ere". Zikloa bukatu arren, Lehen Karlistal-

diarekin lanean jarraitzeko asmoa dute Lanbroa elkarteko kideek: "Uste dugu gauzak ikertzeko daudela oraindik, eta gustatuko litzaziguke askotariko eragileen artean gai honetan sakontzen jarraitzea".

Urriko zikloak izan duen arrakasta ikusita, bestalde, maiatzeko beste hitzaldi ziklo bat prestatuko dute, nahiz eta oraindik ez duten gaia aurreratu.

Zumalakarregi museoko Alberdi Urriaren 25eko saiorako Ormaiztegi Zumalakarregi museoko arduradun Mikel Alberdi gonbidatu zuten, Bergarako Besarkadaren eta Lehen Karlistaldiko beste bake saio batzuen inguruan berba egiteko. Hitzaldi horretarako ere goraino bete zen Irizar jauregiko Euskaldun Berri aretoa.

Alberdiren arabera, Lehen Karlistaldia hasi eta gutxira izan ziren "hainbat proposamen" bakea lortzeko: "Bakerako saiera ezagunena Muinagorrirena da, *Bakea eta foruak* izenpean 1838an egindakoa. Hor ikusten da Bergarako hitzarmenean agertuko den gai nagusia, hain justu, foruak banantzea Karlos V.aren eskubideetatik. Hau da, karlistak borrokatu ziren Karlos V.a errege izateko, baina baita foruen alde ere. Beraz, ikusi zuten irteera izan zitekeela foruak eta Karlos bereiztea. Azken finean, hori izan zen Bergarako Besarkadan landu zuten gaia".

Besarkadaren ospe txarra Gerra aurretik ere karlisten artean liskarrak zeudela nabarmendu zuen Alberdik, eta bi talde nagusi bereizi zirela haien

artean. "Gero, kanpoko potentzien parte-hartzea ere garrantzitsua izan zen, britainiarrak eta frantziarrak bakearen bide hura bultzatzen aritu baitziren. Horrekin batera, Eugenio Abiraretaren figura ere oso garrantzitsua izan zen. Konspiratzailea zen eta hark eragin zituen karlisten arteko liskar asko, dokumentu faltsuak sortuz".

Bakearen besarkada hura 1839ko abuztuaren 31n irudikatu zuten arren, sinadura bi egun lehenago egin zuten, Oñatin, Alberdik baieztatu zuenez: "Bergaran ere jakin zuten hori, sekulako festak egin zituztelako. Gero, abuztuaren 31n, Marotoren eta Esparteroren arteko besarkada irudikatu zuten, eta orduan hasi zuten karlistek armak uztearen prozesua". Gerora, baina, sinatutakoa ez zen errespetatu: "Sinatutakoa ez zenez errespetatu, oso ospe txarra du Bergarako Besarkadak. Izan ere, gerora konturatu ziren foru sistema ez zela errespetatu, eta herritarrek pentsatu zuten engainatu egin zituztela. Hala ere, 1839ko abuztuaren 31n sekulako poza sentitu zuten euskaldunek, bake hura lortuta".

2025EKO MAIATZEAN BESTE ZIKLO BAT ANTOLATUKO DUTE: "HURBILDU ETA EGIN ELKARTEKO BAZKIDE"



IMANOL SORIANO

Txirula jotzeko gertu da Hamelin

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartearen azken produkzioa da Grimm anaien *Hamelingo txirularia*. Lau saio eskainiko dituzte Seminarixoan, azaroaren 9an eta 10ean, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrera gehienak saldu badira ere, oraindik eskura daitezke; seminarixoa.eus webgunean, 20 edo 25 eurotan –eserlekuaren gunearen arabera–, eta eguaztenetan Seminarixoko

leihatilan ere erosi ahalko dira, 18:00etatik 20:00etara. Euskarazko musikala da, familia guztiari zuzendua, eta 1284ko ekainaren 26an Hamelingo herrian izandako arratoien izurrite baten kondaira kontatzen duena. Hainbat osagai izango ditu ikuskizunak; besteak beste, hamar musikariz osatutako zuzeneko orkestra, 30 aktore eta abeslari, eta 40 umez osatutako abesbatza.

Azaroa Gaztainatan Osintxun, askotariko ekintzaz beteta

Azaroa Gaztainatan ekimena betea dator Osintxun, Udalaren eta Soraluze enpresaren laguntzarekin: hilaren 8an, Bikustik taldearen kontzertua Txuringo tabernan (22:00); hilaren 15ean, *Ztandap* ikuskizuna Txuringon (22:00); hilaren 17an, umeendako jolasak plazan Txatxilipurdiren eskutik (12:00); hilaren 18an, gaztainak eta sagardoa plazan (19:00), eta gero afaria Txuringon (21:00); hilaren 22an, kantu-poteoa eta Fermin Balezaren emanaldia Txuringon (19:30); hilaren 24an, erretiratu bazkaria Txuringon (14:30); eta hilaren 30ean, amaitzeko, Irene, Markel eta Maddiren emanaldia Txuringon (19:30).

ETEN LOW COST DELUXE REBEL NOISE K-PO

Bergarako
Seminarixoa
Azaroak 15
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ CHICABEAT

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**

3. kontzertua
AZAROAK 29
DEL VAL
HENKO
TXERRIKUMEAK
KARENA
4. kontzertua
ABENDUAK 13
BANANA SHAKE
ONDARE
721-GOGOR GABILTZA
MAIDER MIMI
Finala
URTARRILAK 17





Ibilgailuen aparkaleku ondoan dauden hondakinen esekitokiak Bidebarrieta kalean. O.E.G.

Gehienak %2,51 gora; hondakinenak, %33,6

Joan den urteko irailetik aurtengo irailera KPlak izan duen igoera erreferente hartuta egin du proposamena Udal Gobernuak tasen igoera orokorra planteatzeko. Oposizioak, berriz, izoztearen alde egin du. Adostasun batzuk ere izan dituzte

Oihana Elorza Gorostiza OÑATI

%2,51ko igoera izango dute udal tasek, orokorrean, Oñatin datoren urtean. Hilaren 24an udalbatzak egindako urriko osoko bilkuran onartu zen igoera. EH Bilduk osatzen duen Udal Gobernuaren proposamena izan zen hori. "2025ean eta datozen urteetan ere kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzea da Udal Gobernuaren asmoa. Bestetik, orain arte moduan, egoera zaurgarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri diru-laguntzak ematen jarraituko dugu. Bide horretan, arduraz eta denboraz landuriko ordenantza proposamen bat egiten dugu", arrazoitu zuen planteamendua alkateak, Izaro Elorza Arregik. Oposizioan dagoen Euzko Alderdi Jeltzaleak, berriz, "zergak izoztea" proposatu zuen. Horrela, bozketa orokorrean, alde bozkatu zuten Udal Gobernuko zinegotziek eta aurka oposizioak.

Alokairuen gaia eztabaidagai

Hondakinen tasaren ezohiko igoerarekin ados zeuden udalbatza osatzen duten alderdi biak. Hain zuzen ere, Europako legediak behartuta egin dute igoera hori; etxez etxe biltzeagatik oinarritzko tasa 168,12 eurotan finkatu zuten, eta hondakinen tasa %33,6 izango da 2025ean – auzo-konposta egiten dutenek %25eko hobaria izango dute.

Igoera hori nahikoa dela argudiatuta proposatu zuen EAJk, hain zuzen ere, beste zergak izoztea. Udal Gobernuak, baina, iazko irailetik 2024ko irailera kontsumo prezioen indizeak izan duen igoera hartu zuen erreferentziatzat tasen igoera proposatzeko, alkateak argudiatu zuenez: "Jarraitu gura dugu kalitatezko zerbitzua eskaintzen eta horretarako ezinbestean begiratu behar izaten diogu KPIaren zenbatekoari, kostuen igoerak zerbitzuetan ere eragina dutelako. Eredu justu batean, bestalde, zaurgarrienak diren

herritarrei eta eragileei diru-laguntzak emateko bidea ere bada hau".

Alkateak adierazi zuen Udaleko batzordeetatik jasotako proposamen txikiakin ordenantzetako puntuak osatu, hobetu eta eguneratuko dituztela, eta eskertu egin zuen oposizioaren adostasuna jaso dutela Udaleko Zerbitzu, Kultura, Gazteria, Gizarte zerbitzu, Ingurumen, Hirigintza, Berdintasun eta Kirol Departamentuei loturiko proposamen txikietan. Aldiz, jeltzaleek egindako iazko bi proposamen berdin ez ditu ondo ikusi aurtengo Udal Gobernuak. Batetik, etxe hutsek duten %100eko erre-kargua kentzea proposatu zuten jeltzaleek, neurri horrek ez due-

URTARRILEAN HASIKO DIRA APLIKATZEN ORAIN ONARTUTAKO IGOERAK ETA HOBARIK

la "alokairua sustatu" argudiatuta, Amaia Erostarbe Letamendi jeltzaleen udal ordezkariak azaldu zuenez. Udal Gobernuaren iritziz, baina, hori aplikatzen hasi zirenetik, 2013tik, 165 etxe huts gutxiago daude Oñatin; aurtengo 284k jaso dute erre-kargu hori. Bestetik, kiroldegiko tasen muga 22 urtetik 25era igotzea eskatu zuten oposizioak, baina 22an mantentzearen alde egin zuten Gobernuak, eta azpimarratu zuten adin horretatik gorakoek diru sarrerarik ez badute badi-tuztela hobaria eskatu eta eskuratzeko aukera. Auto elektrikoak kargatzeko gunea duten eraikinei ondasun higiezin gainera zergan %50eko hobaria ezartzea izan zen jeltzaleen beste ideia bat, baina Gobernuak ez zuen egokia ikusi "etxebizitzetako dagokien zerga auto elektrikoarekin lotzea". Etxebizitzetako eta alokairuen gaia arazoa dela partekatatu zuten alderdi biek, bestalde, eta alkateak adierazi zuen Gobernu Taldeak baduela etxebizitza-plangintza bat egiteko asmoa esku artean.

Nork bere ikuspegia

Oposizioak egindako beste bi proposamen, baina, sartu dituzte 2025eko ordenantzetan: etxebizitzako obren zergaren inguruan, hutsik egon diren etxeak alokairura bideratzeko egin nahi diren obren gainera zergei %90eko hobaria aplikatzea bat, eta ikastaro eta matrikulen tasei lotutakoa bestea. Bi horien baldintzetan, baina, ez dira ados jarri eta abstenitu egin da puntu horietan alderdi jeltzalea. "Gure proposamenak hartu eta moldatu egin dituzte eta hori, azken finean, ez da gurea onartzea. Ez dugu horrela ikusten. Pozik gaude pixka bat aldatu eta hobetu delako, baina hemen ezin da baiezkorik jaso", zioen amaieran Erostarbek. Elorzaren ustez, baina, "positiboak dira euren proposamenak eta ekarpena egin diete hurrengo urteko ordenantzei; helburu orokorra lortzeko jasota daude".

Alderdi bakoitzak bere proposamenak azaldu zituen ordenantzak onartzeko puntuan, eta banaka bozkatu zituzten gero bakoitzaren irizpideak. Iritziak partekatatu ostean egin zuten proposamen orokorraren bozketa: oposizioak zinegotziek aurka bozkatu zuten eta Gobernu Taldekoek, alde.

Erlaxazio tailerrak egingo ditu Iturrigorri Elkarlan elkarteak

Iturrigorri Elkarlan elkarteak mindfulness eta erlaxazio tailerrak antolatuko ditu udazkenean Oñatiko Udalarekin batera. Sei saio eskainiko ditu, guztira: azaroaren 21ean, 25ean eta 28an eta abenduaren 2an, 9an eta 16an. Saioak 18:30etik 20:00era izango dira, Euskaldun Berria gelan, eta komeni da aurrez izena ematea. Horretarako bideak dira: maribelpachecos@gmail.com edo 687 75 28 42. Saio guztiak doan izango dira.

Iturrigorri Elkarlan leuzemia eta gaixotasun hematologikoen aurkako eta hezur-muinaren transplantearen aldeko elkarteak da, eta barnekotasuna lantzeko antolatuko ditu saioak.

'Bertakoak' guneetan aparkatzeko txartel berrien eskaera

Bertakoak guneetarako txartel berria eskatzeko epea hilaren 20ra arte dago zabalik. Kontu korrontetaren zenbakia eta autoaren zirkulazio-baimena aurkeztu behar dira horretarako, Herritarren Arreta Zerbitzuan edo online, erregistro elektronikoa erabilita. Baja emateko, nahikoa da eskaera-orria betetzea. Aurtengo txartel hori izan eta ezer adierazten ez dutenei automatikoki berrituko zaie, ez dute ezer egin behar.

2025eko Bertakoak txartelak berdeak izango dira eta posta arruntez bidaliko zaizkie eskaerazaleei, abenduan zehar. Dagoen udal tasa, berriz, datorren otsailan kobratuko da.

Familia erregulazioari buruzko hitzaldia egongo da eguenean

Familia erregulazioari buruzko hitzaldia egongo da datorren eguenean, azaroak 7, Oñatiko Emakumeen Jabetze Eskolak antolatuta. Irule Abokatuek enpresako Leire Goikoetxea eta Garazi Plazaola etorriko dira gai horri buruz hitz egitera. San Juan kalean dagoen lokalean izango da, 18:00etan, herritar guztiendako irekia.

"Perretxiko-zale asko dago, eta mikologo gutxi"

JOXEPO TERES IZKIERDO MIKOLOGOA

Onddoek biodibertsitatean duten garrantziaz egingo du berba Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Gandiaga Topagunean, Arantzazuko XI. miko-poteo jardunaldietan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Arantzazuko XI. miko-poteo jardunaldiak egingo dituzte azaroaren 9an. Onddoen inguruko hitzaldia egingo du Joxepo Teres Izquierdo (Donostia, 1957) mikologoak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak. *Onddoak biodibertsitatearen giltzarri* da hitzaldiaren izena.

Zenbaterainoko garrantzia dute onddoek biodibertsitatean?

Izugarria. Bi funtzio nagusi dituzte: bata da deskonposatzaileak direla; hau da, edozein material organiko deuseztatzeko gai dira, izan egurra, hezurak edo hostoak, batzuk aipatzearen. Onddo barik, zabortegi bihurtuko lirateke basoak eta inguruak. Bigarren funtzioa da bizidun mutualistak direla. Horrek esan gura du beste bizidun batekin sinbiosia sortzen dutela; landareekin eta pagoekin, adibidez. Harreman edo sinbiosi hori barik, landareak ahuldu egingo lirateke. Sinbiosi horrekin biek irabazten dute, landareek zein onddoek. Badira ikerketak hori egiaztatzen dutenak.

Normalean, baina, onak edo txarrak diren jakiteko begiratzen diegu.

Bai. Garai batean, egiten ziren erakusketak bereizketa hori egiteko eta auden perretxiko motak bereizteko. Hori gaindituta dago egun eta ez dago horren beharrik. Egia da, baina, perretxiko-zale asko dagoela, eta mikologo gutxi. Jatera mugatzen da, askotan, ezagutza, eta zaleak egotea ondo dago, baina zientzialariak ere behar ditugu; ikertu eta onddoen ezaugarriak jakin nahi dituen jendea, alegia. **Bitartean, baina, udazkenean sartuta, eguraldiari begira jendea: euria, tenperatura...**

Sasoa izaten da hau perretxikotara joateko, bai, eta egia da aurten gutxi dagoela eta ez dakigula horren zergatia zein izan daitekeen. Hezetasun handia dago, tenperaturan ez da apar-



Joxepo Teres Izquierdo mikologoak. J.P.I.

teko anomaliarik egon, baina aurten ez dago ale askorik. Hori ere ikertu egin beharko litzateke. Oraindik badago deskubritu gabeko zerbait horrelako egorak ulertzen lagunduko ligukena, eta ez dakigu zer den.

Aholkurik baduzu perretxiko bila joaten direndakoa?

Jarrera egokian jarduteko. Onddo dago mendi buelta bat eginaz perretxikoak batzea, baina neurrian, ez dago ikusten diren denak batu beharrik.

Autobusa doan izango da

Arantzazuko XI. miko-poteo jardunaldiko hitzaldia 17:30ean hasiko da, Gandiaga Topagunean. 18:45 aldera amaituko da, eta 19:00etan, Arantzazuko gastronomia zirkuituan barrena miko-poteo ibilbidea hasiko da: Zelai-Zabaletik Iraipe Arantzazuko Santutegia Hotelera, eta handik Goiko-Benta eta Sindikara. Miko-pintxo bakoitzak 1,5 euroko prezioa izango du, eta edaria ostatu bakoitzaren prezioen araberakoa izango da.

Aurten, doako autobus zerbitzua egongo da Oñatitik Arantzazuraino. Autobusa ordu erdian behin abiatuko da postetxe aurreko geltokitik. Lehenengo autobusa 16:45ean irtengo da; 18:45etik aurrera, bi geldialdi egingo ditu Arantzazun, bat Zelai-Zabal jatetxean eta bestea Santutegiko autobus geltokian. Itzulerako azken autobusa 21:45ean irtengo da Santutegitik.



Onddoekin egindako pintxoak. GOIENA

NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

Ikasteko gela Oñatin

Azaroan sartzera goaz, eta azterketak ate-joka daude. Ikasleek gero eta ohitura handiagoa hartu dute liburutegietara joateko, eta han prestatzeko proba horiek. Herri askotan, udalek ikasteko gelak atondu dituzte, bai udal liburutegietan, bai beste eraikin batzuetan, gehienbat azterketa-garaietan; orduetgia moldatu dute, aste bukaeran ere eta ordu gehiagoan ikasteko. Arrasaten, azaroaren 4tik aurrera, Kultureteko udal liburutegian aretoa zabalduko da egunero, astelehenik igandera. EAJ Oñatik aurrekontuetarako proposamenetan jaso du, azken lau urteetan, azterketetan ikasteko gunea bermatzeko diru-lerroa. Lehenengo urteetan, Bilduren erantzuna "ez dugu ikusten" izan zen. Hurrengo urteetan, berriz, udal gobernuak erantzun du ikasgune hori Sancti Spiritus unibertsitatean kokatu nahi duela; leku egokia hori ere. Hala ere, gaur egun, ez dago ikasteko gelarik inon; ez leku batean, ez bestean. Hala, udal liburutegian ikasteko ohitura daukaten ikasleei gaur egun ez zaie Oñatin inolako aukerarik eskaintzen azterketa-garairako. EAJk proposamena mahai gainean aspaldi jarri zuen. 2025. urtean gauzatuko ahal da!

Herribus zerbitzua hilerriraino joango da bihar, egubakoitza

Udaltzainek kanposantu inguruko zaintza indartu egingo dute, joan-etorriak areagotuz, lapurretak saihesteko

O.E.G. OÑATI

Azaroaren 1a da bihar, egubakoitza, Domu Santu Eguna, eta, herritarrek hilerrira joateko duten ohitura kontuan hartuta, herribus zerbitzua bertaraino joango da. Arantzazura bidean, postetxeko geltokitik irten eta kanposantuan izango du hurrengo geldiduna herribusak bihar. Gainera, neguko ordutegiarekin hasiko da zerbitzua ematen herribusa azaroaren leian: Arantzazura joateko azken autobusa 17:30ean irtengo da Oñatitik, eta Arantzazutik jaisteko, 18:00etan.

Goizeko lehen irteerak ordu bera mantenduko dute: 07:30ean herriraino eta 08:00etan Arantzazun.

Bestalde, udaltzainek kanposanturako joan-etorrien maiztasuna areagotu egingo dute bihar. Hilerritik sartu-irtena egin bitartean, autoetatik poltsak edo arropa lapurretak izan ohi dira, eta zaintza indartuko dute. Lapurretak saihesten laguntzeko oharrak ere jarri dituzte hilerriaren sarreran. Gainera, hango zirkulazioa eta aparkalekuak ere zainduko dituzte herribusak buelta ondo egiteko.

Tatiegi eta Arregi domekan lehiatuko dira Tolosako saioan

Tolosako Leidor aretoan jokatuko da, domekan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako laurdenetako azken saioa, eta hantxe egongo dira lehian, beste bertsolarirekin batera, Aitor Tatiegi eta Mainer Arregi oñatiarrak. Saioa bukatzearekin bat ezagutuko dira finalaurrekoetarako sailkatutakoen zerrenda. 17:00etan hasiko da saioa.

RuralTxa! argazki erakusketa ikusteko azken eguna, domeka

Landagunea eta lehen sektorea plazaratzeko egindako RuralTxa! argazki erakusketa bukatzearekin batera, Gaurtik -eguna- domekara bitartean egongo da ikusteko aukera, itxi aurretik, 10:00etatik 14:00etara, Arantzazuko parketxean. 48 argazki osatzen dute erakusketa eta larreen kontserbazioarekin lotutako ekosistemako onurak erakusten ditu.

"Pandemiatik areagotu egin da psikologoon lana"

UXUE OTXOA ALBERDI KIROL PSIKOLOGOA

Kirol psikologoa da Uxue Otxoa arrasatearra, eta hura da Aloña Mendik antolatutako eta osasun mentala hizpide duen 'Bihotza ala burua?' hitzaldiko gonbidatuetako bat

Julen Murua Mesonero OÑATI

Bihotza ala burua? hitzaldia antolatu du Aloña Mendik, kirol elkartearen 75. urteurrenaren baitan. Azaroaren 6an egingo da hitzaldia, kultur etxeko zinema-aretoan, 19:00etan, eta osasun mentalaren gaia landuko dute Malen Osa goi-mailako kirolariak, Iñaki Igartua kirol egokituko kirolariak eta Uxue Otxoa errendimenduen eremuan espezialista den kirol psikologoa. Hain justu, Otxoarekin (Arrasate, 1990) izan da GOIENA, osasun mentalaren gaia kirol psikologo baten ikuspegitik lantzeko.

Nabarmena da osasun mentala kirolean geroz eta gehiago zabaltzen ari den gaia dela; zuen lana ere asko areagotu da?

Pertsonalki, asko areagotu da nire lana. Rio de Janeiroko Olimpiar Jokoetan berbaia izan zen, eta garaien sentsibilizazioa igartzen hasi zen. Pandemia ostean, osasun mentalaren garrantzia ere azpimarratu zen, eta kirolari dagokionez ere beste laneketa eta zaintza bat behar duen esparru kontsideratzen hasi da. **Staff tekniko batean entrenatzailek duen garrantzia hartu du gaur egun kirol psikologo batek?**

Prestatzaileak indar handia du, eta haren egunerokotasuneko presentzia ez dauka psikologo batek. Kirolera heltzen azkenak izan gara, eta nutrizionista, fisioterapeuta, mediku edo prestatzaile bat lehenago baloratzen da psikologo bat baino. Hala ere, gure lekua lortzen ari gara eta bagabiltza esparru hori lortzen. **Gaiaren bueltan hitz egiten dutenen gorakada bat dago?**

Uste dut Rio de Janeiroko Olimpiar Jokoen eta pandemiaren ostean izan dela gorakada. Gainera, sare sozialek eta teknologiak ekarri dituzte estimulazio eta dependentzia arazo handiak, eta horrek ere eragin du antsietate, kontzentrazio arazo, harre-



Otxoa, errendimenduen eremuan espezialista den kirol psikologoa. UXUE OTXOA

"OSASUN MENTALAK GUZTIAREKIN DU LOTURA, BAINA BAKARKAKO LANA IZATEN DA ASKOTAN"

mantzeko moduak aldatzea eta beste zenbait arazo. Uste dut horiek ere berbaia izan behar-ko lirakeela gizaratean. **Osasun mentalaren gaiak guztiarekin du lotura, baina bakarkako lan ala bakarkako kirolekin?** Osasun mentalaren gaiak guztiarekin du lotura. Jakin gura badugu ea zertan espezializatzen den gehiago edo zertan ikusten den gehiago lanketa, esango nuke bakarkako lan bezala finkatzen dela psikologo baten lana. Nik, behintzat, bakarkako lanketa behar duen askoz jende gehiago daukat apuntatuta agendan taldekako tailerrak edo lanketak baino.

Gaur egun, garaiz esku hartzen zaie osasun mental arazoak dituzten kasuei?

Ikusten ari gara badaudela prebentzio bezala kontsultan hitzordua hartzen duten pertsonak,

nahi dutelako arlo mentala landu, eurentzat ere garrantzitsua delako. Baina oraindik ere askoz gehiago dira arazoren bat sentitzen hasi eta kontsultara deitzen dutenen kasuak: antsietatea, apatia, ezinegona, depresioa edo sintomatologia ezohikoak sentitzen dituztenen eta kontsultara etortzen direnen kopurua handiagoa da.

Zer esango zenioke horrelako arazo bat duen baina plazaratzeraz ausartzen ez den kirolari bati?

Ausartzen ez den pertsona horri esango nioke denbora hartzeko. Gertatzen zaiona kontatzeko beldurra izatea normala dela, baina norbere buruari laguntzeko oso aukera handia dela. Gainera, laguntza garrantzitsua izateaz gain, norbere burua ezagutu eta lantzeko aukera izatea modurik ez dagoela ere esango nioke. Askotan, psikologoarenera joateko pauso hori eman aurretik, ikusten dugu etxekoei, taldekideari bati, bikotekideari edo kuadrillako gertukoei kontatzeak laguntzen duela, bultzada bezala, bukaerako urratsa egite aldera: psikologoarenera joatea. Nik animatu gurako nituzke azkenengo urrats hori egitera.



Eragiyok abesbatza, Segovian egindako emanaldi batean. ERAGIYOK ABESBATZA

Eragiyok abesbatzarekin hasiko da azaroko Musikegunak zikloa

Azaroko lau domeketan egingo dira emanaldiak; sarrera arruntak eta bonuak salgai daude dagoeneko

J.M.M. OÑATI

Azaroaren lehen domekarekin batera hasiko da musika klasikoa oinarri duen Musikegunak zikloaren aurtengo edizioa, eta Euskal Herrian musika mota hori jorratzen duten musikari zein abeslarietako batzuk izango dira Oñatin. Hilaren 3an egingo da lehen kontzertua, eta hurrengo hiru domeketan ere bai; denak Santa Ana antzokian.

Astigarragako Eragiyok abesbatzak estreinatuko du Santa Anako oholtza; 2018an sortutako ahots grabeen abesbatza da, eta musikaren kultura zein euskal abesbatzen musika tradizioa zabaltzeko eta indartzeko ahalginean oinarrituta dago haren musika sorkuntza; arreta berezia jartzen dio euskal musikagile nagusiek sortutako folkloreaki eta eliza-musikari. Aldi berean, beste obra mota batzuk ere lantzen ditu; esaterako, erru-

siar folklorea eta erreperitorio lirikoa –opera eta zarzuela–.

Hilaren 10ean, Bilboko Soinuak Haizean taldea etorriko da eta zazpi emozio landuko ditu musikaren bidez, atrezzo koloretsu batekin; Iñaki Palacios txistulari gasteiztarrek *Argizaiola* lana aurkeztuko du azaroaren 17an; eta hileko azken domekan, 24an, *Pause* lana erakustera etorriko da Xabier Zeberio nyckelharpa- eta biolin-jotzailea.

Sarrerak dagoeneko salgai

Kontzertu guztiak azaroko domeketan izango dira, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Sarrera arrunta, emanaldi bakoitzarena, zazpi euro izango da, baina egongo da lau emanaldietarako bonua erosteko aukera ere; hura 22 euro izango da, eta arruntak zein bonuak salgai daude dagoeneko Oñatiko Udalaren webgunean (www.oñati.eus).

'Mendian gora' erakusketa kultur etxean ikusgai

Euskal mendizaletasunaren historia batzen du *Mendian gora* erakusketak, eta Oñatiko kultur etxean inauguratuko dute azaroaren 5ean, 19:00etan. Ikusgai egongo da azaroaren 22ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Aloña Mendiko mendi sailak ekarri duen erakusketa da, Mendi Hamabostaldiaren barruan.



Mendian gora erakusketa. GOIENA

Eskuratu **DOAN** goienakideek dituzten abantaila guztiak

Ordaindu orain 2025eko kuota, 65 euro, eta
DOAN izango dituzu abantailak abendura arte



Gai biziz betetako aldizkaria
Puntua aldizkaria, zure buzoian,
egubakoitzero



**Deskontuak Goienako
zerbitzuetan**
Eskelak, iragarki sailkatuak...



Otordu onenak
Debagoieneko jatetxeetan bi
lagunendako otordua irabazteko
aukera astero.



Lehentasuna aldizkarietan
Inork baino goizago, *Goiena* eta
Puntua aldizkariak, eguenetan,
00:00etarako irakurtzeko aukera
aplikazioan.



Futbola bertatik bertara
Realaren partidua Reale Arena
futbol zelaiko premium gunetik
ikusteko zozketa jardunaldi
guztietan.



Kalitate onena
Goienako argazki-galeriak eta
bideoak kalitate handian eta
ur-marka barik deskargatzeko
aukera.



Hileroko zozketa bereziak
Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskitunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2024an, dagoeneko 100
goienakideek baino gehiagok jaso dute
sari bat.



Eta, gainera, onura fiskalak
Errenta aitortzean, Goienarena
lehentasunezko jarduera delako,
%30eko hobaria.



Poltsikorako abantailak
Deskontuak Debagoieneko hainbat
komertziotan eta Arrasateko Avia
gasolindegian.

goiena[™]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez
goienakide:
943 25 05 05

Deitu eta
eman izena!



INFORMAZIO GEHIAGO

Seminarioko patioan girotu nahi dute krosa

ATLETISMOA Bihar, egubakoitza, da Antxintxika krosean izena emateko azken eguna (15:00), eta antolatzaileek 400 laguneko langa gaindituko dutela aurreikusten dute. Ibilbidea luzatu egin dute Labegaraieta inguruan, guztira hamar kilometro izan ditzan

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Ordu gutxi geratzen dira zapatuan Soraluze eta Bergara batuko dituen lasterketan, Antxintxika krosean, izena emateko, egubakoitzean 15:00etan itxiko dituzte-eta izen-emateak (*kirol-probak.com*). Iaz, 410 lagun izan ziren, eta aurtengo ediziorako ere antzeko kopurua espero dute. "260 lagunek eman dute izena, eta badakigu jendeak azken unerarte itxoiten duela. Asteburua, zubia izanda, data aldetik arraro samarra da, baina eguraldiak ere lagunduko du; baikorragara", adierazi du Antxintxika-kide Eneritz Urrutiak.

Hain zuzen, 16:30ean handbiketoak irtengo dira; 16:45ean, patinatzaileak; eta 17:00etan, korrikalariak.

600 metro inguru gehiago

Ibilbideari dagokionez, aldaketa txikiren bat izango da, lasterketa luzatu egin dute-eta apur bat. "Orain arte, krosa ez zen 10.000 metrora iristen, 600-700 metro inguru falta zitzaizkion hamar kilometroko lasterketa bat izan zedin, eta korrikalarien partetik jasotako eskaerei kasu eginda zirkuitua apur bat luzatzea erabaki dugu, jendeak distantzia hori bete nahi zuelako. Hala, Labegaraietako kiroldegi ingu-



Garazi Korta gasteiztarra izan zen iaz emakumezko azkarrena. IMANOL SORIANO

ruan aldaketa bat egin dugu eta hor irabazi ditugu metro horiek, nahiz eta patinatzaileek ez dituzten metro horiek egin behar izango. Bestalde, Iralako helmugak, azken bi urteotan moduan, bere horretan jarraituko du. Pentsatzen dugu azken metro horiek ederrak direla, jende asko batzen da zuzen horretan eta plazan baino hobeto geratzen da helmuga han jartzea, eta ondoren asmoa da korrikalari guztiak Seminarioko patioantantz bideratzea; bertan egongo dira jatekoak eta edatekoak, eta sari banaketa

ekitaldia ere han egingo dugu, gune hartan zentratuko dugu lasterketa osteko dena".

Askotariko korrikalariak

Zapatuko hitzorduak, berriro ere, puntako korrikalariak eta herri mailakoak batuko ditu. "Eta hori da antolatzaileon helburua, profil askotariko jendea batzea. Gainera, urtetik urtera korrikalariak geroago eta gehiago zaindu nahi horretan, aurtenean berrikuntzak izango dira, opari gehiago zozketatuko ditugu..."

Horrekin batera, aurrean lehia polita espero dute Antxintxika-koek. "Oraindik erabat baieztatuko gabe dago lasterketan zeintzuk egongo diren, baina Aitor Mimentza izena emanda dago, David Garcia baita ere, ikusteko dago Unai Barrena lasterketan izango den... Faboritoen multzoan haiek leudeke, eta euren ondoren datoz Andoni Gomez, Xabi Labaka eta halako korrikalariak; haiek 3.10era korrika egiteko kapaz dira, baina aurrekoak beste koska batean daude. Emakumezkoetan, berriz, Ainara Uribarrrik eman du izena eta esango nuke, oraingoz, hura dela faborittoa".

Haiekin batera, lasterketa giroten duten herri mailako lasterkariak daude. "Batzuek gure krosa Behobia-Donostiara begira test moduan erabiliko dute eta beste asko Mikel Cresporen eta Oliver Hernandezen omenez korrika egitera etorriko dira, haren senitarteko eta lagunak; haiek ere asko giroten dute lasterketa". Hori bai, azken urteotan lasterketa giroten ibili den beste talde zabal bat, aulki gurgildunetatik tira egiten ibiltzen zirenak, ez dira lasterketan egongo.

Autobusa denendako

Aurreko urteotan korrikalari bakoitzak erabakitzen zuen lasterketa aurretik Bergararik Soraluzeera joateko autobus zerbitzua nahi zuen edo ez, eta hori aparte ordaintzen zen. "Orain, korrikalari guztiek dute autobus zerbitzua; izen-ematearen barruan dago". Atleten lasterketako dortsalak egunean bertan jasoko dituzte, 11:30ak eta 16:00ak bitartean, Seminarioko patioan. Eta arropak gordetzeko zerbitzua ere bertan izango da".



Ander Murua. IMANOL SORIANO

PILOTA Murua, pilota jaialdiko atarikoan bihar Uarkapen

Lau eta erdiko txapelketa barruko partidua jokatu dute egubakoitzean, 17:00etan hasita, Uarkapen. Jaialdiko norgehiagoka nagusian Peña II.ak eta Peio Etxeberriak neurtuko dituzte indarrak, baina atarikoan beste partidu erakargarri bat izango da, bereziki arrasatearrindako, Ander Muruak Agirre izango du-eta aurrean. Sarrerak 20 eta 25 euro artean daude.

FUTBOLA Mondrak eta Aloña Mendik talde erretratuak bihar

Talde erretratuak egingo dituzte bihar, egubakoitza, Mondra eta Aloña Mendiko futbol taldeetako ordezkariak. Oñatiarrak Azkoagainen batuko dira, 09:15ean. Zuri-moreek, berriz, 11:00etan hasiko dute argazki saioa, baina klubeko ordezkariak eskatu dute 10:45ean denak Mojategin batzea. Argazkiak egutegiak egiteko erabiliko dituzte.



Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Bartzelona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua azaroaren 10ean izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 4.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Sailkapenaren goialdean egonkortzeko partidua

FUTBOLA Ezohiko asteburua denez, bihar jokatu du UDAk, 16:30ean, Derioren aurkako partidua. Sailkapeneko bigarrena da Aretxabaletako taldea, eta Ibarra gotorleku izaten jarraitzea gura du Unai Calzonenek –etxeko laurak irabazi dituzte–

J. Murua Mesonero ARETXABALETA Santurtzin puntu bakarra lortu ostean, Ibarra itzuliko da UDA, Derioren aurkako partidua jokatzen. Etxean garaipena bakarrik ezagutzen du Aretxabaletako taldeak, eta zaleen aurrean izaten ari den bolada onari jarraipena eman nahi diote UDAkoek. Aurrean "Hirugarren Mailako betiko taldeetako bat" izango du UDAk, Unai Calzoneren arabera, eta "partidu gogorra" izatea aurreikusten du entrenatzaile aretxabaletarrak: "Oso joko zuzena bilatzen dute; batez ere, aurkariaren zelaian daude. Ez dute askorik arriskatzen, oso talde serioa da; Hirugarren Mailako jokoak egiten duen talde horietako bat. Aurten, ez dakit zorionez edo zoritxarrez, baina nik uste dut zorionez, ez dugu partidua errazki jokatuko, baina guk gure estiloa ezarri behar dugu garaipena etxean gelditu dadin. Beste erronka bat da, beste hiru puntu daude jokoan, eta bolada onari jarraipena emateko gogotsu gaude".

Ikasten eta hazten

Sailkapeneko bigarren postuan dago UDA, eta bihar jokoan egongo diren hiru puntuek balio dezakete taldea erditik gorako postuetan egonkortzeko. Hala

ere, Calzonek aitortu du euren helburu nagusia "ikasten eta hazten jarraitzea" dela: "Lanean jarraitu nahi dugu, ikusteko taldea noraino heltzeko gai den. Ez diogu mugarik jarriko geure buruari, baina, era berean, badakigu partiduz partidu eta jokaldiz jokaldi joan behar dugula. Beti eman beharko dugu %100a, hori egin ezean jai izango dugulako maila honetan lehiakorrek izateko orduan. Gaur-gaurkoz, emaitzak positiboak izaten ari dira, baina, galdu edo berdindu egiten badugu

ere, lanean jarraitu beharko dugu, egunero-egunero".

Gainontzeko partidua

Gizonezkoen Erregional Mailan, Aloñak eta Bergarak kanpoan jokatu dute, bihar, Beasainen eta Mutrikuren aurka, hurrenez hurren –biak, 16:30ean–. Mondrak, berriz, Añorga taldearen aurka jokatu du Mojategin, zapatuan 16:30ean. Emakumezkoen Erregional Mailari dagokionez, Bergarak gaur jokatu du, Agorrosinen, 20:30ean, Azpeitiko Lagun Onaken aurka.



Unai Beloki, Beasainen aurkako gola sartu berri. GOIENA

ESKUBALOIA Liderra bisitatuko dute Aloñako senior mailako neskek

Bergararen aurkako derbia aise irabazi ostean –36-20–, sailkapeneko liderra den Orioren kantxa bisitatuko du Construcciones Ugarte Aloña Mendik. 6 puntu ditu Orioko taldeak, eta, oñatiarrek irabaziz gero, Munttarperi aurre hartu eta bigarren postura salto egingo luke Iñaki Zabartek zuzendutako taldeak, 5 punturekin.

SASKIBALOIA Iturripen garaipenak pilotzen jarraitzeko partidua

Etxean jokatu du berriro ere Ointxe!-k asteburuan, eta sailkapeneko erdialdean egonkortzeko ezinbestekoa izango da garaipena Arrasaten gelditzea. Galdakaoko Ibaizabal taldearen bisita jasoko dute arrasatearrek –sailkapeneko azken postuan dago–, eta, hain zuzen, denboraldiko bigarren garaipena eskuratzea izango dute helburu.

ARETO FUTBOLA Etxean jokatu dute Hirugarren Mailakoek

Mondratek Musakolan eta Eskoriatzak Manuel Muñoz kiroldegian, Tolosalaren eta Gernikaren bisita jasoko dute, hurrenez hurren. Tolosarrak bigarren sailkatuak dira, eta, Mondratek irabaziz gero, puntu kopuru berarekin jarriko lirake bi taldeak. Eskoriatzarrak, berriz, goiko postuei begira jartzeko irtingo dira garaipenaren bila.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIEN IRABAZLEAK!

TD SYSTEMS TELEBISTA
Karmele Korta Mendiguren (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Jose Ramon Iriarte Zubizarreta (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Isei Barbero Gutierrez (Arrasate)
Beatriz Ibabe Gomez (Arrasate)
Izaskun Arana Arabaolaza (Arrasate)

SIRIMIRI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ion Marton Otamendi (Bergara)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Agurtzane Leibar Larrañaga (Oñati)

GOXO GOXUA GOZOTEGIAREN TARTA
Eneritz Zubizarreta Zubia (Aretxabaleta)

'PIN PANG' HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK
Izaskun Gutierrez Cillaurren (Aretxabaleta)

'AI GURE JUANETEA' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Jon Joseba Zuazabeitia Olabe (Leintz Gatzaga)

'IHIR', 'OLLOS CARA ADETRO' ETA 'OUT OF SILENCE' DANTZALDIRAKO SARRERAK
Luis Eraña Gallastegi (Bergara)

EUSKAL HERRIKO MITO ETA IPUIN ZAHARREN KONTAKETARAKO SARRERAK
Idurre Elorza Barbero (Oñati)

OINTXE SASKIBALOIKO ABONUAK
Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga (Leintz Gatzaga)
Iñigo Lasa Zubizarreta (Aretxabaleta)

'POSTDATARIK GABEKO GUTUNAK' ANTZERKIAREN SARRERAK
Jokin Uribeetxeberria Ateka (Arrasate)

REALAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Markel Egaña Barrena (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak hiru hilabeteko epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Aroztz auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. **Ordutegia:** asteartetik igandera 10:00 – 17:00 (aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea.** Otarrea jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Telebista jasotzeko,** zatorz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA aditza eman beharko da. GOIENA Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. **Ordutegia:** asteleheneetik eguenera: 09:00 – 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 – 14:00

Irabazi bi lagunendako otordua

SORALUZE HOTELA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: azaroak 5

943 25 05 05 | goienakide@goiena.eus | Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

DANBAKA))))



Arrasateko Korda Rota laukoteak apurtu zuen lehen Danbaka-gauko izotza.



Bigarrenez hartu zuen parte Bergarako Ktarsia taldeak Danbakari; oraingoan, baina, taldekide berriak batuta.



Bergarako Sotoalde taldeak dantzan eta kantuan egitera bultzatu zuen publikoa.



Publikoaren artean bukatu zuten Oñatiko Malko taldearen emanaldia.

Zapore askotako musika-pilulak

Eskandinaviako rocka, doinu elektro-akustikoak, musika urbanoa eta rock indartsua, Seminarixoan egubakoitzean jokatutako seigarren Danbakaren lehen kontzertuan



**AITZIBER
ARANBURUZABALA**

Egubakoitzean egin zuen eztanda seigarren Danbaka Musika Lehiaketak. Seminarixoaren kanpoaldean bildutako musikazaleengan gogoia sumatzen zen. Aretxabaletako kuarteleko DJ Joe Piemanen zuzeneko soinuek chill out gunean egindako harrrerarekin areto barrurantz murgiltzen joan ziren poliki-poliki. Iruditeria soil baina aldi berean elegantearekin atondutako aretora sartu ahala, kame-

ra eta bestelako azpiegiturekin harrirituta asko. Kuadrillako zein aspaldi ikusi bako lagunekin berriketa onean, lehiaketak ekarriko zuenaren zain.

Bien bitartean, oihalaren bestaldean lau taldeak dena emateko gogoz, baina lagun giroko lehiakortasuna sumatzen zen, Korda Rotako Aitor Alegrek berretsi zuenez: "Hasten ari garen taldeak gara denak; bada, nahiz eta lehiaketa bat izan, lagunak egitera eta bata bestea sostengatzera gatoz". Ikus-entzunezko lantalde zabala ere ilusioarekin, hilabeteetan lan-

dutako proiektua egikaritzeko. 21:30ak heldu zirenean, Danbakako aurkezle Jokin Bereziartuak parte hartzaileei, babesleei eta publikoari eskerrak eta ongietorria eman ondoren, hiru ordu gehiago iraungo zuen musika-dastaketari hasiera eman zion.

Gogorretik gozoagora

Lehiaketa bat dela ahaztu barik, urduri ekin zioten Korda Rota taldekoek, baina ez zituzten nerbioak traba izan zuzeneko oso txukuna egiteko. Eskandinaviako rocketik asko, baina bestelako nahasketa gehiago zituzten

zortzi kantu eskaini zituzten. Publikoak ondo erantzun zuen gerturatzeko eskatu ahala pausoa aurrera emanda, nahiz eta lotsati samar zeuden oraindik.

Orain dela bi urteko Danbakari egon zenak izan zuen Ktarsia ezagutzeko aukera. Kide berriak batu dituzte, lau dira orain. Oraindik bidea dute egiteko, baina osagai onak dituzte, bi ahotsek duten elkarrekin josteko trebetasuna itzela da. Bukatutakoan kontatu moduan, "ondo pasatzera" joan ziren eta publikoak ere hala egin zuen.

Kalekoa eta rock indartsua

Hamaika salto eta lasterketa egin zituzten Sotoaldekoek segidan, baina "gozatu ederra hartuta", emanaldiaren ostean zioten moduan. Lagun asko zituzten aurrean, eta, haiekin jolastuta eta, orokorrean, publikoak xaxatuta, herrian ezagunak

**KORDA ROTA,
KTARSIA, SOTOALDE
ETA MALKO TALDEAK
LEHIATU ZIREN LEHEN
GAUEAN**

diren hitzak abestu zituzten musika urbanoaren estiloaren aterki zabaleko melodien gainean.

Malko taldeak ibilbide luzea ez badu ere, eskarmentua du, eta horren erakusle izan zen gauari bukaera eman zion kontzertua, erritmo azkarrak eta momentu lasaiagoak jota. Bukeraren eztanda egin zuten publikora salto eginda: "Arriskua hartu dugu, baina gure kontzertuetako bukaerak hala dira".

Pantailan ere ikusgai

Azaroaren 7an hasita, eguenero, bi kontzertu izango dira Goiena telebistan ikusgai, 21:00etan eta 23:00etan, eta hurrengo egunean *Goiena.eus* atarian. Horrez gainera, *Danbakast* bideopodcasta abian da: egueneroan 20:00etan eta 22:00etan eskainiko da kapitulu berri bat, eta ondoren, *Goiena.eus* atarian eta Spotify plataforman.

**PUBLIKOAREN
HARRERA ONA IZAN
ZUEN EGUBAKOITZEAN
ESTREINATU ZEN
DANBAKA BERRIAK**



DJ Joe Piemanek girotu zuen chill out gunea.



Jende asko batu zen Danbakaren lehen gauean.




Sara Alonso, Ainhoa Vitoria, Iñigo Ugarte, Amaia Arriaran eta Julen Narbaiza epaimahaikideak. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Korda Rota | Arrasate

Lotsati samar abiatu zuen laukoteak emanaldia, baina abestitik abestira goraka egin zuen nabarmen. Zukutu egin zituzten 30 minutuak euskaraz eta ingelesez, besteak beste, sare sozialei eta heriotzari erritmo azkar eta gordinekin abestuta.



Ktarsia | Bergara

Goxotasuna ekarri zuten ondo jositako bi ahotsetan abestuta, hitz zorrotzak izan arren; esaterako, Palestinari keinua eginda. Bi gitarrek eta bateriak markatutako bide lasaian tarteka flautaren doinuekin osatutako soinu banda txukuna sortu zuten.



Sotoalde | Bergara

Etxean jokatzeko zutela esan, eta etekina ateratzen jakin zuten, publikoaren feedbackak lagunduta. Argitaratu bako kantuak estreinatu zituzten eta publikoarekin batera gogoz abestu zioten, esaterako, herriko jaietako ikur den Bitorianatxori.



Malko | Oiñati

Martxoan argitaratu zuten *Esan ez direnak* bildumako kantuekin egin zuten emanaldi azkarra besteko indartsua. Publikoarekin ederto jolastu ondoren, opari polita egin zioten, taularen gainetik salto eginda azken abestia –*Txakurra*– zaleen arrimuan abestuta.

Aretoan jasotako iritziak

JOKIN BEREZIARTUA
KOORDINATZAILEA

"Buruhauste ugari eragiten ditu Danbakak, baina merezi duen lana da. Hesiaren bi aldeetako irribarra ikustea besterik ez dago Danbakak merezi duela sentitzeko. Lehenengo gaua itzela izan zen, kuantitatiboki eta kualitatiboki".

IÑIGO UGARTE
EPAIMAHAIKIDEA

"Lehenengo gaua oso gogor hasi da eta gogor bukatu ere bai, eta tartean proposamen oso interesanteak ikusi ditugu. Hunkigarria izan da berriz ere Danbakan egotea, eta barruan zein kanpoan sortu den giro ona ikustea eta bizitzea".

AXIER ANDUAGA
PUBLIKOA

"Malko taldekoak kuadrillakoak izanda, eurak ikustera etortzea tokatu zaigu gaur. Danbaka ekimenean aurrez egon barik nengoen, baina ideia ona dela uste dut, eskualdeko taldeak deskubritzeko eta elkar ezagutzeko".

ASIER ELORZA
PUBLIKOA

"Hiru talde ikusi ditut: Ktarsiaren ahotsak zoragarriak dira; Sotoalde ez da nire estilokoa, baina harritu egin naute, balioa ematekoa da atzeko lana; Malko asko gustatu zait, baina, rocka izanik, bolumen handiagoa igarri dut faltan".

HURRENGO KONTZERTUA

Azaroak 15, egubakoitza, 21:30. Bergarako Seminarixoa.

- Eten
- Low Cost Deluxe
- Rebel Noise
- K-PO

Publikoaren Sariaren sailkapena

- 1 K-PO**
Bergara
Botoen %27
- 2 MALKO**
Oiñati
Botoen %18,9
- 3 SOTOALDE**
Bergara
Botoen %18,9
- 4 KARENA**
Antzuola eta Hernani
Botoen %13
- 5 KTARSIA**
Bergara
Botoen %7,6
- 6 TXERRIKUMEAK**
Aretxabaleta
Botoen %4,3
- 7 KORDA ROTA**
Arrasate
Botoen %2,2
- 8 BANANA SHAKE**
Arrasate
Botoen %1,6
- 9 ETEN**
Aretxabaleta
Botoen %1,6
- 10 ONDARE**
Arrasate
Botoen %1,6
- 11 REBEL NOISE**
Arrasate
Botoen %1,6
- 12 721-GOGOR GABILTZA**
Aretxabaleta
Botoen %1,1
- 13 HENKO**
Aretxabaleta
Botoen %0,5
- 14 DEL VAL**
Arrasate
Botoen %0,0
- 15 LOW COST DELUXE**
Bergara
Botoen %0,0
- 16 MAIDER MIMI**
Aretxabaleta
Botoen %0,0

BOTOA EMATEKO
Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunean Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.



Danbakako kontzertu horren erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxe bat errentan hartu nahiko genuke. Hiru neska aretxabaletar gara. Lan egonkorra dugu. 688 62 99 56 edo 616 76 04 61

Arrasate edo Oñati.

Etxea errentan hartuko genuke. 661 63 78 98 (Sebastian) edo 603 45 54 92 (Lina)

Arrasate edo Oñati.

Hiru logela dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. 603 45 54 93

Arrasate.

Hiru logela duen etxebizitza dabilen familia gara. Telefonoa: 633 68 35 76

Bergara eta inguruak.

Etxean errentan hartzeko etxe bila nabil Bergara eta inguruetan. Bi ume dituen pertsona arduratsua naiz. 645 70 34 10

Bergara.

Errentan hartzeko pisu bila nabil. Bi pertsona gara. 645 72 92 87

Oñati.

Oñatiko bi gazte etxebizitza bat errentan hartzeko bilatzen ari gara. Langileak eta arduratsuak. Lanpostu egonkorra dugu. 603 34 39 05

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea errentan hartu nahi dut Arrasateko erdigunean. Deitu 605 90 11 10 telefono zenbakira.

Garajea Arrasaten.

Garaje bat errentan hartu nahi dut Arrasaten. Erdigunean edo inguruan (Zarugalde, Uribe, Larrea, Olarte). 616 30 81 22

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta-Eskoriatza

baseria. Baserri batean, adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egingo dituen emakume baten bila gabiltza. Astelehentik larunbatera bitarteko 40 ordutako kontratua, goiz eta arratsalde. Ibilgailua edo gidabaimena eta Soziosanitario titulua beharrezkoak dira. Baldintza onak. Deitu 628 44 00 49 telefono zenbakira 15:00etatik aurrera.

Arrasate.

Eguerdietan umei ikastolatik jaso (Umezaintza-Arimazubi) eta jaten emateko pertsona baten bila gabiltza. Kobrea izatea edo ikastola horien inguruan bizitzea beharrezkoak da. Etxeko

garbiketarik egiten jakitea baloratuko da, zainzaz gain etxe garbitzaile bila ere gabiltzalako. Telefonoa: 670 53 10 25

Bergara. Emakume bat behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. 607 54 07 72

Ume txikia zaindu Arrasaten.

Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zainduko Arrasaten. Ez da ordutegi finkoa eskeintzen, beharren arabera. Telefonoa: 653 72 31 71

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate.

Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 06 52 12

Arrasate eta inguruak.

Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia dit. Legezko agiriak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo gertu. Deitu 608 80 53 59 telefono zenbakira.

Arrasate eta inguruak.

Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Telefonoa: 644 05 98 53

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.

Emakumezkoa orduka lan egingo prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. 611 53 63 39

Arrasate.

Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zainduko eta nagusiei paseatze-lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 685 73 87 95

Arrasate.

Neska gazte eta arduratsua, gauetan orduka, pertsonak zaintzako gertu. 672 78 04 30

Arrasate.

Pertsona nagusia zainduko nituztek. Asteburuetan eta jaiegutetan lan egingo gertu. 658 92 43 73

Bergara eta Arrasate.

Bergaran, neska goizetan garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak paseatzeko prest. Astelehentik ostiralera Arrasateko ospitalean gauak egiteko aukera dut. 642 37 01 92 (Lina Marcela)

Bergara.

Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketarik egiten lan egingo nuke. Orduka lan egingo gertu. Esperientzia eta lan-erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Bergara, Arrasate eta Oñati.

Sukaldari edo garbiketa lanak egin edota umeak zein nagusiak zainduko gertu dagoen emakumea. garbitzeko, umeak eta jende nagusia zainduko. 613 33 09 38 (Maria Rosa Ruiz)

Debagoiena.

Astegunetan zein asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsonan zaintzan edota garbiketa lanetan. Telefonoa: 612 56 12 39

Debagoiena.

Astelehentik ostiralera arratsaldeetan edo gauetan eta aste bukaeretan edozein ordutegitan lan egingo nuke. Adinekoen zaintzan edo garbiketa-lanetan orduka lan egingo prest. Esperientzia dut. Telefonoa: 691 28 53 25

Debagoiena.

Astelehentik ostiralera, egun osoan zehar, adinekoak zaintzen edo garbiketa-lanetan orduka. Telefonoa: 642 37 01 92

Debagoiena.

Emakume euskalduna pertsonak zaindu, dendarri lanak egin edota tabernetan lan egiteko gertu. Gidabaimena eta soziosanitario titulua ditut. Orduka lan egingo nuke. 656 79 28 37

Debagoiena.

Emakumea pertsona nagusien zaintzan edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. 632 32 52 02

Debagoiena.

Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Sukaldari laguntzaile edo zainduko lanak egiteko gertu. Esperientzia dut. 613 33 09 34

Debagoiena.

Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Emakume atsegina naiz. 673 19 65 10

Debagoiena.

Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 603 77 58 82 telefono zenbakira.

Debagoiena.

Lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Kolonbiar zintzoa naiz. Deitu zenbaki honetara: 645 70 84 95

Debagoiena.

Garbiketa lanetan edo pertsona nagusien zaintzan, pasiatzera laguntzen edota ospitalean konpainia egiten lan egingo nuke. Orduka lan egingo gertu. Soziosanitario titulua dut. 643 50 58 27

Debagoiena.

Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu 632 19 08 26 zenbakira.

Debagoiena.

Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kobrea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 40 38 54

Debagoiena.

Lan bila nabil haurrak edo adinekoak zaintzen, txakurrak paseatzen edo atariak eta etxeak garbitzen. Eskarmentua eta ikasketak ditut garbiketetan. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 612 29 74 89

Debagoiena.

Neska gaztea orduka lan egingo prest. Astegunetan eta asteburuetan lan egingo nuke pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiten. 632 63 77 38

Debagoiena.

Orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan edo bestela lanak egiteko gertu nago. 643 89 13 75

Debagoiena.

Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 625 25 57 78

Debagoiena.

Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestatasuna. Soziosanitario eta garbiketa titulua ditut. Telefonoa: 643 47 39 37

Debagoiena.

Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo prest. Telefonoa: 627 03 16 40

Debagoiena.

Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut, baita erizaintzako ikasketak nire herrialdean. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 643 50 56 62

Debagoiena.

Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen neska gaztea. Orduka lan egingo nuke astegunetan zein asteburuetan. 602 82 64 84

Debagoiena.

Pertsonen zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu. 15

urteko esperientzia dut.

Soziosanitario titulua. Deitu 602 07 40 39 telefono zenbakira.

Debagoiena.

Soziosanitario tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 604 23 85 31

Debagoiena.

Taberneta edo etxeetako garbitzaile gisa eta adinekoak paseatzen laguntzeko lan bila nabil. 642 26 61 50

Oñati eta Arrasate.

Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Deitu 677 42 20 97 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

807. AURKITU

Eraztuna aurkitu dugu. Urkulu inguruko basoan urrezko ezkontza-eraztun bat aurkitu da. Barnean zintzoa dauka idatzita. Harremanetarako deitu 656 90 82 93 telefono zenbakira.

808. BESTELAKOAK

Oñatitik Bergarara kobrea partekatzea. Oñatitik Bergarara 14.35etan kobrea joaten den norbaiten bila nabil. Gastuak elkarbanatuko nituzke. 652 73 12 34

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA Ekaitz Alonso Gonzalez

Azaroaren 6an, 9 urte. Zorionak, txapelidun! Primeran ospatuko! Askok maitxe zaitzugu! Muxu pila familia guztiaren partetik.



BERGARA **Jakes Berraondo Albusa** Azaroaren 5an, 3 urte. Armiarma sarea bezalaxe, handi eta handi egiten zabilzako! Zorionak!



ARRASATE Beñat Lezamiz Agirre

Zorionak 31n, 3 urte. Zorionak, Beñat! Ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE **Ekain Zabaleta Urteaga** Urriaren 30an, 10 urte. Zorionak, maittetxo!



ARRASATE Markel Nin Ugalde

Urriaren 28an, 9 urte. Eta heldu da eguna, 9 urtetar gaur Markel! Zorionak eta jarraitu beti bezain bizi! Gaur ospatzeko eguna da! Besarkada handi bat etxekoan partetik.



BERGARA **June Iturrospe Arondo** Urriaren 28an, 9 urte. Zorionak, June! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik.



BERGARA **Uxue eta Alaitz Gonzalez Lete** Urriaren 25an, 10 urte. Zorionak, prexiosas! Ondo pasau zuen eguna. Muxu potolo bat danon partetik.



ARRASATE **Manex Arizmendiarieta Zabaleta** Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Manex! Jarraitu zaren bezain alaixa eta maitagarria izaten! Etxekoan partetik!

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta Goiena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



LEGUTIO Gorka Errasti Ibabe

Urriaren 30ean, 1 urte. Zorionak! Konturatu gabe urte bat bete duzu. Laztan handi bat etxekoan eta familia osoaren partetik. Askok maitxe zaitugu!



OÑATI Axel Biain Ignacio

Azaroak 4ean, 2 urte. Zorionak, Axel! Oso ondo pasau gaurko eguna familixarekin eta lagun danakin. Muxu pila bat danon partetik. Askok maitxe zaitugu.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Bergara:
Ibaiondo pasealekua
96m², 3 logela, bi trasteleku, igogailua, garajea aukeran.
340.000€


Bergara:
Herrilagunak,
52m², 2 logela, igogailua, trasteleku.
195.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

ESKER ONA

Rafael Ramos Rey




2024ko urriaren 24an hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko urriaren 31n.

ESKER ONA

Julian Gardoqui Ortueta




2024ko urriaren 28an hil zen, 88 urte zituela.

Hartuko zaituen lurrera itzuli zara isilean.


Familiaren izenean, mila esker hiletara joan zineten guztioi.

Aramaion, 2024ko urriaren 31n.

OROIGARRIA



Javi Garcia Elices



2024ko urriaren 25ean hil zen.

Behoko sue piztu ta juen lekue berotzen hor nunbait elkartuko gara berriz eta. Gero arte. Zure jentie

Haren oroimenez egingo den agur ekitaldia ostegunean izango da, urriak 31, 17:30ean, Arrasateko San Kristobal hilerrian.

Arrasaten, 2024ko urriaren 31n.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore BABESLEA
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako gaztelu esuren bidea aurkitzen lagunduz diegu, orain arte bezala, eta gaztelu itango date agur berria Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan dizuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moya OÑATI



OROIGARRIA

Javi Garcia Elices



2024ko urriaren 25ean hil zen.

Beti izango zara gure inkonformista partikularra. Bidean berriro elkartuko gara. Gero arte, Javi.

Santagedako lagunak.
Arrasaten, 2024ko urriaren 31n.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
- Egubakoitza, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 3 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 4 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 5 JAI0: Zarugalde 38 / 943 76 16 30
Eguaztena, 6 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Eguena, 7 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
- BERGARA EGUNEZ**
- Egubakoitza, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 2 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Domeka, 3 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Astelehena, 4 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 5 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 6 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 76 11 74
Eguena, 7 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
- Egubakoitza, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 2 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 3 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 4 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 5 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 6 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
- Urtea bukatu arte: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
- Urtea bukatu arte: OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COP Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



1970eko arrasatearrak
Argazkian dauden guztiak 1970ean jaiotako arrasatearrak dira. Urriaren 26an elkartu ziren kintada egiteko. 56 lagun. Egun-pasa ederra egin zuten, zapi morea lepoan lotuta.



'Casteller'-ak
Euskal Herriko Casteller Taldeak geldialdia egin zuen urriaren 19an Oñatin. Hiru orduz makina bat giza dorre egin zuten Foruen plazan. Talde berria da.

Eguerdiko poteoaren ostean, Al-Andalusen bazkaldu zuten. Mahaiaren bueltan txikitako kontuak izan zituzten berbagai. Bazkalosteko solasaldiaren ondoren, oraindik ere festarako gogoz zeuden.



Arte lantegia
Eduardo Txillidaren bueltako arte lantegia egin zuten aurreko zapatuan Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Umeak eta helduak elkartu ziren.

ASTEAGOIENA TELEBISTAN



'ZELAKO ETXEETAN BIZI GARA?'

Etxebizitzak hartuko dituzte hizpide: alokairua, salmenta, etxe berriak, zaharrak, bigarren eskukoak...

'*Datuetatik tiraka sareten*' Eguena, 21:00 eta 23:00



'DANBAKAST' SAIOA

Jokin Bereziartuak gidatutako saioa. Kristina Markina eta Jokin Vitoria izango ditu bidelagun bideopodcast saioan.

'*Danbakast*' Eguena, 20:00 eta 22:00



GALDE-ERANTZUNEN JOLASA, ARRASATEN

Aitor Agiriano Arrasatera joango da herrien arteko *Bixi ibili!* tribial jokoarekin, herritarren jakinduria probatzeko.

'*Bixi ibili!*' Martitzena, 20:00 eta 22:00



SOLASALDI SAIOA

Alberto Alonso Gogora institutuko zuzendaria elkarrizketatuko du Goiatz Aranak 'Berbagai' saioan eguaztenean.

'*Berbagai*' Eguaztena, 20:00 eta 22:00



JOSU OZAITA ANTROPOLOGOARI ELKARRIZKETA

Besteak beste, Gau Beltzari buruzkoak galdetuko dizkio Joni Ubedak Ibarroko antropologoari.

'*Elkarrizketa*' Eguaztena, 20:30 eta 22:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUENA 31

DEBAGOIENA Gaba Baltza
Ekitaldiak Oñatin, Aramaion, Elgetan, Arrasaten, Eskoriatzan, Antzuolan eta Aretxabaletan. Informazio osoa 2. orrian. *Herri horietan.*

OÑATI 'El cielo rojo' filma
Zineklubean eta jatorrizko bertsioan. Sarrerak, bost euro. *Zinema-aretoa, 19:30ean.*

ARRASATE Eneritz Furyak
Esperimentatzeari mugak jartzen ez dizkion bakarlararen emanaldia, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ESKORIATZA Zero taldea
Punk-rock estiloa lantzen duen taldearen emanaldia. *Inkernu tabernan, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 1

OÑATI Bisita gidatua Arantzazun
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63. *Arantzazun, 10:30ean.*

BERGARA Bisita gidatuak Bergaran
Bergara monumental eta *Lorategi historikoak* aukeran. 11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo info@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko. Izena: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ARRASATE Pilota partiduak
Lau Eta Erdiko Eusko Label Pilota Txapelketako final laurdenak. *Uarkapen, 17:00etan.*

ZAPATUA 2

OÑATI Bisita gidatua Arantzazun
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63. *Arantzazun, 10:30ean.*

BERGARA Bisita gidatuak Bergaran
Bergara monumental eta *Lorategi historikoak* aukeran. 11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

ARRASATE Elkartasun jaialdia
11:30ean, hitzaldia Amaiur Egurrolarekin eta Junex lartzarekin; 14:30ean, elkartasun bazkaria; 18:30ean, karro-poteoa; eta 22:00etan, Deskontrol, Eten, La Fulana eta Txerrikumeak. *Gaztetxean.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo info@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

BERGARA XVIII. Soraluze-Bergara krosa
Hiru irteera ezberdin: 16:30ean handbikeak; 16:45ean patinak; eta 17:00etan korrikalariak. *San Martin plazan.*

ARRASATE 'Mamuak ezagutzera joan zen umea' antzezlana
Anodino Teatrorren eskutik, umeendako. Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 17:00etan.*

DOMEKA 3

ELGETA Lubakietara bisita
Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus. *Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

OÑATI Bisita gidatua Arantzazun
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63. *Arantzazuko Turismo Bulegoan.*

BERGARA Bisita gidatua Bergaran
Bergara monumental eta *Lorategi historikoak* bisitatu aukeran. 11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo info@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

OÑATI Eragiyok abesbatza
Musikugunetako lehena. Sarrerak, zazpi euro. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ASTELEHENA 4

ARRASATE Errugabetasun presuntzio-eskubidearen gaineko hitzaldia
Nekane San Miguel Bergaretxe epaile ohiak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

BERGARA 'Digitalizazioa Euskal Herrian' hitzaldia
Leire Lisonek eta Goiatz Oiarzabalek egingo dute berba. *Seminarixoan, 10:00etan.*

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten. *Herri horietan, 12:00etan.*

OÑATI Menopausia tailerra
Informazioa jasotzeko eta esperientziak partekatzeko aukera. *Osasun zentroan, 13:00etan.*



ANODINO TEATRO

ARAMAIO Irakurle Klub Feminista

Ainhoa Aldazabal dinamizatzailerak proposatutako liburua landuko dute. *KZgunean, 18:00etan.*

OÑATI Idazketa lantegia

Josemari Iturralde gidatuta. *Liburutegian, 18:00etan.*

MARTITZENA 5

BERGARA 'The black box' erakusketa

ZTB jardunaldien baitan, ikusgai egongo da otsailaren 16ra arte. *Laboratoriumen, 10:00etan.*

OÑATI Gizonendako foro irekia

Hiruko Larroxako kide Joseba Gabilondorekin. Gaur egingo dute lehen saioa. *San Juan kaleko lokalean, 17:30ean.*

OÑATI Komikia solasaldia

Mo, behi euskaldun baten memoriak liburuaren gaineko saioa, Igor Leturiak gidatuta. *Liburutegian, 18:30ean.*

ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea

Irakurgai: Adriano Mataren *Sanroketarako, etxean.* *Liburutegian, 19:00etan.*

OÑATI 'Mendian Gora' erakusketa

Euskal mendialetasunaren historia batzen duen bilduma. Gaurtik hilaren 22ra arte. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA 'Zer ari da gertatzen Osakidetzan?' hitzaldia

Larraitx Arriolak, Ander Arregik eta Rebeka Uberak egingo dute berba. *Seminarixoan, 19:00etan.*

ARRASATE '80 amandre' ipuin kontaketa saioa

Helduendako saioa, Dorleta Kortazarren eskutik. Debalde. *Kulturaten, 19:00etan.*

ARRASATE 'La virgen roja' pelikula

Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ARRASATE 'Mamuak ezagutzera joan zen umea' antzezlan

Malda neska beldurtia da, baina haren armairuko mamuak ezagutzera ausartuko da. Beldurra emateari uzteko eskatuko die. Umeendako lana, Anodino Teatrotan eskutik. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.*

EGUAZTENA 6

BERGARA Adimen artifiziala ezagutzeko hitzaldia

Teknologia horrek egunerokoan duen eragina modu errazean azalduko du Leire Legarrak, ZTB jardunaldien baitan. *Seminarixoan, 10:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Agota Kristof idazlearen *El gran cuaderno* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Arkupen, 18:00etan.*

OÑATI 'Bihotza ala burua? Osasun mentala kirolean' solasaldia

Malen Osa Ansak, Iñaki Igartua Loidik eta Uxue Otxoa Alberdik egingo dute berba, Eneko Azurmendik gidatuta. Sarrera irekia, edukiera bete arte. Ateak 18:45ean zabalduko dituzte. *Zinema-aretoa, 19:00etan.*

ARRASATE 'La mujer y su derecho al caserío en la historia guipuzcoana. Siglos (XVI-XIX)' hitzaldia

Maria Rosa Aierbe historialariak egingo du berba, gaztelaraz, Iragana Astintzen zikloaren baitan *Kulturaten, 19:00etan.*

BERGARA 'Bleu' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 7

BERGARA Menopausia tailerra

Informazioa jasotzeko eta esperientziak partekatzeko aukera. *Osasun zentroan, 08:30ean.*

BERGARA Barnetegi Teknologikoa

Sonia Perez eta Beatriz Laskurainen eskutik. ZTB jardunaldietan. *Miguel Altunan, 09:00etan.*

ARRASATE 'Ondo lo egitea' hitzaldia

Txagorritxuko Loaren Unitateko pneumologo sortzaile Joaquín Duranek egingo du berba. *Kulturaten, 17:30ean.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Irene Solaren *Canto yo y la montaña rusa* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Euskal Herria: La mirada extranjera' liburuaren aurkezpena

Fernando Perez Labordak aurkeztuko du, Olaso Dorrea Fundazioak gonbidatuta. *Olaso dorrean, 19:00etan.*

ARRASATE La Inquisición taldea

Bartzelonako taldea, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Los destellos
Domeka eta astelehena: 19:30.

BERGARA

SEMINARIXOA

Joker 2: folie a Deux
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

Amigos imaginarios
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El 47

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30 eta 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.
Rescate en Africa
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Soy Nevenka
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

Jurado Nº 2
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 18:05, 20:25, 22:45.
Martitzena: 18:05, 20:25.

Elli y el equipo de monstruos

Eguenetik (urriak 31) domekara: 15:45, 17:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Yo no soy esa
Egunero: 16:10; 18:15, 20:30, 22:30.

Anora

Egunero, martitzena izan ezik: 16:15, 19:05, 21:55.
Martitzena: 16:15, 19:05.

Bhoal bhulaiyaa 3

Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 18:15.

Gardfield

Zapatua eta domeka: 16:00.

Frankenstein
Martitzena: 20:00.

Robot salvaje

Eguenetik (urriak 31) martitzenera: 15:45, 17:55, 20:05.
Eguaztena eta eguena: 15:45, 17:50.
Eguena (urriak 31), eta egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:30.

La infiltrada

Egunero: 17:00, 19:30, 22:00.

Smile 2

Egunero, eguaztena eta eguena izan ezik: 17:00, 19:40, 22:20.
Eguaztena eta eguena (urriak 7): 17:00, 19:40, 22:20.
La sustancia
Eguenetik (urriak 31) domekara: 19:35, 22:20.
Astelehenetik eguenera (azaroak 7): 19:25.

La habitacion de al lado

Eguena (urriak 31): 20:00.
Egubakoitza: 19:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena (azaroak 7): 18:10.
Martitzena: 17:30.

Bitelchús

Bitelchús
Eguena (urriak 31): 22:05.
Astelehena, eguaztena eta eguena (azaroak 7): 22:40.

Soy Nevenka

Egubakoitza: 16:45.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:45.

El llanto

Zapatua: 19:00.
Domeka: 21:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:25.
Martitzena: 22:40.

La gran escapada

Astelehenetik eguenera (azaroak 7): 16:00.

Joker: foie a Deux

Astelehenetik eguenera (azaroak 7): 22:15.

Terrifier

Egunero: 17:20, 19:55, 22:30.

Scape

Egunero: 17:00, 19:35, 22:10.

KRIKIA

Rita

Zuz.: Paz Vega. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** Paz Vega, Roberto Alamo, Sofia Allepuz. **Iraupena:** 94 minutu.

★★★★★

Haurtzarora itzultzea

ANTONIO ZABALA

Badira aktore izatetik zuzendari izatera pasa diren artistak. Horietako bat Paz Vega da. Espainian eta gero Ameriketako Estatu Batuetan lan egin ostean, *Rita* filma aurkeztu du gure pantailetan. Zuzendari bezala eginiko lehengo filma da. Haurtzarora itzultzea da.

Istoria Andaluzian kokatzen da 1984. urtean. 7 urte dituen Rita 5 urteko anaia Lolorekin eta gurasoekin bizi da. Filmean gertatzen dena Ritaren ikuspuntutik heltzen zaigu. 1:33 formatuan filmatuta dago, irudien enkoaraketa nahiko itxia da eta, askotan, kamera Ritaren parean kokatzen da ikusleari haur horrek ikusten, entzuten, sentitzen eta ondorioztatzen duena aditzera emateko.

Bi anaiak ia denbora guztian elkarrekin daude, baina igartzen da bien artean dagoen adin diferentzia. Ritak gauza gehiagoz konturatzeko ahalmena du: ate bat erdi zabalik dagoenean ikusten duena, pertsiana erdi jaitsi baten tartetik ikusten eta entzuten duena... Zuzendariak jokatzeko iruditik kanpo gertatzen denarekin. Ikusleoi zeharka heltzen zaizkigu istorioaren datuak; eta datu horiek ezagutzen ditugu gizarte horren eta familiaren ezaugarriak. Kasu askotan, ezkontzak daukan tranpa emakumearentzat. Zeharo lotuta ekonomiko eta sozialki gizonarekin, baita seme-alabak hezi eta babesteko sentitzen duen behararengatik ere.

AZKEN BERBA



IZAR ODRIUZOLA

N-634

Bizipen terrorifiko bat da autoak edozein lekutan botata uztea. Halere, gauza askorekin bezala, ohitzen bukatzen duzu, eta horixe gertatu zitzaidan niri.

Nekagarriena, zalantzarik gabe, prozesu guztia emakume gisa bizitzea da. Garabilariak ere denetarik tokatu zaizkit, baina askotan sentitu izan dut presio moduko bat, esaten ari natzaion oro zalantzan jarriko balu bezala. Ez dut nahi gizon garabilariak paternalismoz hitz egiterik *-zer-jakingo-du-neska-honek-motorrez-* oihukatzen didatenean bere begiek.

Estreinakoz gertatu zitzaidanean ez nuen jakin nire kabuz aurre egiten. Eskarmentuz ikasi nuen, eta gaur egun profesionala naizela deritzot. Botata geratu naizen errepideen rankinga egin diezazueket: kurba txarrak *meh*, hobe bazterbide zabala bada, eta bueno, azelerazio-bideak ere ez daude gaizki.

Asegurua? Robot batek erantzuten duelako, bestela aspaldi gonbidatuko nukeen kafea hartzera; *Aasegurua* gisa gordeta dut, faboritoetan; zer kontatuko dizuet, ba... Eta txaleko horia... dagoeneko garbitzera bota beharko nukeela uste dut, hainbeste erabiliagatik.


BUKATZEKO



Jose Maria Gonzalez Bastida. ERESBIL



M. Gonzalez Bastida. BERGARAKO UDAL ARTXIBOIA



Alfredo Gonzalez Chirlaque. GOIENA

Omenaldi musikala Gonzalez sagari Bilbon

Bilboko Udal Musika Bandak azaroaren 8an emango du 'Hurbileko omenaldiak' kontzertua, Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioan. Emanaldi berezi horretan Bergarako musikari-saga ezagun bati egingo diote aitortza: Gonzalez familiari

Sara Lanz Azpiazu BERGARA

Azaroaren 8an, Bilboko Udal Musika Bandak kontzertu berezia emango du Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan: bertako konpositoreek eta Euskal Herriko beste zenbait sortzaileek sortutako obrak interpretatuko ditu. Bergarako Gonzalez familia ospetsuko musikagileen ondarea omen-

duko dute emanaldi horretan, eta, Iñaki Urkizuren zuzendaritzapean, euskal musikari-sagari eskainitako kontzertua aurkeztuko dute.

Begarako laugarren belau-naldiko kide eta familia horretako partaide Alfredo Gonzalez Chirlaquek azaldu duenez, "familia osoak harrotasunez bizi du musikarien ibilbidea;

ohore handia da gure obrak berriro taularatzea. Gainera, Bilboko banda profesional baten interpretatuko duela jakiteak sekulako emozioa eragiten digu".

Familiaren ibilbide luzea

Alfredo Gonzalezek ezagutarazi duenez, familiaren historian konpositore ugari izan dira, eta

denek dute euren ekarpena euskal musikaren esparruan: "Ohitura honek Joxe Gonzalezekin izan zuen hasiera, eta ondoren, Ignacio, Miguel eta ni neu ibili gara, eta orain, nire alaba Patrizia Gonzalez dabil. Eta ez da erraza bost belaunaldik musikaren munduan bat egitea".

Obren esanahia eta arima

Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertuan Gonzalez familiaren hainbat lan entzuteko aukera egongo da; obra bakoitzak hainbat helduleku ditu: Euskal Herriaren, Bergararen zein familiaren istorioak dituzte oinarri, hain zuzen ere.

Euskal Herriko paisaiari erreferentzia egiten dioten piezak izango dira kontzertuan, hala nola *Mendia eta itsasoa* eta *Fuenterrabia-Hondarribi*. Baita hainbat zortziko eta poema sinfoniko; tartean, *Lorea*, Miguel Gonzalez Bastidak iloba tragikoki galduari eskainitako obra. Gainera, *Lokatza* Bergarako Lokatza txirrindularitza taldeari eskainitako obra ezaguna ere interpretatuko dute.

Esker onak

Bilboko Udal Musika Bandak euskal konpositoreei eskainitako kontzertu horrek, bandaren 130. urteurreneko ospakizunen parte izanik, euskal musika eta sortzaileek kultura-esparruan duten balio handia adierazi nahi du, Alfredo Gonzalez Chirlaquek hori nabarmendu du: "Musika-ondareak denboraren joanean gure artean jarraitzea benetan eskertzekoa da, eta Bilboko Udal Musika Bandak familia honi eskainitako omenaldi sekulako aitortza da guretzat".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'DANBAKAST'

URRIAREN 31N, EGUENA, 20:00ETAN ETA
22:00ETAN
JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTAKO
BIDEOPODCASTA
TERTULIAKIDEAK: KRISTIAN MARKINA
ETA JOKIN VITORIA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena 
Zu hemen zaude.

